

AURKEZPENA

“Tokiko Agenda 21 Euskadiko Udalerrietan ezartzeko eta garatzeko gida praktikoa” eginez eta argitaratuz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, Euskadiko Autonomia Erkidegoan Tokiko Jasangarritasunaren alde duen konpromisoa eta lana berretsi du.

1998. urtean, Udalei eta Mankomunitateei zuzenduriko urteroko diru-laguntza bide bat jarri genuen martxan, Tokiko Agenda 21en esparruan Ingurumenarekin erlazionaturiko Ekintza Planak diseinatzeko, garatzeko edo/eta aurrera eraman ahal izateko. Gaur egun, eta hiru deialdiren ondoren, berrogei Udal eta Mankomunitate baino gehiagok eskuratu dute jada aipaturiko diru-laguntza bide hori. Esan behar da udal eta Mankomunitate horiek euskal biztanleen %61 biltzen dutela.

Diru-laguntza jaso duten Tokiko Agenda 21eko prozesuak ezagutu eta ebaluatu ondoren, marko metodologiko komuna sortzea komenigarri izan daitekeela iritzi diogu, Euskadiko Udalerrri guztientzat ezagutza tekniko eta tresna praktikoa gisa erabiltzeko, Tokiko Agenda 21 ezartzeko eta garatzeko bidean.

“Tokiko Agenda 21 Euskadiko Udalerrietan ezartzeko eta garatzeko gida praktikoa” hau euskal Udaletako ordezkari politikoei eta udal teknikariei bideraturik dago batez ere, Tokiko Agenda 21eko prozesuei hasiera eman diezaieten edo haiek finka ditzaten, eta, era berean, haien bultzatzaile eta buru nagusi izan daitezen. Horrez gain, ekonomiako eta

gizarteko agenteei eta euskal herritarrei orokorrean ere badago bideraturik, haien ekarpenak eta jarduteko konpromisoak lortu nahi baititu.

Honako hau du helburu:

- Udal kudeaketaren eraginkortasunaren hobekuntza.
- Ingurumenarekin, ekonomiarekin eta gizartearekin erlazionaturiko udal-politiken integrazio eraginkorra.
- Herritarren parte hartzea bultzatzea eta gizarteko eta ekonomiako agenteek eta herritarrek konpromisoak har ditzaten sustatzea.
- Herritarrei informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzea.
- Kanpoko finantzaketa iturriak eskuratzeko erraztasunak ematea.
- Udalaren autonomia indartzea, subsidiaritate printzipioa aplikatuz.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saitetik Euskadiko udalerrietara bideratu nahi ditugu gure erronkak eta helburuak, haiek bere egin ditzaten, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Garapen Jasangarria errealitate bihurtu dadin.

Francisco Jose Ormazabal Zamakona
Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu,
Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua

Aurkibidea

1. Sarrera	4
Helburuak	5
2. Tokiko jasangarritasuna: toki garapen orekatua lortzeko filosofia	8
• Tokiko sistema integratua	8
Ingurumeneko jasangarritasuna	10
Ekonomiako jasangarritasuna	11
Gizarteko jasangarritasuna	12
• Jasangarritasunik ez globala	13
Ingurumeneko arazo globalak	16
Ekonomiako arazo globalak	16
Gizarteko arazo globalak	17
• Tokiko jasangarritasuna	17
Tokiko jasangarritasunerako irizpideak	18
3. Nola ezarri Tokiko agenda 21?	22
• Tokiko agenda 21: kontzeptua	22
Tokiko agenda 21 en esparrua	22
Mankomunitatearen edo Koadrilaren eginkizuna Tokiko agenda 21 ean	23
Foru Aldundiaren eginkizuna Tokiko agenda 21 ean	25
Tokiko agenda 21 en ezaugarriak	25
Udalaren Egitasmoa	25
Herritarren egitasmoa	26
Tokiko ekintzarako plana	26
Prozesu irekia eta sorkuntzazkoa	27
• Onurak udalerrientzat	28
• Tokiko agenda 21 en esparrua	29
Gaikako alorrak eta erlazionaturiko aldagaiak	29
• Prozesu metodologikoaren eskema	32
• Tokiko agenda 21 ezartzeko eta garatzeko prozesuaren metodologia	35
Aurre fasea: Motibazioa	35
I. Fasea: Prozesuaren planifikazioa	37
II. Fasea: Ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen diagnostikoa	39
III. Fasea: Tokiko Ekintza Plana	45
IV. Fasea: Burutzapena	48
V. Fasea: Tokiko Ekintza Planaren Jarraipena eta Kontrola	50
Tokiko agenda 21 en jarraitasuna	52
4. Adibide gisa: Tokiko Agenda 21 en inguruan udalek egin ditzaketen 21 ekintza	54
• 1. ekintza. Udalerriko hiri lurzorua tratuaren Jasangarritasun irizpideak kontuan hartzea	56
• 2. ekintza. Hiriguneak birgaitzeko programa sortzea	59

• 3. ekintza. Udalerriko lurzoru urbanizaezinaren trataeran Jasangarritasun irizpideak kontuan hartzea	62
• 4. ekintza. Ingurumenari buruzko udal ordenantzak egitea	65
• 5. ekintza. Udalerriko Natur Ondarearen katalogoa egitea	68
• 6. ekintza. Udalerriko hiri inguruneke lurzoru berreskuratzea edo babestea korridore ekologikoak sortuz eta nekazaritza guneak mantenduz	71
• 7. ekintza. Eraikuntza eta eraiste lanetako hondakinen kudeaketa hobetzea	74
• 8. ekintza. Gaikako bilketako edukiontzien kudeaketa hobetzea	77
• 9. ekintza. Garbiguneen kudeaketa optimizatzea, produktuen balorazioa bermatuz	80
• 10. ekintza. Udal eraikin, instalazio eta zerbitzuetan energia eraginkortasunerako irizpideak ezartzea	83
• 11. ekintza. Uraren tarifa erabileren eta kontsumoaren arabera antolatzea	86
• 12. ekintza. Udal eraikin, instalazio eta zerbitzuetan ur kontsumoaren eraginkortasunerako irizpideak ezartzea	89
• 13. ekintza. Neurrizko zirkulazioko guneak eta ingurumen guneak eratzea udalerrian	92
• 14. ekintza. Oinezkoentzako guneak gehiagotzea eta bizikleta gehiago erabil dadin sustatzea, horretarako behar bezalako sarea sortuz	95
• 15. ekintza. Sustapen ekonomikoa ingurumena erasotzen ez duten jardueretarantz bideratzea	99
• 16. ekintza. Udalerriko jarduerak ikuskatzeko eta kontrolatzeko sistema eratzea	102
• 17. ekintza. Udal merkatuen kudeaketa integrala sustatzea	105
• 18. ekintza. Sektore Batzordeen edo parte hartzeko foroen bidez herritarrek parte har dezaten sustatzea	108
• 19. ekintza. Udalerriko eragile ekonomikoekin lan talde bat sortu eta dinamizatzea	111
• 20. ekintza. Ingurumen heziketako kanpaina egitea udalerrian: Tokiko Agenda 21 ikastetxeetan	114
• 21. ekintza. Euskal udalerri jasangarrien arteko sarea eratzea	117
5. Tokiko Agenda 21 Euskadin	120
• Tokiko agenda 21 Euskadin: hasiera	120
• Euskadin prozesua baldintzatzen eta bultzatzen duten eragileak	120
• Tokiko Agenda 21 Euskadin: gertaerarik garrantzitsuenak	121
6. Glosategia	126
7. Eranskina	134
• Aalborg-eko Gutuna	134
• Lisboako Ekintza Plana	141
• Hannoverreko Deia	146

1. Sarrera

Ondoren aurkezten den gida, Euskadiko udalerri guztiei Tokiko Agenda 21* ezartzeko tresna praktikoa eskaintzeko beharretik sortzen da. Gehienbat euskal udaletako arduradun politikoei eta teknikoei bideraturik dago, zeren Tokiko Agenda 21en prozesua gehienbat herri mailakoa baita, eta herrietako agintariak baitira prozesuaren arduradun nagusiak.

Tokiko Agenda 21ek Euskadin duen errealitateari begira buruturiko eta egokituriko Gida da. Errealitate horren ezaugarriak honako alderdi hauek dira.

- *Tokiko Agenda 21en edukiari, eraginei eta garapenari buruzko eza-gutza maila desberdina, dituen ondorioei, oinarri teorikoari, helburuei, tresnei eta udal kudeaketan izango dituen onurei buruzkoa...*
- *Tokiko Agenda 21 ingurumenarekin erlazionaturiko alderdien kudeaketa jasangarriarekin soilik erlazionatzeko joera. Orokorrean, Tokiko Agenda 21, hirigune edo landaguneetako ingurumenaren kudeaketarekin baino ez da erlazionatzen.*
Ez dira kontuan hartzen prozesuan guztiz oinarrizkoak diren beste alderdi batzuk: ekonomian edo gizartean oinarritutako sektoreko politiken integrazioa eta herritarren parte-hartzearen sustapena. Gida hau baliagarri izan daiteke gaur egungo esperientzien eta prozesu berrien osagarri izango diren tresna eta metodologia egokiak eskaintzeko.
- *Euskadiko udalerriek gero eta informazio, prestakuntza eta aholkularitza tekniko gehiago eskatzen dute.*
Euskadiko udalerri guztietan Tokiko Agenda 21en ezarketa eta garapen mailari buruz egindako inkesta baten datuen arabera, erantzunen %99k, Tokiko Agenda 21i buruzko informazio gehiago eta hobea eduki beharra erakusten zuten, haren ondorioei, edukiari, onurei, Jasangarritasunaren aplikazio praktikoari... dagokienez.

Azkenik, esan behar da Euskadiko udalerrien neurriak baldintzatu egiten duela Tokiko Agenda 21en errealitatea Euskadin. Euskadiko hirietan bizi diren biztanleak biztanle guztien %81 dira, eta 40 udalerritan kontzentratuak bizi dira. Gainerako 389.629 pertsonek osaturiko landa biztanleria 211 udalerritan bizi da.¹


¹ EUSTAT-en arabera, hiriko biztanleak, 10.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi direnak dira.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak, Tokiko Agenda 21 Euskadiko udalerri guztietan ezarri eta garatu dadin nahi du, haien neurria kontuan izan gabe.

Agiri hau Euskadiko udalerri handietako hiri inguruaren eta udalerri gehienetako landa inguruaren errealitatera egokitu nahi da.

1.1. Helburuak

Orokorrean, esan daiteke *Tokiko Agenda 21 Euskadiko udalerrietan ezartzeko eta garatzeko gida praktikoa* honako helburu hauek dituela:



- **MOTIBATU** Euskadiko udalerrietako arduradun politikoak eta teknikoak, Tokiko Agenda 21en prozesu bakoitzaren bultzatzaile nagusiak izan daitezten. Hirietako ingurumenari buruz gogoeta egiteko eta aritzeko beharrari buruz motibatzea, udaleko kudeaketa egokiena izan dadin, eta, horrez gain, aberatsagoa izan dadin herriko herritarren aportazioari esker.
- **PRESTATU** bai Herri mailako Jasangarritasunean* Tokiko Agenda 21en oinarri teorikoa den heinean, eta baita euskal udalerrietako errealitatera ongien egokituriko garapen metodologiko eta praktiko gisa. Prestatu, Herri mailako Jasangarritasunak udal kudeaketan izango dituen ondorioetan eta aplikazioan.
- **ERRAZTU** Herri mailako Jasangarritasunaren aldeko eguneroko praktika. Horretarako, 21 jarduera aurkezten dira, udalerri batean Tokiko Agenda 21en ondorioen eta garapenaren adibide izan daitezkeenak.
- **EZAGUTU** Tokiko Agenda 21en jatorria eta Euskadin izan duen bilakaera.

Helburu horiek guztiak lortzeko, Gidak honako atal hauek ditu:

- ***Tokiko Jasangarritasuna: filosofia bat udalerrria modu orekatuan garatzea***
- ***Nola ezarri Tokiko Agenda 21? Jarraibide metodologikoak.***
- ***Adibide gisa: Tokiko Agenda 21en eguneroko jardunetik sortzen diren 21 jarduera.***
- ***Tokiko Agenda 21 Euskadin.***
- ***Glosategia***

Definituriko egiturak orokortasunetik errealitate praktikora eboluzionatzeko aukera eskaintzen du. Horretarako, lehenbiziko atalean, Jasangarritasunaren oinarri teorikoa ezartzen da: jatorria, zergatiak eta gaur egungo munduak dituen ingurumen, ekonomia eta gizarte arazoen aurrean gogoeta egiteko eta herri mailan jarduteko beharra.

Ondoren, Tokiko Agenda 21en metodologia zehazten da, tresna gehien bat praktikoa baita, Jasangarritasun kontzeptua bideratzeko eta hiriko ingurumenaren, landa gunetako ingurumenaren² eta udal kudeaketaren errealitatera egokitze aukera ematen duena.

Tokiko Agenda 21 udal errealitatean aplika daitekeen prozesu praktikoa dela ulertarazteko helburuarekin, hurrengo atalean, adibide gisa, eguneroko jardunean, euskal udalerrietan Tokiko Jasangarritasunera bidera daitezkeen 21 jarduketa aurkezten dira. Amaitzeko, Tokiko Agenda 21 prozesuak Euskadin duen errealitatea aztertzen da. Hori guztia osatzeko, eranskin metodologiko bat eta glosategi tekniko dago.

Ondoren, atal bakoitzaren edukia ematen da, Tokiko Agenda 21 Euskadiko udalerrietan ezartzeko eta garatzeko gida praktikoa markaturiko helburuak osatu asmoz.

² Landaguneko ingurumena: biztanle kopuruaren arabera landagunekoak diren udalerrien ingurua. Hau da, 10.000 biztanletik beherako udalerriena.



Zer lortu nahi du
Tokiko

Agenda 21ek?

2. Tokiko Jasangarritasuna: toki-garapen orekatua lortzeko filosofia

Tokiko Agenda 21ek Tokiko Jasangarritasunerako bidea zehaztu nahi du. Izan ere, Tokiko Agenda 21en oinarri teorikoa da, eta bere helburua garapena da, herritarren bizitza kalitatearen hobekuntza gisa ulerturik, naturarekin eta tokiko ahalmen ekonomikoekin orekan.

Jasangarritasun kontzeptuak honako ezaugarri hauek ditu oinarri:

- Ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen integrazioa.
- Tokiko Jasangarritasuna Jasangarritasun eza globalaren aurrean.

2.1. Tokiko Sistema Integratua

Jasangarritasun globala eta tokikoa ezin daitezke ulertu gizartean eragina duten ingurumenarekin, ekonomiarekin eta gizartearekin erlazionaturiko alderdiak barneratu gabe. Ekonomiaren garapenak, baliabide naturalen erabileran oinarriturik, ingurumenean eta biztanleen oinarritzko beharrak betetzean dituen ondorioak direla-eta, nahitaezkoa da hirigune eta landaguneetako ereduak elkarren artean erlazionaturiko ingurumen, ekonomia eta gizarte aldagaien multzotzat hartu eta aztertzea.

Europako Ingurumen Agentziak hiriguneko eta landaguneko sistemak DPSIR ereduaren³ arabera aztertzen ditu, honako honetan oinarriturik:


Hiri eta herri bakoitzak elkar erlazionaturiko sistema osatzen du, ingurunean hainbat presio mota (lurraldearen erabilerak, baliabideen kontsumoa, hondakinak, etab.) eragiten duten indarrek (ekonomiako sektoreak eta biztanleak) bat egiten duten inguru zehatz batean, eta egoera bat (hiri guneeetako-landa guneeetako ingurunearen errealitatea) eta zenbait eragin (ingurumenarekin eta gizartearekin erlazionaturikoak) sortuz. Horiei erantzuteko, sektoreen, makroekonomiaren, sektoreen... arabera antolaturiko politikak erabiltzen dira ⁴.

I. koadroan aipaturiko ereduak zehazten da:

³ DPSIR: Driving forces-Pressure-State-Impact-Response

⁴ Europako Ingurumen Agentzia – AEMA -

I. KOADROA: EUROPAKO INGURUMEN AGENTZIAREN DPSIR EREDUA.



Europako eredia Euskadiko udalerrien errealitatera aplikatzetik eta horiek elkarren artean erlazionaturiko sistema gisa ulertzetik ateratzen den ondorio nagusia honako gauza hauen beharra da:

- Udalerrri bakoitzeko ingurumenaren egoera ezagutu beharra, inguru fisikoaren eta giza medioaren arteko loturak aztertuz. Ingurumenean, Gizartean eta Ekonomian dauden eraginak eta presioak ezagutzea.
- Ezarritako udal politikak aztertzea, bai prebentziora bideratuak eta baita zuzenketara bideratuak ere.
- Tokiko agenteekin eta herritarrekin bat etorritik, udalerriaren etorkizuna definitzea, bilatzen diren Helburuei, aurrera eraman beharreko Jarduketa Lerro Estrategikoei eta proposatzen den Ekintza Planari edo jarduketa multzoari dago-kienean.

Laburbilduz, Tokiko Agenda 21 Euskadiko udalerrietan ezartzeko eta garatzeko lan egin beharra.

Hiri eta landa gunetako sistemak, I. koadroan definitu den bezala, denboran zehar iraun dezaten, jasangarri izan dadin, azpimarratu egin behar da beharrezkoa dela Ingurumeneko Jasangarritasuna edo Ingurumen iraunkorra, Ekonomiako Jasangarritasuna edo Ekonomia Jasangarriak eta Gizarteko Jasangarritasuna edo Gizarte Justizia integratzea.


Aalborg-eko Gutunean edo Jasangarritasunera doazen Europako Hirien eta Herrien Gutunean esaten den bezala:

Gizarte justizia, ekonomia jasangarriak eta ingurumen iraunkorra lortzen saiatzen gara. Gizarte justizia lortzeko ezinbestekoak dira ekonomiako Jasangarritasuna, eta zuzentasuna, eta, haiek, aldi berean, Ingurumeneko Jasangarritasuna behar dute.⁵

2.1.1. Ingurumeneko Jasangarritasuna

Jasangarritasun hitza Ekologiatik* hartuta dago. Ekologiak modu eksklusiboan Ingurumeneko Jasangarritasuna aztertzen du, eta Ingurumeneko funtzioek denboran zehar iraun dezaten, jarraipena izan dezaten beharra gisa definitzen dute.

⁵ 1994, Aalborg-eko Gutuna edo Jasangarritasunera doazen Europako Hirien eta Herrien Gutuna



2.1.2. Ekonomiako Jasangarritasuna

Gaur egungo eredu ekonomikoa Planetak eskaintzen dituen baliabide naturalen jabetzan eta ustiapenean oinarritzen da, haiek toki batean edo bestean egotea kontuan izan gabe. Eredu hori eutsiezin bilakatzen da, naturaren kapitala amaitu egin baitaiteke.

Aalborg-eko Gutunean esaten den bezala,

Guk, udalerriok, ulertzen dugu gure garapen ekonomikoa murrizten duen faktorea gure kapital naturala bilakatu dela, airea, lurra,

ura eta basoak, besteak beste.

Ulertzen dugu gaur egun daukagun hiriko bizitzeko moduak, eta batez ere lanaren eta funtzioen banaketarako egiturek, luraren okupazioak, garraioak, industriako ekoizpenak, nekazaritzak, kontsumoak eta aisialdiko jarduerak, eta, ondorioz, gure bizi-mailak, gizadiak aurrean dituen ingurumeneko eta gizarteko arazo askoren arduradun bilakatzen gaituztela.

Ekonomiako Jasangarritasunera eboluzionatu ahal izateko, beharrezkoa da honako alderdi hauen erlazioan lan egitea:

- Naturako kapitala* babestea, haren kontserbazioan eta hazkundean inbertsioak egitea, planetak berritzatzeko duen ahalmena ez gainditzeko.
- Ekonomiako agenteek eta biztanleriak orokorrean inguruan egiten duten presioa murriztea. Udalerrri edo lurralde bakoitzaren aztarna ekologikoa* murriztea.
- Munduko biztanleriaren %20ren bizi-mailari buruz gogoeta egitea.
- Produktuen eta zerbitzuen azken etekina handiagotzea.
- Kanpoko gauzak* barneratzea. Gertatzen diren kostu guztiak kuantifikatzea eta barneratzea, ingurumenean gertatzen direnak barne.
- Tokiko gaitasun ekonomikoen garapena sustatzea, baliabideen erabilera jasangarriarekin bateragarri bilakatuz.

2.1.3. Gizarteko Jasangarritasuna

Gizarteko Jasangarritasuna kontzeptua, belaunaldi barruko eta belaunaldi arteko zuzentasuna bermatzeko beharrezkin erlazonaturik dago. Hau da, gaur egun pertsona guztiek dituzten oinarrizko beharrak asetzearekin, eta, era berean, etorkizuneko belaunaldiek beraien beharrak asetu ahal izatea bermatu beharrezkin.

Gaur egun Gizarteko Jasangarritasun ezak milioika pertsonarengan du eragina. Belaunaldi barruko desberdintasuna gune geografiko bateko gizarte, ekonomia eta ingurumen egoeraren azterketa kuantitatiboan eta kualitatiboan eta biztanlerian duen eraginean islatzen da. Desberdintasun hori bai iparraldeko herrialdeetan eta baita hegoaldekoetan ere ikusten da, eta handiagoa da iparraldea eta hegoaldea alderatuko dituen azterketa egiten baldin bada.

Belaunaldi arteko zuzentasunari dagokionean, une honetan ezin daiteke bermatu, ez iparraldeko biztanleentzat ezta hegoaldeko biztanleentzat ere.

Aalborg-eko Gutunean esaten den bezala,

Aberastasunaren banaketa ez zuzena jokaera eutsiezinaren zergatia da, eta aldaketa zaildu egiten du.

Ondorengo grafikoan, udalerriari dagokion Ingurumeneko, Ekonomiako eta Gizarteko Jasangarritasuna modu integratuan aztertzeko beharra islatzen da, Tokiko Jasangarritasunerantz abiatzeko.



2.2. Jasangarritasunik ez globala

Gaur egungo garapenaren jasangarritasun eza erakusten duten seinaleak nabarmenak dira. Gaur egun, ingurumen eta gizarte mailako arazo globalak, jarduera ekonomiko intentsiboaren eta berdintasunik gabearen ondorio dira. Intentsiboa, zeren baliabide naturalak modu desegokian hartu eta ustiatzen baitira, eta berdintasunik gabea, ustiapen hori ez delako zuzen banatzen.

Horren inguruan, Brundtland Txostenak* esaten du garaturiko herrialdeek, mundu osoko biztanleriaren %26 baino ez badute ere, energiaren, altzairuaren, beste metalen eta paperaren %80 kontsumitzen dutela, eta, gutxi gorabehera, janarien %40.⁶

Europar Batasuneko Ingurumen alorreko Ekintzako Bosgarren Programak* ere esaten du zerbait gai honen inguruan, eta, baliabide naturalen banaketa zuzenagoaren bitartez planeta osoan biztanleriaren bizi-kalitatea igotzea helburu izango duten politikak eta programak lortzeko beharra azpimarratzen du. Europar Batasunak badaki, beste herrialde industrializatu batzuetako biztanleekin batera, herritar europarrek mundu osoko baliabide naturalen proportzio handiegia kontsumitzen dutela.

Europar Batasunean jaiotzen den haurrak, bere bizitza osoan, Hegoaldeko edozein herrialdetan jaiotzen den haurrak baino hogeitaz bider baliabide natural gehiago kontsumituko ditu.⁷

Asko dira iritzi publikoa ingurumeneko, ekonomiako eta gizarteko arazoei buruz sentsibilizatzen laguntzen duten erakundeak, espezialduriko txostenen eta Nazioarte mailako Konferentzien bitartez. Europako Ingurumen Agentzia -AEMA-, Garapenerako Nazio Batuen Programa -PNUD-, Ingurumenerako Nazio Batuen Programa-PNUMA-, Worldwatch Institute izenekoa, Ingurumenari eta Garapen Jasangarriari buruzko Mundu mailako Batzordea, Giza Asentamenduetarako Nazio Batuetako Batzordea...

Eragin eta ondorio gehien izan dituzten agiriak eta konferentziak honako koadro honetan zehazten dira:

⁶ Brundtland Txostena, 1987

⁷ Ingurumen alorreko Ekintzako Bosgarren Programa, 1992-2000

II. koadroa Ondorio gehien izan duten gertaera historikoak.

1972: Estokolmoko Gailurra

Ingurumenarekin erlazionaturiko arazo globala adierazten den Mundu Mailako lehenbiziko Konferentzia.

1972: Erromako Taldearen txostena "Hazkundearen mugak"

Txosten honetan, lehen aldiz esaten da muga fisikoak daudela kontrolik gabeko hazkunde ekonomikoaren aurrean.

1987: "Gure etorkizun komuna" edo "Brundtland Txostena", Ingurumenari eta Garapenari buruzko Mundu Mailako Batzordearen Txostena.

Garapen Jasangarria esamoldea kontzeptualizatu egiten da: gaur egungo belaunaldien beharrak etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan jarri gabe asetuko dituen garapena.

1992: Europar Batasuneko Ingurumen alorreko Ekintzako V Programa "Garapen Jasangarrirantz"

Ingurumenari buruzko politikak Europar Batasuneko gainerako politika ekonomikoen eta sozialen barruan sartzea du helburu.

1992: Rio de Janeiron buruturiko Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia (UNCD) edo "Lurraren Gailurra"

Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rio-ko Aldarrikapena, Agenda 21, Bioaniztasunari eta Klimari buruzko hitzarmenak eta basoei buruzko printzipioen aldarrikapena berretsi ziren.

1995: «Emakumea, Garapena eta Bakea» Konferentzia, Beijingen.

Ingurumenaren nariadurak garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeen eta, ondorioz, haurren, ongizatea eta garapenean duen eragin berezia azpimarratzen du.

1997: Lurraren Gailurra+5

Agenda 21en aplikazioa aztertu eta ebaluatu zuen aparteko Konferentzia. 1992an Rion buruturiko Gailurrean ezarritako helburuen betetze maila aztertu zen.

Jasangarritasunik ez Globala gaur egungo errealitatearen azterketan hautematen da, ingurumenarekin, gizartearekin eta ekonomiarekin erlazionaturiko arazoen bitartez.

2.2.1. Ingurumeneko arazo globalak

Planetaren karga ahalmenaren* gainditzeari buruzko alarma seinaleak argi eta garbi daude: negutegi efektua sortzen duten gasak, klimaren aldaketa, ozono geruzako zuloa, bioaniztasunaren galera, estres hidrikoa, lurraren degradazioa, hondakinak... ingurumenarekin erlazionaturiko arazo globalak dira, eta 70eko hamarkadatik horren inguruan lan egiten aritu arren, 2000. urteko emaitzak oraindik ere ezkorak dira.

Europako Ingurumen Agentziak -AEMA- duela denbora gutxi emandako txosten batean, *"Ingurumena Europar Batasunean XXI. mendearen ateetan"* izenekoan, zera esaten da:

"Ingurumenarekin erlazionaturiko arazo nagusien presioen eta eraginen azterketak ikusirik, esan daiteke, ozono geruza hondatzen duten gaien murrizketaz gain, beste presio batzuen murrizketan eman diren aurrerapausoak oso urriak direla. ... Ondorioz, ingurumenaren egoera Europan, oraindik ere nahiko larria da."⁸

2.2.2. Ekonomiako arazo globalak

Arazo ekonomiko globalak berdintasunik gabeko aberastasunaren banaketan, herrialdeen gehiegizko menpekotasun ekonomikoan eta planetaren osasun egoeran islatzen dira.

Asko dira horren inguruan ardura eskatu dutenak:

- Ingurumenari buruzko Europako Agentziaren zuzendaria den Domingo Jiménez Beltránen esanetan,
- Lester Brown-ek, ikerlari ospetsuak eta Worldwatch Institutetako zuzendariak zera dio:

"Hazkunde ekonomikoa kontrolaezina da, eta batez ere, pertsonekin, mugigaitasunarekin eta espazioarekin erlazionaturik dauden garraioa, turismoa eta lurraldearen antolamendua"⁹

"Gaur egungo mundua inoiz baino beroagoa, jendetsuagoa, ekonomiaren aldetik aberatsagoa eta ingurumenaren aldetik pobregoa da. 1998. urtea hazkunde ekonomiko handiena ezagutu zutenetako bat izan zen, baina ingurumenarekin erlazionaturiko tentsio seinale berriak eta larriak ere erakutsi zituen"¹⁰

⁸ AEMAren Txostena, 2000

⁹ "Hacia un desarrollo económico y medioambiental sostenible", Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, 2000. "El medio ambiente en la Unión Europea en el umbral del siglo XXI" artikulua

¹⁰ Worldwatch Institutetaren Txostena "1998-1999 Bizi-zeinuak"

2.2.3. Gizarteko arazo globalak

Ingurumenarekin erlazionaturiko arazoek eta gaur egungo garapen ereduak berdintasun ezak sortzen dituzte gizartean, nazioarte eta toki mailan. Gizarte justizia, janari segurtasuna, hirietako asentamenduen bideragarritasuna, hezkuntza, osasuna, giza eskubideak... oinarritzko beharrak dira, baina munduko biztanleen portzentaje handiak ez ditu beterik oinarritzko behar horiek.

Garapenerako Nazio Batuen Programak -PNUD-, 1999. urterako egin duen Txostenak "Giza aurpegiko Globalizazioa" izena darama, eta bertan Nazioen Giza Garapen maila* aztertzen da. Maila horretan, pertsona guztiek oinarritzko zerbitzuetara iristeko dituzten aukerak eta biztanleek beraien beharrak beterik dituzten maila baloratzen dira.

Orokorrean, lortutako emaitza eta ondorio batzuk honako hauek dira:

- 1.000 milioi pertsona inguruk ezin dituzte beren oinarritzko beharrak asetu.
- 840 milioi pertsona inguru behar bezala elikatu gabe daude, eta horietatik 160 milioi haurrak dira.
- 2.600 milioi pertsonak baino gehiagok ez dute oinarritzko osasun zerbitzurik jasotzen.
- 250 milioi haur inguru lanean ari da.
- Herrialde aberatsen arteko %20k mundu osoko BPG-ren %86 dute, tarteko herrialdeen %60k BPG-ren %13, eta herrialde pobreenen %20k %1.

Gaur egungo gizarteko arazo globalak baieztatzen dituzten eta berehalako plangintza eta ekin beharra justifikatzen duten zifra ikaragarriak dira.

2.3. Tokiko Jasangarritasuna

Agenda 21 toki mailan modu praktikoan aplikatzeak Tokiko Agenda 21 osatzen du. Ingurumenari, ekonomiari eta gizarteari buruzko arazo globalei erantzuna eman behararren aurrean eta maila globalean aurrera eramandako politikek ez dituztenez espero izandako emaitzak eman, Tokiko Agenda 21 sortu da, toki kudeaketarako tresna gisa. Tokiko arazoak konpontzen saiatuko den tresna da, planeta osoan hobekuntza eraginez. "Mundua gogoan, jardun auzoan" esamoldean oinarritzen da.

Agenda 21en 28. artikuluan esaten den bezala, subsidiaritate printzipioa* aplikatuz,

“Agenda 21ean lantzen diren arazo eta konponbide asko tokiko jardurekin erlazionatzen direnez, toki bakoitzeko agintarien parte-hartzea eta laguntza oso faktore garrantzitsuak izango dira Agendaren helburuak lortzeko orduan.

Toki bakoitzeko agintariak azpiegitura ekonomikoaren, sozialaren eta ekologikoaren sorreraz, funtzionamenduaz eta mantentzeaz arduratzen dira, plangintza prozesuak gainbegiratzen dituzte, tokiko politika eta arautegi ekologikoak ezartzen dituzte eta nazio eta azpinazio mailako ingurumenari buruzko politikak burutzen laguntzen dute. Herritarrengandik gertuen dauden agintariak direnez, oso lan garrantzitsua betetzen dute herritarren hezkuntzan eta mobilizazioan, garapen jasangarria lortzeko bidean. Seguru gaude planeta honetan bizitza ezin izango dela jasangarria izan toki mailako komunitate bideragarririk gabe”¹¹

Tokiko Agenda 21 tresna bat da, Tokiko Agintariak, Tokiko Jasangarritasunaren aldeko kudeaketa eta politikak aurrera eramanez ahal izan ditzaten.

2.3.1. Tokiko Jasangarritasunerako irizpideak

Hiri eta herri bakoitzak sistema orekatu gisa funtziona dezan eta denboran zehar iraun dezan, haren kudeaketan Jasangarritasunerako Irizpideak* aplikatu behar dira. Jasangarritasunerako Irizpideek udal mailako jardura jasangarriaren jarraibideak markatzen dituzte. Erreferentziako printzipioak dira, eta edozein gizarte jasangarri lortu behar duen eszenatokia ezartzen dute.

Euskadiko hiri eta herri bakoitza Toki mailako Sistema Integratu gisa ulertzen dugunez, Jasangarritasuneko Irizpideak, Alor Tematikoei, hau da, ingurumenari, ekonomiari eta gizarteari buruzko alderdiei buruzkoak dira. Haien arteko loturak udal bakoitzaren errealitatea osatzen du.

¹¹Agenda 21eko 28. atala (Rio de Janeiron ospaturiko Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia)

Jasangarritasun Irizpideak

1. Baliabide naturalen erabilera egokia: baliabide jarraien erabilera handitzea, baliabide berriztagarrien berriztze-erritmoa ez gaingitzea eta, pixkanaka-pixkanaka, baliabide ez berriztagarriak baztertzen joatea.
2. Karga ahalmena eta inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gaingitzea, kutsadura maila eta hondakin kopurua murriztea eta hondakin horien kudeaketa egokia bermatzea.
3. Bioaniztasuna baloratzea eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera jasangarria: hiriko espazioa ezin da hazi lurzoruaren degradazioa eraginez, lurzoru baliabide amaikorra baita.
5. Pertsona guztien mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea, eta era berean ingurumena errespetatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea: ahal den guztietan, tokiko beharrak tokiko baliabideekin bete beharko dira.
7. Soldata duina izango duen lana pertsona guztientzat.
8. Oinarrizko zerbitzuak pertsona guztientzat, arrazoizko prezioarekin.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkundera, pobrezia eta mota guztietako bazterketa eta bereizkeria (sexua, adina, jatorri etnikoa, ezintasuna, etab.) saihestuz eta desberdintasun sozioekonomikoak murriztuz.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea pertsona guztientzat, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien beharrak errespetatuz.
11. Gizarte inplikazioa Tokiko Jasangarritasun prozesuan eta informazioa lortzeko bidea bermatua. Pertsonak guztiek, beraien bizimoduetan zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko eskubidea eta aukera izan behar dute.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoen aurrean: Jasangarritasun Orokorra. Garapen jasangarria ezin daiteke lortu lurreko beste toki eta herri batzuegan izan dezakeen eragina ahaztuz. Horrez gain, ezin daitezke ahaztu, etorkizuneko belaunaldiak beraien beharrei erantzuteko eta giro osasuntsuaz eta anitzaz gozatzeko izan behar lituzketen aukerak ere.

Jasangarritasun Irizpideei esker, agintariek, ekonomiako eta gizarteko agenteek eta herritarrek, orokorrean, ingurumen, ekonomia, gizarte eta udal alorretan jokaera jasangarriagorako jarraibideei jarraitzeko baliabideak ezagutu eta, hala bada, aplikatu ahal izango dituzte.

Udal kudeaketan Jasangarritasun Irizpidek kontuan izanez gero, udalerria ondoren adierazten den bezala ezaugarritu ahal izango da:

Udalerri jasangarri baten lorpenak eta erronkak

- Pertsona guztien integrazioa eta berdintasuna sustatzen du.
- Gizakiaren garapena inguruaren errespetura egokitzen du.
- Hirigintzaren aldetik ongi diseinaturik dago.
- Herritarren eta sistema naturalen arteko erlazioa sustatzen du.
- Udalerriaren eta Lurreko gainerakoaren errealitate integralarekin bat datozen bizitzeko jarrerak eta estiloak sustatzen ditu.
- Pertsona guztiei mugigaitasuna eta zerbitzuetara iristea bermatzen die.
- Tokiko ekonomia dibertsifikatua bultzatzen du.
- Baliabideak modu arrazionalen erabiltzea sustatzen du.
- Udal kudeaketa egokia burutzen du.
- Herritarren parte hartzea sustatzen du udalerriari buruzko erabakiak hartzeko orduan...



**Nola
ezarri**

Tokiko

Agenda 21?

3. Nola ezarri Tokiko Agenda 21?

Gidaliburu honen helburuetako bat Euskadiko udalerriei, Tokiko Agenda 21 ezartzeko eta garatzeko metodologia erraza eta homogeneoa eskaintzea da. Hau da, udaleko politikak eta jarduerak Tokiko Jasangarritasunera egokitzen direla bermatzen duen tresna bat ematea.

Horretarako, ondoren, Tokiko Agenda 21 ezarteko prozesu metodologikoa zehatz-mehatz aztertzen da. Honako galdera hauei erantzun nahi zaie:

- **Zer da Tokiko Agenda 21?**
- **Zein abantaila ditu udalerri batentzat Tokiko Agenda 21 garatzeak?**
- **Noraino heltzen da Tokiko Agenda 21?**
- **Nola eraman aurrera Tokiko Agenda 21en ezarketa eta garapena udalerri batean?**

3.1. Tokiko Agenda 21: kontzeptua

Tokiko Agenda 21, udalerrian, ingurumen, ekonomia eta gizarte mailan aurrera eramaten diren politikak jasangarritasun irizpideekin integratzean oinarritzen den eta udalerriko ordezkari politikoen, udaleko teknikarien, agente parte hartzaileen eta herritarren partaideztatik eta erabakiak hartzetik sortzen den Udal mailako Egiturazko Plana da.

Euskadiko udalerrien neurriak duen baldintza kontuan izanik, ondoren Tokiko Agenda 21en esparrua zehazten da, eta baita haren ezarketan eta garapenean Lurraldeko Toki Erakundeek* betetzen duten tokia eta baita Tokiko Agenda 21en ezaugarri nagusiak ere.

3.1.1. Tokiko Agenda 21en esparrua

Hasiera batean, subsidiaritatearen abiapuntuan oinarrituz eta hiriko ingurumenaren arazo bereziak kontuan izanik, Tokiko Agenda 21, hiri handietan aurrera eraman beharreko prozesu gisa sortzen da. Hala ere, Tokiko Agenda 21en esparruak irizpide hori gainditu egin du, eta gaur egun, tokiko komunitate guztiek, haien neurria bata edo bestea izanik ere, beraien kudeaketan eta politiketan Tokiko Jasangarritasuna sartzea du helburu.

Horrela, Euskadin, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak agintaldi honetarako markaturiko helburuen artean, ahalik eta udalerri gehienek,

eta, ondorioz, ahalik eta biztanle gehienek, udal kudeaketan Garapen Jasangarriaren* filosofia beregana dezaten dago.

Helburu horren aurrean, Euskadiko udalerrietako errealitateak erakusten duenez, 176 udalerrik 4.000 biztanletik behera dituzte¹². Hori dela eta, eta finantziazioarekin, teknikarekin... egon daitezkeen arazoak ikusirik, Lurralde mailako beste Tokiko Erakunde batzuk oso lan garrantzitsua egin dezakete Tokiko Agenda 21 Euskadiko udalerrietan garatzeko. Erakunde horien artean daude udalerrien Mankomunitateak eta Lurralde Historikoa.

3.1.1.1 Mankomunitatearen edo Koadrilaren eginkizuna Tokiko Agenda 21ean

Tokiko Agenda 21 Euskadiko udalerrietan ezartzeko eta garatzeko prozesuan, Mankomunitateak edo Koadrilak¹³ oso lan garrantzitsua egin dezake, udal mailako eskumenak eta zerbitzuak bere gain dituen Lurraldeko Tokiko Erakundea den heinean: hiriko hondakin solidoen kudeaketa eta bilketa, ur hornidura eta saneamendua, gizarte ongizatea, turismoaren sustapena, hirigintza zerbitzua... besteak beste.

Mankomunitateak edo Koadrilak prozesu honetan bi funtzio izan ditzake:

- Tokiko Agenda 21 **sustatzea**, berau osatzen duten udalerrietan.
- Tokiko Agenda 21 Mankomunitatekoak edo Koadrilakoak diren udalerrietan ezartzen **laguntzea**.

• **Erakunde sustatzailea:**

Mankomunitatea edo Koadrila, berau osatzen duten udalerrietan Tokiko Agenda 21 sustatuko duen Erakundea izan daiteke. Hala ere, Mankomunitateak edo Koadrilak ezin izango du inoiz udalerri bakoitzak bere Tokiko Agenda 21en ezarketan eta garapenean betetzen duen lana bete, baina oso lan garrantzitsua egin ahal izango du, prozesua sustatuz eta motibatuz.

Mankomunitatea edo Koadrila, udalerriek, beraien eskumeneko lan eta zerbitzu jakin batzuk elkarren artean egiteko biltzeko duten eskubidearen ondorioz sortzen dira¹⁴. Mankomunitatearen zerbitzu horietako bat, berau osatzen duten udalerrietan Tokiko Agenda 21 sustatzea eta indartzea izan daiteke.

Mankomunitatea edo Koadrila osatzen duten udalerrientzat honako abantaila hauek izan

¹² EUSTAT, Euskadiko biztanleriari buruzko estatistikak, 1997

¹³ Koadrila: Arabako Lurralde Historikoan udalerrien mankomunitateari ematen zaion izena.

¹⁴ 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituenak.

ditzakeen zerbitzua izan daiteke:

- Udalerrri guztien aldetik, *estrategia komun* bat ezartzea, Tokiko Agenda 21en prozesua udalerrri bakoitzean ezartzeko jarraitu beharreko metodologiari dagokionean.
- *Tokiko Ekintzarako Plana* osatzen duten eta zerbitzu komunei dagozkien zenbait *Proposamen sinplifikatzea*, udalerrientzat komunak izango direlako, eta Mankomunitateak edo Koadrilak burutu ahal izango dituelako.
- *Sentsibilizazioa eta motibazioa*, Mankomunitateko edo Koadrilako teknikarien aldetik, udalerrietako teknikariengana edo prozesuari ekiteko jarrera urriagoa duten udalerrietako teknikariengana. *Arraste efektua*.

Azpimarratu egin behar da Mankomunitatea edo Koadrila baldin bada eskualdean Tokiko Agenda 21 sustatzen duena lagungarri dela berau osatzen duten udalerrri guztientzat, baina, batez ere, udalerrri txikientzat, aipaturiko abantailen eragin zuzenagoa eta handiagoa jasotzen baitute.

• **Erakunde laguntzailea**

Beste alde batetik, Mankomunitatea edo Koadrila lagungarri izan daitezke, Tokiko Agenda 21 ezartzen duten udalerrietako Erakunde laguntzaile gisa. Hau da, Mankomunitateak edo Koadrilak ez du sustapen lana egiten; bigarren mailan dagoen lana egiten du, Tokiko Agenda 21en eragina duen beste Lurralde mailako Toki Erakunde bat izango balitz bezala, udal mailako eskumenak Udalaren esku baitaude.

Kasu honetan Mankomunitatearen edo Koadrilaren funtzioak honako hauek izango dira:

- Erakundeak, mankomunitatearen zerbitzuei dagokienean, udalerriri buruzko datuak eta informazioa eskainiko du.
- *Parte hartze Foroan**, Udalerriko diagnostiko integralaren burutzapenean eta Udalerriaren Tokiko Ekintza Planaren zehaztapenean eta eztabaidan laguntzaile izango den Erakundea, mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuen kudeaketan parte hartzen duen agente gisa.
- Tokiko Ekintza Planean zehazten diren eta mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuekin erlazionaturik dauden *Jarduera Programak* aurrera eramaten dituen* Erakundea.
- Jarduera Programak burutu ondoren *jarraipena, kontrola eta ebaluazioa* jasoko dituen erakundea.

Baina Mankomunitateak edo Koadrilak inoiz ez du beteko lehenengo tokia Tokiko Agenda

21en ezarketan eta garapenean; haren prozesuaren eragina jasotzen duen erakundea baino ez da izango.

3.1.1.2 Foru Aldundiaren eginkizuna Tokiko Agenda 21ean

Foru Aldundiak oso lan garrantzitsua egin dezake, Tokiko Jasangarritasuna bultzatzen, sustatzen, promozionatzen duen eta haren alde lan egiten duen Lurralde mailako Toki Erakunde gisa, bere antolakuntzan, Lurralde Historikoan eta Autonomia Erkidegoan. Helburuaren arabera, bereizitako estrategiak burutuko ditu:

- *Barne estrategia.* Bere Tokiko Agenda 21 ezartzea eta garatzea, barne lane-rako politikak eta metodologia integratzeko helburuarekin.
- *Lurralde estrategia.* Tokiko Agenda 21 sustatzeko programa diseinatzea eta burutzea Lurralde Historikoko udalerrietan. Udalerriei teknikaren, finantziazio-aren, giza baliabideen... arloetako laguntza ematea oinarri duen programa.
- *Parte hartzea estrategia global koordinatuaren diseinuan eta burutzapenean* Autonomia Erkidegoarentzat eta Lurralde Historikoentzat.

3.1.2. Tokiko Agenda 21en ezaugarriak

3.1.2.1 Udalaren egitasmoa

Tokiko Agenda 21 udalerriaren eta udalerriarentzako egitasmoa da. Udala, organo kudeatzaile den heinean, udal eta herritar mailako estrategia sustatzeko arduraduna izango da, Tokiko Ekintza Planaren zehaztapena eta garapen praktikoa lortu ahal izateko.

Tokiko Agenda 21ek, alde batetik, ingurumenarekin, ekonomiarekin eta gizartearekin erlazioaturiko kudeaketa hobetzea du helburu, udalerriaren Diagnostiko integralean* lortu-tako aholkuak aplikatuz. Beste alde batetik, guztientzat (ordezkari politikoentzat, udaleko teknikarientzat, parte hartzen duten agenteentzat eta herritarrentzat orokorrean) egokiena izango den udalerriaren etorkizuneko eredu zehaztu nahi du. Hori lortu ahal izateko, Tokiko Ekintza Plana edo Udaleko Egitura Plana osatzen duten Jarduera Programak zehaztu, ezarri eta martxan jarri behar dira.

3.1.2.2 Herritarren egitasmoa

Tokiko Agenda 21 udal proiektua da, baina balio erantsia du, udalerriko agente ekonomikoen eta sozialen eta herritarren parte-hartzea eragiten baitu.

Balio erantsia honako alderdi hauetan islatzen da:

- Herritarren iritzia sartuko da udalaren diagnosia egiteko orduan, udalerriaren ikuspegi berria eta desberdina lortzeko: bertako biztanleena, gizartean duten rolaen arabera (enpresa, familia, elkarteak, adituak, komunikabideak, teknikariak, politikariak...).
- Herritarren parte-hartzea etorkizuneko udalerriaren zehaztapenean. Alde batetik, gogoeta, prestakuntza eta sentsibilizazio esfortzu pertsonala eskatzen du, eta bestetik, etorkizuneko ekintzarako ardurak edo konpromisoak hartu beharra.
- Motibazioa Jarduera Proposamen zehaztetan eta lorturiko emaitzen ondorengo jarraipenean eta kontrolean.

Lisboako Ekintza Planean, Hiri Jasangarriei buruzko Europako Bigarren Konferentzian*, esaten den bezala,

Komunitateko sektore guztiekin kontsultak egingo ditugu eta lanean arituko gara, elkarlanaren bitartez sinergiak lortzeko.

3.1.2.3 Tokiko Ekintza Plana

Tokiko Ekintza Plana, Linea Estrategiko bakoitzean, garatu beharreko Jarduera Programa orokorrak eta burutu beharreko Jarduera zehatzak biltzen dituen agiria da. Tokiko Ekintza Planak udalerrian egin beharreko lana planifikatu egiten du, etorkizuneko estrategiaren arabera.

Errealitatean, Tokiko Ekintza Plana agiriri Tokiko Agenda 21 esaten zaio, udalerriak, denborarekin, bere buruari markatzen dion Agendaren identifikazio gisa. Horrez gain, Tokiko Jasangarritasunaren aldeko lana laburbiltzen eta bateratzen duen agiria ere bada.

3.1.2.4 Prozesu irekia eta sortzailea

Tokiko Agenda 21 ezartzeko eta garatzeko prozesua irekia eta sortzailea da. Metodologia analogo samarra badago ere, "ezinbestean" bete behar diren zenbait faserekin, udalerri bakoitzak, udal errealitatearen arabera, herritarren parte hartze mailaren eta beharren, eta teknika, eragiketa eta finantziazio aldeko baliabideen arabera, bere estrategia zehazten du.

Udalerri bateko Tokiko Agenda 21 burutzeko prozesuan honako pauso hauek beharrezkoak dira:

- Errealitatea ezagutzea eta ebaluatzea, Tokiko Sistema Integratu gisa.
- Udalerriaren etorkizuna zehaztea, Jarduerarako Helburu eta Linea Estrategikoen arabera.
- Denboran zehar ezarri behar diren Ekintzak integratuko dituen Egiturazko Plana burutzea.
- Prozesu osoan herritarren parte-hartzea sartzen joatea.
- Tokiko Agenda 21 en garapena ebaluatzea.

Aurreko eskakizunetan oinarrituz, prozesua zenbat eta sortzaileagoa eta irudimentsua izan, jarduera proposamenei, herritarrek parte hartzeko Foroaren dinamizazioan..., orduan eta balio erantsi gehiago emango dio udalerriari.

Azterturiko alderdiak, hau da, udalaren egitasmoa, herritarren egitasmoa, Tokiko Ekintza Plana eta prozesu irekia eta sortzailea, Tokiko Agenda 21 en ezaugarriak dira, eta honako hau dute helburu:

«Udalerriko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea, alderdi hauek bilduz:

Inguruaren biziraupena eta harenganako errespetua (Ingurumeneko Jasangarritasuna)

Zuzentasunaren edo Gizarte justiziaren beharra (Jasangarritasun soziala)

Oreka ekonomikoa (Jasangarritasun ekonomikoa)»

3.2. Onurak udalerriarentzat

Tokiko Agenda 21 garatzen duten udalerrien onurak honako hauetan sailka daitezke:

- **Elkar erantzukizuna.**
- **Estrategikoak.**
- **Eraginkorrak.**
- **Gizarte lorpenak.**
- **Udalerriaren irudia.**

Elkar erantzukizuna:

Udalerriak, Udaleko Osoko Bilkuraren bitartez, udal mailako garapen orekatuaren eta integratuaren beharra bereganatzen du, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien mesederako.

Aalborg-eko Gutunari atxikiz, udalerriak bere elkar erantzukizuna onartzen du, eta modu formalean, Tokiko Jasangarritasunaren eta, ondorioz, Jasangarritasun Orokorren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du.

Estrategikoak:

Etorkizunerako ikuspegia garatzeko aukera eskaintzen du, Tokiko Jasangarritasun Irizpideei balio erantsia ematen dien Tokiko Ekintza Planaren ezarketaren bitartez. Balio erantsi hori bizi-kalitatearen hobekuntzan, Europa mailako finantziazio bideetara lehentasunez sartzeko aukeran, nazioarte mailako ospean eta onarpenean... islatzen da.

Eraginkorrak:

Udal politikak Plan integratu batean –Tokiko Ekintza Planean– sartzeak, udal kudeaketari helburu eta estrategia komunak ematea dakar. Tokiko Ekintza Plana egiteko orduan herritarren parte-hartzea izateak dinamizitate handiagoa ematen du haren burutzapenean.

Gizarte lorpenak:

Tokiko agintariei, udaleko teknikariei, parte hartzen duten agente ekonomikoei eta sozialei eta herritarrei, orokorrean, protagonismoa eskaintzeko aukera ematen du. Herritarrei informazioa eskuratzeak, berriz, parte-hartzea eta gizarte mailako eztabaida sustatzea esan nahi du; horrela, udaleko kudeaketa aberasten da.

Udalerriaren irudia:

Udalerriari irudi egokia eskaintzen dio, zeren adierazten baitu udalaren kudeaketak jasangarritasun irizpideetara egokitzeko ahalegina egiten duela, hiri eta landa ereduaren osaketan, zerbitzuen horniduran, lurraren kudeaketan, garraio publikoaren sustapenean... hau da, inguruarekin orekan aritzeko helburu garbiak bilatuz, Tokiko ekonomia jasangarria eta herritarren

bizi-kalitatea sustatuz, egiten dela lan.

Horrela, Europar Batasuna, udalerri horiek egiten duten esfortzua bultzatzeko eta eskertzeko, lehentasunezko finantziario bideak garatu ditu, Tokiko Agenda 21ean integraturik egongo diren Jarduera Programak martxan jartzen laguntzeko.

3.3. Tokiko Agenda 21en esparrua

Tokiko Agenda 21en esparrua irekia da. Udalerri bakoitzak, espezializaturiko teknikarien, aurrekontu aldeko baliabideen, motibazio eta gidaritza politiko mailaren... arabera, Tokiko Agenda 21, eta baita azterketa, ebaluazioa eta jarduera jasoko duten ingurumen, ekonomia eta gizarte mailako alderdiak ezartzeko erritmoa zehaztuko du. Aalborg-eko Gutunean esaten den bezala:

“Hiri guztiak desberdinak direnez, jasangarritasunera eramango gaituzten geure bideak aurkitu behar ditugu.”

Hala ere, eta Europako Hiri Jasangarrien Hirugarren Konferentziako^{*15} ondorio nagusiak hartuz, gomendagarria da udalerria oso-osorik, hau da, Tokiko Sistema Integratuaren ikuspegitik, aztertzea.

Hori dela eta, udalerriaren Tokiko Jasangarritasunerako prozesuaren esparrua ez da ingurumenarekin erlazionaturiko alderdien azterketara mugatuko, horrek zaildu egingo bailuke ondoren egin beharreko udal mailako politikan eta kudeaketan eta herritarren erabakiak hartzeko prozesuan integratzea.

3.3.1. Gaikako alorrak eta erlazionaturiko aldagaiak

Udalerria Tokiko Sistema Integratu gisa hartzeak, Tokiko Jasangarritasunean eragina duten Gaikako Alorretan edo udal mailako ingurumenarekin, ekonomiarekin eta gizartearekin

erlazionaturik dauden alderdietan mugatzeko aukera ematen digu. Proposatzen diren eta Tokiko Agenda 21en esparru osoa osatzen duten Gaikako Alorrak (GA) honako hauek dira:

- | | |
|--|---|
| GA1. Ingurumeneko Alor Nagusiak . | GA4. Tokiko Ekonomia. |
| GA2. Inguru Naturala: Bioaniztasuna*. | GA5. Oinarrizko zerbitzuak. |
| GA3. Lurraldearen Erabilerak. | GA6. Gizarte-integrazioa eta Bizi-kalitatea. |
| | GA7. Jasangarritasun Orokorra. |

Planteaturiko eskemaren barruan ez da udal kudeaketa sartzen, zeren hori zehar lerroetan aztertuko baita proposaturiko Gaikako Alor guztietan.

Gaikako Alor bakoitza, era berean, erlazionaturiko aldagaietan banatzen da, informazioaren tratamendua errazagoa izan dadin eta prozesuak espezifikitate gehiago izan dezan:

Gaikako Alorra	Erlazionaturiko Aldagaia
GA1. Ingurumeneko Alor Nagusiak	• Uraren zikloa • Hondakinak • Atmosfera- eta hots-kutsadura • Energia • Garraioa eta mugigaitasuna
GA2. Inguru Naturala: Bioaniztasuna*	• Inguru naturalak • Espezieen aniztasuna • Paisaia • Ingurumeneko arriskua
GA3. Lurraldearen erabilerak	• Lurraren erabilerak • Tokiko Hirigintza Sistema: hirigintza planteamendua eta udal kudeaketa
GA4. Tokiko Ekonomia	• Tokiko ekonomia eta udal kudeaketa • Enplegua eta laneko istripu maila
GA5. Oinarrizko zerbitzuak	• Etxebizitza • Osasuna • Hezkuntza • Kultur nortasuna eta Ondasuna
GA6. Gizarte-integrazioa eta Bizi-kalitatea	• Gizarte Ongizatea • Bizi-kalitatea • Segurtasuna eta elkarbizitza • Herritarren parte-hartzea
GA7. Jasangarritasun Orokorra	• Aztarna ekologikoa* • Elkarlana eta sentsibilizazioa


¹⁵ Hannover-eko Konferentzia, 2000ko otsaila.

Tokiko Agenda 21 en esparru osoa, jokaera jasangarria lortzeko jarraibideak ezartzen dituzten Jasangarritasun Irizpideek zehazten dute. Ondoren bien arteko erlazioa islatzen da:

III. Koadroa

JASANGARRITASUN IRIZPIDEA

GAIKAKO ALORRA



Tokiko Agenda 21en esparrua, udalerriko Tokiko Sistema Integratua osatzen duten Gaikako Alorrek eta erlazionaturiko aldagaiak bezala ulerturik, ez da aldatzen udalerriaren neurriaren arabera. Hau da, Tokiko Agenda 21en esparrua antzekoa da hiri-udalerrientzat edo landa-udalerrientzat.

Hala ere, udalerrian aztertu beharreko ingurumeneko, gizarteko eta ekonomiako alderdiak –esparrua– berberak badira ere, udal sisteman duten garrantzi maila edo sailkapena aldatzen da. Ikuspegi teknikitik, hiriko eta landa inguruetakoko Tokiko Agenda 21en arteko bereizketa nagusia da.

Adibide bat jartzeko, Bilboko eta Aguraingo hiri konfigurazioaren barruan, udalerri barruko mugigaitasunak ez du garrantzi maila bera. Bilbon garrantzi gehieneko Gaikako Alorretako bat izango da, sortzen dituen arazoak direla eta: atmosferaren kutsadura, hots-kutsadura, irisgarritasun zaila, errepide sareak espazioa hartzen du, eragina herritarrengan... Agurainen ere aztertu egingo da, baina udalerriko Tokiko Sistema Integratuaren barruan, sortzen dituen arazoak askoz ere txikiagoak dira.

Hori dela eta, ezinbestekoa da, antzeko metodologian oinarrituta bada ere, udalerri bakoitzak sortzaile izatea eta bere errealitateara egokitzeak ahalmena izatea.

3.4. Prozesu metodologikoaren eskema


IV. grafikoan zera ikusten da: udalerrietan Tokiko Agenda 21 ezartzeko eta garatzeko jarraitu beharreko prozesu metodologikoaren eskema. Aipatu bezala, Tokiko Agenda 21 prozesu irekia eta sortzailea da, eta udalerri eta Udal bakoitzak bere errealitatea eta baldintzak kontuan hartuta definituko du, baina ondoren azalduko ditugun ezaugarriak izan beharko ditu beti.

Lehendabizi motibazio eta prestakuntza teknikoko faseak burutu behar dira; bestalde, Udalak Jasangarritasuna udal kudeaketan sartzeko konpromisoa berretsi behar du. Horren ondoren, Tokiko Agenda 21en prozesuari ekingo zaio. Bost fase metodologiko hauek ditu:

- I. fasea: Prozesua planifikatzea
- II. fasea: Ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen diagnostikoa
- III. fasea: Tokiko Ekintza Plana
- IV. fasea: Tokiko Ekintza Planaren exekuzioa

- V. fasea: Kontrola eta Jarraipena

Grafikoan aztertuko den bezala, Tokiko Agenda 21 bi azpiprozesuren loturan dago oinarrituta; azpiprozesu horiek batera gertatzen dira, eta euren arteko erlazioak herritarren eta udalaren proiektu gisa eratzen du Agenda. Azpiprozesuak herritarrek parte hartzeko Plana eta Tokiko Agenda 21 lantzeko prozesu teknikoa dira.



3.5. Tokiko Agenda 21 ezartzeko eta garatzeko prozesuaren metodologia

Tokiko Agenda 21 ezartzeko eta garatzeko prozesua honela laburbil dezakegu: udalerriaren errealitatea (Toki Sistema Osatua den neurrian) ezagutzeko pausoak ezartzeko beharra. Hau da, udalerriaren arazoak eta aukerak, ahultasunak eta gaitasunak, aurkitu eta hierarkizatu. Zertarako? Ekintza prozesua definitu ahal izateko, errealitate hori eta helburuen eta estrategien finkapena kontuan hartuta.

Jarraian, definituriko fase metodologiko bakoitza aztertuko dugu. Alderdi hauek jorratu ditugu fase bakoitzean:

- Helburu espezifikoak.
- Ezarritako helburuak betetzeko zein ekintza burutu behar diren.
- Beste ekintza osagarri batzuk.
- Parte hartzen duten agenteak.
- Emaitzak.

3.5.1. Aurretiko fasea: Motibazioa

Faserik garrantzitsuenak da. Izan ere, gainerako helburuak eta aldiak udaleko motibazio eta gidaritza mailaren arabera baitira. Tokiko Agenda 21eko esperientziarik arrakastatsuenak alkateek proiektuaren gidaritza euren esku hartu dutenean gertatu dira. Kasu horietan, gidaritza hartzeaz gain, alkateek honako konpromisoa ere hartu dute: udaleko kudeaketako joera aldatzeko konpromisoa, Tokiko Jasangarritasunaren aldeko udalerriaren onerako.

Tokiko Agenda 21 arrisku handiko apustua da. Toki Gobernuak erabaki zailak hartu behar izaten ditu, eta herritarrak ez badaude sentsibilizatuta eta ez badute Jasangarritasunari buruzko informaziorik, ez zaizkie aipatutako erabakiak gustatuko eta kritikatu egingo dituzte, hasieran behintzat. Hori dela-eta, gobernu taldeak eta ahal den neurrian Udalbatzak ere, oso motibatuta egon behar dute eta agendaren ezarpena eta garapena helburu politiko eta estrategikotzat hartu behar dituzte, Tokiko Agenda 21 arrakastatsua izan dadin denboran zehar.

AURRETIKO FASEA: MOTIBAZIOA

Helburuak


- Udalerrriaren garapena Jasangarritasun irizpideei egokitzeko beharra politikoki onartzea.
- Ordezkarri politikoek eta udal teknikariek Tokiko Agenda 21en eduki teknikoa eta ondorioak ezagutzea.
- Udaleko Jasangarritasunaren alde lan egiteko konpromisoa berrestea.
- Prozesuaren funtzioak, pertsonak eta kargu politiko liderrak ezartzea.

Ekintzak

- Udalaz gaindiko erakundeetara joatea (Mankomunitate, Koadrila, Aldundia edo Eusko Jaurlaritzara), euren helburuak eta Udaleko Tokiko Agenda 21i laguntzeko estrategia ezagutzeko.
- Ordezkarri politikoak eta udal teknikariak Udal Jasangarritasunaren inguruan prestatzeko laguntza tekniko espezializatua.
- Gaiaren inguruan sentsibilizatzea eta ezagutza espezializatu gehiago izatea. Horretarako, Tokiko Agenda 21 aurkeztu behar da Udal Batzorde eta Udalbatzaren aurrean, eztabaida bultzatzeko eta erabakiak adostasunez hartzeko.
- Aalborg-eko Gutuna sinatzea. Horrela, udalak bere konpromisoa berresten du: udal kudeaketan Toki Jasangarritasuna sartzeko lan egitea eta Europako hiri eta herri jasangarrien mugimendura atxikitzea.
- Tokiko Agenda 21en liderrak eta arduradunak onartzea, bai politikoki, baita teknikoki ere. Ardurak finkatzea.

Ekintza osagarriak


- Komunikazio kanpaina bati ekitea, udalerriko herritarrei informazioa emateko. Udalak hartutako konpromisoari buruzko informazioa emango zaie, eta baita Tokiko Agenda 21en ezaugarri nagusiei buruzko informazioa ere. Herritarren parte-hartzea zein garrantzitsua den azpimarratuko da.
- Tokiko Agenda 21 lantzen ari diren beste udalerrri batzuetara joan eta esperientzien berri elkarri ematea. Komenigarria da beste udalerrri horien egoera gure udalerrriaren egoeraren antzekoa izatea.



3.5.2. I. fasea: Prozesua planifikatzea

Udalean Tokiko Agenda 21 ezartzen eta garatzen hasteko, planifikazioa egin behar da lehendabizi.

I. FASEA: PLANIFIKAZIOA



I. FASEA: PLANIFIKAZIOA

Ekintzak

- Zuzendaritza Batzordea osatuko duten pertsonak aukeratzea. Orena izango litzateke ordezkari politikoek eta udal teknikariek osatzea. Zuzendaritza Batzordea udaleko barne organo gisa eratuko da, eta Tokiko Agenda 21 behar bezala ezartzeko ardura izango du. Beraz, funtzio osoak izango ditu, eta bizkorra eta eraginkorra izango da. Ez da komeni Batzordeak lagun gehiegi izatea.
- Tokiko Agenda 21 udalean ezartzeko prozesu espezifiko diseinatu beharko dute Zuzendaritza Batzordeak eta laguntzaile teknikoeak. Alderdi hauek definituko dituzte: noraino irits daitekeen, prozesuaren egutegia, aldi nagusiak, aldi bakoitzean parte hartuko duten agenteak eta horien lanak, zenbateko aurrekontua behar den...
- Tokiko Agenda 21 proiektuaren Aurkezpen Jardunaldia antolatzea. Herritar guztientzat izango da Jardunaldia.

Ekintza osagarriak

- Agente ekonomiko eta sozialekin bilerak antolatzea, gai hauek argitzeko: Tokiko Agenda 21en udaleko prozesua, proiektua noraino irits daitekeen eta zein den euren zeregina, agenteak diren neurrian. Iradokizunak eta gomendioak planifikazioan sartzea.
- Udaleko Tokiko Agenda 21 adieraziko duen logotipoa diseinatzea eta baita horrekin batera joango den ikurritz adierazgarria ere.

Parte hartzen duten agenteak

- Udaleko Gobernu batzordea eta lider karismatikoa: alkatea.
- Zuzendaritza Batzordea (ordezkari politikoak eta udal teknikariak).
- Laguntza teknikoa.
- Komunikabideak.
- Udaleko agente ekonomiko eta sozialak.

Emaita nagusiak

- Lanen zuzendaritzaz arduratuko den pertsona taldea eratzea: Zuzendaritza Batzordea.
- Planifikazio dokumentua. Bertan honakoa ezartzen da: udalean prozesua behar bezala ezarri eta garatzeko egin beharreko lana.
- Noraino iritsiko den proiektua: zein Gaikako Eremu eta loturiko aldagai aztertuko diren eta zeintzuen inguruan burutuko diren ekin-tzak.
- Tokiko Agenda 21 en irudia: logotipoa eta ikurritz adierazgarria.
- Herritarrek eta parte hartzen duten taldeek lehenengo harremana izango dute proiektuarekin.

3.5.3. II. fasea: Ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen diagnostikoa

Fase honetan landa lanari ekingo zaio, hots, udalerrriaren errealitatea (Toki Sistema Osatua den neurrian) ezagutzeko eta ebaluatzeko landa lanari. Ebaluazioa jorratu beharreko Gaikako Eremuen eta loturiko aldagaien arabera egin beharko da.

Udaleko ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen diagnostikoa egiteko, bi azpifase-tan banatu da diseinaturiko metodologia:

- II.I. azpifasea. Informazioa. Udalerrria ezagutzea.
- II.II. azpifasea. Diagnosia eta ebaluazioa.

Horrez gain, herritarrek parte hartzeko planari ekingo zaio. Prozesu horretan herritarrei informazioa emango zaie, baina, hori baino zerbait gehiago izango da plana, herritarrek prozesuan parte hartzea baita helburua.

II. FASEA: INGURUMEN, EKONOMIA ETA GIZARTE DIAGNOSTIKOA


II.1. AZPIFASEA: INFORMAZIOA - UDALA EZAGUTZEA

Helburuak

- Planifikazio Dokumentuan definitutako Gaikako Eremuen inguruan, ahalik eta udaleko informazio gehien biltzea. Hau da, udala eratzen duen Toki Sistema Osatuari edukia ematen dion informazioa biltzea.
- Udalerria azaletik ezagutzea, bertan bizi direnen eta bai esparru publikoan eta baita pribatuan ere burutzen dituzten jardueren bidez. Herritarrek parte hartzeko planari ekitea.

Ekintza teknikoak

- Definitutako Gaikako Eremuen inguruan bildu beharreko informazio guztia izango duen dokumentu-eskema egitea. Udalerriko ingurumen, gizarte eta ekonomia esparrua eratzeko erabiliko da, eta baita udal politika eta kudeaketa eratzeko ere.
- Informazio iturriak bilatzea, behar den informazioaren izae-raren arabera. Ondorengo hauek izan daitezke: Udal Zerbitzuetako teknikariak; beste Administrazio batzuk, adibidez, Mankomunitatea, Koadrila, Aldundia edo Eusko Jaurlaritza; beste Erakunde Publiko batzuk, hala nola, EUSTAT, IHOBE, EEE, EMAKUNDE, Konfederazio Hidrografikoa, INEM...; enpresa pribatuak, Merkataritza Ganberak, Elkartek...
Hona hemen beste informazio iturri batzuk: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, Arau Subsidiarioak, Lurralde Plan Partzialak, Lurralde Antolamenduaren Arauak, udalari buruzko azterlan espezifikoak...
- Landa lana egitea: aurretik hitzartutako elkarrizketa pertsonalak, txostenak eta azterlanak irakurtzea... Hitz batez, udalari buruzko informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa lortzea: zenbaki informazioa, alfanumerikoa, grafikoa, kartografikoa, fotografikoa...
- Bildutako informazioaren kalitatea aztertzea eta errealtitateari egokitzen zaion egiaztatzea.
- Bildutako informazioa osatu eta tratatzea eta udalerriko datuen bankua sortzea. Datuen bankuak erabilgarria eta eguneratzeko modukoa izan behar du.



II. FASEA: INGURUMEN, EKONOMIA ETA GIZARTE DIAGNOSTIKOA

II.II. AZPIFASEA: DIAGNOSIA ETA EBALUAZIOA

Helburuak

- Udalerriko egoera aztertzea eta aurrediagnostiko teknika egitea.
- Herritarrek parte hartzeko foroa eratzea eta dinamizatzea.
- Udalerriari buruzko herritarren diagnostikoa lortzea, herritarrek parte hartzeko foroaren bidez.
- Udalerriari buruzko azken diagnostikoa eta ebaluazioa egitea. Udalerriko arazoak hauteman eta lehentasuna ematea horiei; udalerriko aukerak ere hauteman eta lehentasuna ematea.
- Udalerriko Jasangarritasun Adierazleak definitu, aukeratu eta kuantifikatzea, jarraipena eta kontrola egiteko tresna gisa.

Ekintza teknikoak eta herritarren parte-hartzearen ingurukoak

Aurrediagnostiko teknika

- Aurrediagnostikoa teknikoki egitea: udalerriaren egoera aztertzea Gaikako Eremu bakoitzean, aurreko fasean bildutako informazioa erabiliz. Udalerriko arazoak eta aukerak zeintzuk diren aurkitzea.
- Udalerriko Jasangarritasun Adierazleak Gaikako Eremu bakoitzeko definitzea. Jasangarritasun Adierazleen bidez hauxe ebaluatzen da: udalerriaren portaera zein neurritan den jasangarria. Tresna horrek, beraz, udal kudeaketa errazten du.
- Behar den dokumentazio guztia sortzea.
- Definitutako aurrediagnostikoa eta Jasangarritasun Adierazleak Zuzendaritza Batzordeak berriro aztertzea.

Herritarren diagnostikoa - Foroa

- Foroaren antolakuntza arauak ezartzea. Udaleko herritarren parte-hartzearen Araudia berrikustea.
- Foroaren bilerak malgutasunez eta aurretik planifikatzea: egutegia, gaiak, lan taldeak, bilera lekua...
- Foroan parte hartzeko udalerriko agente ekonomiko eta sozial egokienak aukeratzea, Zuzendaritza Batzordearekin lankidetzan.
- Proposamena aukeratutako pertsona, erakunde, instituzio, elkarre, enpresa ordezkari eta abarrei jakinaraztea.
- Jendeari informazioa ematea eta parte hartzeko dei egitea.

- Foroan parte hartuko dutenei eman beharreko dokumentazioa eta bileratan erabili beharreko dinamizazio teknikak prestatzea.
- Herritarrek parte hartzeko Foroaren bilerak:
 - Aurrediagnostiko teknikoaren ondorioak eta Jasangarritasun Adierazleen proposamena aurkeztea; herritarrek udalerriko informazioa eskuratu ahal izatea bermatu behar da.
 - Gaikako lan taldeak antolatzea. Komenigarria litzateke taldeak txikiak izatea eta, eraketari dagokionez, nahiko desberdinak, hots, diziplinanitzak.
 - Lan taldeen eztabaida. Ondorioak eta gomendioak prestatzea.
 - Lan taldeen ondorioak herritarrek parte hartzeko Foroan aurkeztea. Udalerriko diagnostikoa egiterakoan eta Jasangarritasun Adierazlerik egokienak aukeratzekoan herritarrek egindako ekarpenen inguruko ondorioak.
- "Udalerriko errealitatearen inguruko herritarren diagnostikoa" izeneko Txostena egitea.
- "Udalerriko Jasangarritasun Adierazleen proposamena. Aukeraturutako adierazleak" izeneko Txostena egitea.
- Foroan lortutako ondorioak diagnostiko teknikoan sartzea.

Ebaluazioa eta azken diagnostikoa

- Udalerriko egoera ebaluatzea, aurrediagnostiko teknikotik eta herritarren diagnostikotik abiatuta.
- "Udalerriko azken diagnostikoa" izeneko Txostena egitea. Txostenaren edukiak udalerriaren ebaluazioa ikuspuntu jasangarritik islatuko du. Toki Sistema Osatua erlazio bidez ebaluatuko da, eta une horretako udal ereduak, gomendio generikoak, defizit espezifikoak eta lehentasunak lortuko dira.
- "Udalerriko azken diagnostikoa" Txosteneko ondorioak osatzeko, Jasangarritasun Adierazleak kuantifikatuko dira, udalerriaren erralitatea eta joerak datu sinpleen bidez ezagutzeko.

II. FASEA: INGURUMEN, EKONOMIA ETA GIZARTE DIAGNOSTIKOA

II.II. AZPIFASEA: DIAGNOSIA ETA EBALUAZIOA

Ekintza osagarriak

- Udalerriko Jasangarritasun Adierazleen emaitzak herritarrek parte hartzeko Foroari aurkeztea (bere ahalegin eta lana eskertuz) eta baita komunikabideei ere. Azken diagnostikoaren ondorio nagusiak ere aurkeztuko zaizkie.
- Jasangarritasun Adierazleen proposamen bateratuan lan egingen ari diren Europako udalerrien taldean sartzea. Hiri ingurumeneko aditu taldeen programa: "Tokiko Jasangarritasunerantz: Europako adierazle amankomunak".
- Udalerriko Jasangarritasun Adierazleen eta EAEko gainerako udalerrietako adierazleen arteko azterketa konparatiboa.

Parte hartzen duten agenteak

- Zuzendaritza Batzordea.
- Laguntza Teknikoa.
- Herritarrek parte hartzeko Foroa: parte hartzen duten agente ekonomiko eta sozialak eta jendea oro har.
- Bertako komunikabideak.
- Europako Batasuneko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.

Emaitzak

- Udalerriaren aurrediagnostiko teknika.
- "Udalerriko Jasangarritasun Adierazleen proposamena" izeneko Txostena.
- "Udalerriko errealtatearen inguruko herritarren diagnostikoa" izeneko Txostena.
- "Udalerriko Jasangarritasun Adierazleen proposamena. Aukeraturako adierazleak" izeneko Txostena.
- "Udalerriko azken diagnostikoa" izeneko Txostena.
- "Udalerriko Jasangarritasun Adierazleak. Emaitzak" izeneko Txostena.

3.5.4. III. fasea: Tokiko Ekintza Plana

Tokiko Ekintza Plana epe labur, ertain eta luzerako definitutako Udal Ekintzako Programa da. Udalerriak Tokiko Jasangarritasunera jotzea da horren helburua. Hau da, lehendabizi azken diagnostikoaren emaitzak ezagutu behar dira: ahultasunak, aukerak eta gaitasunak. Gero, udal ekintza planifikatu behar da, definituriko helburu eta Lerro Estrategiko batzuen arabera eta baita lehentasunezko irizpideen arabera ere.

Tokiko Ekintza Planeko edukiaren definizioak bi fase hauek ditu:

- III.I. azpifasea. Helburuen eta Ekintza Lerro Estrategikoen definizioa*.
- III.II. azpifasea. Tokiko Ekintza Planeko edukiaren definizioa: Ekintzen Programa generikoa eta Lehentasunezko ekintzak.

III. FASEA: TOKIKO EKINTZA PLANA

III.I. AZPIFASEA: HELBURUAK ETA EKINTZA LERRO ESTRATEGIKOAK

Helburuak

- Etorkizunean izan nahi den udalerrri jasangarriaren eredua definitzea, Diagnostikoan lortutako egungo ereduko informazioaren bidez. Etorkizuneko udalerrriko helburu jasangarriak finkatzea.
- Jarraitu beharreko Ekintza Lerro Estrategikoak definitzea, finkatutako helburuak kontuan izanik.
- Helburuen eta Ekintza Lerro Estrategikoen definizioa herritarren parte-hartzearen bidez finkatzea.

Ekintza teknikoak eta herritarren parte-hartzearen ingurukoak

- Txosten Tekniko bat egitea, udalerrriko etorkizunerako helburu generikoen proposamenarekin. Txostena azken diagnostikoaren emaitzen arabera idatziko da. Halaber, planteatutako helburuak lortzeko zein Ekintza Lerro Estrategikori jarraitu behar zaion proposatuko dute laguntzaile teknikoek.
- Txosten Teknikoa Zuzendaritza Batzordeari emango zaio, batera aztertu eta eztabadaitzeko.

III. FASEA: TOKIKO EKINTZA PLANA

III.I. AZPIFASEA: HELBURUAK ETA EKINTZA LERRO ESTRATEGIKOAK

Ekintza teknikoak eta herritarren parte-hartzearen ingurukoak

- Eztabaida politikoa eta Foroaren eztabaida, planteatutako helburuen egokitasunaren inguruan. Helburuen eta Ekintza Lerro Estrategikoen proposamen adostua lortzea.

Parte hartzen duten agenteak

- Zuzendaritza Batzordea.
- Laguntza Teknikoa.
- Udaleko Gobernu Taldea eta Udalbatza.
- Herritarrek parte hartzeko Foroa.

Emaitzak

- Adostutako erabakia: "Helburuak eta Ekintza Lerro Estrategiko generikoak".

III. FASEA: TOKIKO EKINTZA PLANA

III.II. AZPIFASEA. TOKIKO EKINTZA PLANA – EKINTZEN PROGRAMA

Helburuak

- Tokiko Ekintza Plana egitea. Udalerrian epe labur, ertain eta luzerako egin beharreko Ekintza Programaren dokumentu biltzaile osoa izango da Plana.
- Udalerrian ezarri beharreko Ekintza Programak aukeratu eta sakon definitzea.
- Epe laburrerako lehentasunezko exekuzio ekintzak hierarkizatzea.
- Tokiko Ekintza Plana herritarrek parte hartzeko Foroarekin adostea.

Ekintza teknikoak eta herritarren parte-hartzearen ingurukoak


- Ekintza Programak Lerro Estrategikoen arabera definituko dira. Zuzendaritza Batzordeak Laguntza Teknikoarekin batera definituko ditu, programatutako lan bileretan. Fase honetan, Ekintza Programak azaletik baino ez dira proposatuko. Hasierako hurbilketa besterik ez da.
- Eztabaida politikoa eta herritarren eztabaida (herritarrek parte hartzeko Foroa) proposatutako Ekintza Programaren inguruan. Beste iradokizun, ekarpen eta konpromiso batzuk bilduko dira.
- Aukeratutako Ekintza Programa bakoitzaren kasuan fitxa bat egingo da. Alderdi hauek jasoko dituzte fitxek: izena, deskribapena, helburuak kuantifikatuta, erreferentziazko araudia, exekuzio epea, egutegia, lehentasun maila, parte hartzen duten erakundeak eta konpromiso maila, arduren banaketa, finantziario iturri posibleak, adierazle espezifikoak eta ekintzaren justifikazioa, udalerriko jasangarritasunaren alde zenbateraino egiten duen kontuan hartuta.
- "Tokiko Ekintza Plana-Tokiko Agenda 21" izeneko Dokumentua idaztea eta Udalbatzak dokumentu horri behin-behineko onespina ematea.
- Epe bat zabalduko da udalerriko biztanleek alegazioak aurkeztu ahal izateko. Zuzenketen Ebazpena egitea eta horiexek Tokiko Ekintza Plana-Tokiko Agenda 21 dokumentura sartzea.
- Tokiko Ekintza Plana-Tokiko Agenda 21 dokumentua behin betiko onartzea.
- "Tokiko Agenda 21en Deklarazioa"* Tokiko Ekintza Plana-Tokiko Agenda 21en laburpen Dokumentu gisa egitea. Bertan zera zehazten da: Udal Gobernuak Tokiko Jasangarritasunarekin hartutako konpromisoa. Nola? Helburu zehatzak lortzeko lehentasuneko Ekintzak ezarriz.
- Udalbatzak "Deklarazioa" onartu beharko du.
- Udalerriko biztanleei "Tokiko Agenda 21en Deklarazioa" aurkeztuko zaie. Horrela, udaleko konpromisoa eta berehala aritzeko beharra jakinaraziko dira.

Ekintza osagarriak

- Alegazioak egiteko epean, Tokiko Ekintza Plana-Tokiko Agenda 21 Dokumentua behar bezala zabaldu behar da, jendearen parte-hartzea bultzatzeko.
- Antzeko arazoak dituzten beste udalerrietan garatutako Ekintza Proposamenak aztertu behar dira, arrakasta maila eta desbideratzeak ezagutzeko.

III. FASEA: TOKIKO EKINTZA PLANA

III.II. AZPIFASEA: TOKIKO EKINTZA PLANA – EKINTZEN PROGRAMA



3.5.5. IV. fasea. Exekuzioa

Udalerrian epe laburrean ezarri beharreko lehenetsuneko ekintzak definitu ostean, exekutatatu egin behar dira. Jarraitu beharreko metodologia azalduko dugu orain.

IV. FASEA: EXEKUZIOA

Helburuak

- Lehentasunezko Ekintzak ezartzea.
- Exekuzioaren berri ematea bai herritarrek parte hartzeko Foroari, bai jendeari oro har. Hau da, parte-hartzea bultzatzea Tokiko Ekintza Plana inplementatzeko.

Ekintzak

- Aurreikusitako Ekintzen ezartze erritmoa lehentasun mailaren arabera finkatzea.
- Exekuzio arduradunek banaka planifikatuko dituzte ekintzak. Parte hartzen duten agenteek udal kudeaketan zer egin behar duten eta zein funtzio bete behar dituzten aztertu behar da.
- Finantziazio iturriak (dirulaguntzak, lankidetzak proiektuak...) bilatzea, Ekintzaren eguneratutako kostuaren arabera.
- Ekintzaren exekuzioan inplikaturako Erakundeek bete beharreko funtzioak koordinatu behar dira; bestalde, ardurak banatu behar dira, finkatutako konpromisoak kontuan hartuta.
- Udalerriko biztanleen zereginak identifikatu eta zeregin horiei loturiko komunikazio plana diseinatu behar da.
- Ekintza eta diseinatutako komunikazio plana exekutatu behar dira.
- Exekuzio arduradunak, Zuzendaritza Batzordeak eta Laguntza Teknikoak ezarpenaren jarraipen eta ebaluazio etengabea egin behar dute. Gerta daitezkeen desbideraketak zuzendu egin behar dira planifikazioa kontuan izanik.
- Herritarrek parte hartzeko Foroak Ekintzaren garapena ebaluatzea. Hobetzeko proposamenak biltzea.

Parte hartzen duten agenteak

- Exekuzio arduraduna.
- Zuzendaritza Batzordea.
- Laguntza Teknikoa.
- Exekuzioan inplikaturako erakundeak.
- Finantziazio Erakundeak.
- Herritarrek parte hartzeko Foroak.
- Jendea oro har.
- Bertako komunikabideak.

IV. FASEA: EXEKUZIOA

Lortutako emaitzak

- Aurreikusitako onurak edo hobekuntzak, lehentasunezko ekintzak burutuz gero.
- Tokiko Ekintza Plana-Tokiko Agenda 21en exekuzio partziala.
- Jendearen parte-hartzea exekuzioan.
- Parte hartzen duten Erakundeen eta tokiko agenteen arteko koordinazioa.

3.5.6. V. fasea. Tokiko Ekintza Planaren Jarraipena eta Kontrola

Lehendabizi, Tokiko Ekintza Plana osatzen duten lehentasunezko Ekintzen Programak ezarri eta exekutatu egin behar dira. Ondoren, ezinbestekoa da jarraipena eta kontrola egitea, Plana aurkitutako arazoentzat egokia den edo ez jakiteko, hau da, Ekintzen Programen ezarpenaren arrakasta maila ebaluatzeko.


Oso fase garrantzitsua da. Izan ere, Tokiko Ekintza Plana-Tokiko Agenda 21en garapena hobetzen laguntzen baitu.

Honako metodologia honi jarraitu behar zaio:

V. FASEA: JARRAIPENA ETA KONTROLA

Helburuak

- Tokiko Ekintza Planaren lehentasunezko Ekintzen Programen ezarpenaren arrakasta maila ebaluatzea. Hau da, alderdi hauek aurkitzea:
 - Zein joera duen udalerriak Tokiko Jasangarritasunari dagokionez.
 - Udal kudeaketan izandako hobekuntzak.
 - Udal Gobernu, Teknikari eta Udalbatzaren konpromiso maila.
 - Ondorengoaren parte-hartzearen maila: agente sozio-ekonomiko, herritar, beste Administrazio batzuk, Erakunde, komunikabide eta abarrena.



V. FASEA: JARRAIPENA ETA KONTROLA

Emitzak

- Udalerrian ezarritako Ekintzen egokitasunaren inguruko Txostenebaluazioa.
- Udal kudeaketan egindako aldaketei buruzko sintesi txostena, bai hobekuntzei buruzkoa, baita hutsegitei buruzkoa ere.
- Prozesuan zehar herritarrek izandako parte-hartze mailaren inguruko laburpen txostena, hautemandako joerak, gaitasunak...

3.5.7. Tokiko Agenda 21en jarraitasuna

Tokiko Agenda 21 ez da V. fasean (*Jarraipena eta Kontrola*) bukatzen. Atzeraelikadura gertatzen da prozesu honetan. Beraz, IV. fasetik (*Tokiko Ekintza Planaren Exekuzioa*) eta V. fasetik (*Jarraipena eta Kontrola*) lortutako ondorioak aztertu eta gero, bi aukera hauek gerta daitezke:

- *Emitza positiboak*: ezarritako Ekintza Programak egokiak izan direla adierazten dute. Ondoren, Tokiko Ekintza Plana berriro aztertu behar da, zein Ekintza Programa exekutatu behar diren eta noiz ekin behar zaien zehazteko (lehentasun mailaren arabera).
- *Emitza negatiboak*: ezarritako Ekintza Programak ez direla egokiak izan adierazten dute. Emitza horien arrazoiak aztertu behar dira: hutsegiteak udalerriaren diagnostikoa egiterakoan, akatsak Ekintza Programa aukeratzekoan edo exekutatzerakoan... Desbideraketak aztertu eta zuzendu egin behar dira, eta jarraian, Tokiko Agenda 21en ezarpen eta garapen prozesua ere aztertu eta zuzendu behar da.

Tokiko Agenda 21 prozesu jarraia da eta epe luzean burutu behar da. Udalerri Jasangarriek lortu beharreko helburuak ez dira sinpleak, ezta berehalakoak ere. Izan ere, askotan, aldaketak eragiten baitira bizimoduan, kontsumo eremuan, udal kudeaketan... Eta aldaketa horiek ez dira epe laburrean gertatzen; aitzitik, bilakaera jarraia den ondorio izaten dira.

Tokiko Agenda 21en ezartze eta garapen prozesuak ez du zehaztu, finkatu edo ezarritako egutegirik. Aipatu bezala, Tokiko Agenda 21 prozesu irekia eta sortzailea da; udalerri bakoitzak bere planifikazio eta ekintza erritmoa finkatuko du, hainbat alderdi kontuan hartuta, hala nola, motibazio politikoa, aurrekontua, jendearen parte-hartzea, Ekintza Programen ezarpen arrakasta, herritarren ezagutza eta sentsibilizazio maila, udal kudeaketaren aldakortasuna, Udalez gaindiko Erakundearen laguntza...



Zein da

Tokiko

Agenda 21 en

aplikazio praktiko a ?

4. Adibide gisa: Tokiko Agenda 21en inguruan udalek egin ditzaketen 21 ekintza

Tokiko Agenda 21 prozesu praktikoa da, batez ere. Arestian esan bezala, udalerrietako Tokiko Jasangarritasunaren alde lan egitea du helburu eta, hori lortzeko, Tokiko Ekintza Planean udalek zehaztutako ekintza programez baliatuko da (metodologia eskemaren III. fasea).

Tokiko Agenda 21en izaera praktikoa Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietara eramateko asmoz, udalek euren udal kudeaketa jasangarrian egin ditzaketen 21 ekintza aurkezten dizkizuegu jarraian. 21 adibide dira. Ez dira zuzenean, itsu-itsuan eta berehala gauzatzeko. Aitzitik, udalerri bakoitzak erabaki eta zehaztu beharko ditu aurrera eraman nahi dituen ekintza programak, aurrez ezarritako Estrategia Helburu eta Ildoetan eta Udal Diagnostikoan oinarrituz.

Tokiko Agenda 21 ezarri eta garatu izan den hainbat prozesu eta esperientzia aztertu eta teknikari adituek egindako lanaren ondoren sortutako 21 ekintza proposamen dira.

Ekintza guztiak ondorengo eskema honi jarraituz aurkezten dizkizuegu:



- Ekintzarekin lortu nahi diren **Helburuak**.



- Ekintzarekin zerikusia duten **Jasangarritasun irizpideak**. Bestalde, irizpide horiek lortu nahi dira ekintzekin ere.



- Edukiaren **Deskribapena**.



- Ekintza ezartzerakoan eta garatzerakoan **Parte hartzen duten agenteak**.



- Ekintza gauzatzeko sor daitezkeen **Zailtasunak**.



- Ekintzarekin zerikusia duten **Komunikazio jarduerak**, hots, herritarrei edo bestelakoei zuzendu beharrekoak.

21 ekintza

1. Udalerriko hiri lurzoruen trataeran Jasangarritasun irizpideak kontuan hartzea.
2. Hiriguneak birgaitzeko programa sortzea.
3. Udalerriko lurzoru urbanizaezinaren trataeran Jasangarritasun irizpideak kontuan hartzea.
4. Ingurumenari buruzko udal ordenantzak egitea.
5. Udalerriko Natur Ondarearen katalogoa egitea.
6. Udalerriko hiri inguruneke lurzoru berreskuratzea edo babestea korridore ekologikoak sortuz eta nekazaritza guneak mantenduz.
7. Eraikuntza eta eraiste lanetako hondakinen kudeaketa hobetzea.
8. Gaikako bilketako edukiontzien kudeaketa hobetzea.
9. Garbiguneen kudeaketa optimizatzea, produktuen balorazioa bermatuz.
10. Udal eraikin, instalazio eta zerbitzuetan energia eraginkortasunerako irizpideak ezartzea.
11. Uraren tarifa erabileren eta kontsumoaren arabera antolatzea.
12. Udal eraikin, instalazio eta zerbitzuetan ur kontsumoaren eraginkortasunerako irizpideak ezartzea.
13. Neurrizko zirkulazioko guneak eta "ingurumen guneak" eratzea udalerrian.
14. Oinezkoentzako guneak gehiagotzea eta bizikleta gehiago erabil dadin sustatzea, horretarako behar bezalako sarea sortuz.
15. Sustapen ekonomikoa ingurumena erasotzen ez duten jardueretarantz bideratzea.
16. Jarduera baimenak emateko prozesua kontrolatzeko eta segimendua egiteko bitartekoak eratzea udalerrian.
17. Udal merkatuen kudeaketa integrala sustatzea.
18. Sektore Batzordeen bidez herritarrek parte har dezaten sustatzea.
19. Udalerriko eragile ekonomikoekin lan talde bat sortu eta dinamizatzea.
20. Ingurumen heziketako kanpaina egitea udalerrian: Tokiko Agenda 21 ikastetxeetan.
21. Euskal udalerri jasangarrien arteko sarea eratzea.



4.1. 1. ekintza. Udalerriko hiri lurzoruaren trataeran Jasangarritasun irizpideak kontuan hartzea



Helburuak

- Lurzorua natur baliabide mugatua denez, herria honako bi alderdi hauek bateragarri eginez eraikitzea: batetik, hiri lurzoruaren beharra eta, bestetik, hiri hazkundeak ezinbestez mugak dituela jakitea.
- Herritarrei hiri hazkundearen muga horiek jakinaraztea, bai eta lurzoruari zein erabilerara eman erabakitzerakoan zentzudunak izateko beharra ikustaraztea ere.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea: lurzorua baliabide mugatua da
- Udalerraren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehienezko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Lurzorua modu jasangarrian erabiltzea
- Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
- Oinarritzko zerbitzuak eskuragarriak izatea: etxebizitza.
- Gizartea zuzenagoa izan dadin lortzea
- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.

- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Toki agintariek, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren eta Arau Subsidiarioen bidez, zein udalerrri eredu nahi duten zehazten dute: lurraldearen antolamendua, lurzoruaren erabilerak, natur baliabideek izango duten babes maila, mugigaitasun beharrak eta zerbitzuen eskuragarritasuna eta abar; alegia, udalerrri trinkoa ala barreiatua nahi duten. Horixe dugu, beraz, Tokiko Jasangarritasun maila zehazteko eta kontrolatzeko udalak duen tresnarik garrantzitsuenetako bat.

Udalerrri jasangarriek honako ezaugarri hauek izango dituzte, hiri lurzoruaren antolamenduari dagokionez:

- Ahal den neurrian, eta beti ere hazkunde demografikoaren arabera, herria hedatzeari utzi –etxebizitza berriak– eta jada egon badauden etxebizitzak (alde zaharretan, auzoetan eta baserrietan) eta hutsik daudenak¹⁶ kontserbatzeko eta birgaitzeko politikak sustatzea. Horrela, udal lurzorua babesteaz gain, herriko alde zaharreko edo hiriguneko gizarte ha-

¹⁶ "Instituto Nacional de Estadística" delakoak eta EUSTATEk ondorengo hiru talde hauetan sailkatzen dituzte udalerrrietako etxebizitzak: nagusiak, bigarren mailakoak eta hutsik daudenak.



rremana eta bizitasuna berreskuratu eta baserrietatik jasotako ohiturak gordeko ditugu, gainera.

- Lurzoruaren erabileren gehiegizko funtzionaltasunera jo beharrean (lurzoru industrial, etxebizitzetarako lurzorua, azpiegituretarakoa, merkataritzarakoa...) hiri mistoa eraikitzeke joera izatea (lurzoruari hainbat erabilera ematekoa, alegia). Izan ere, lurzorua erabilerari gehiegizko funtzionaltasuna emateak mugigaitasun beharra handiagotzea baitakar eta, beraz, udalerriaren ingurumen kalitatearentzat eragin kaltegarriak baititu: zirkulazioa handiagotzea (batez ere, ibilgailu pribatuen kopurua), atmosfera eta soinu kutsadura handiagotzea eta erregaien eskaera handiagotzea (natur baliabide ez berriztagarria).
- Laburbilduz, udalerri barreiatuen eredu alde batera utzi eta, euskal baserriak kontserbatzearekin bateragarri, udalerri trinkoa eredu izango duen plangintza sustatzea da kontua.

udalerriek honako alderdiak aztertu beharko dituzte:

- Etxebizitzen egungo eskaria eta eskaintza, batetik, eta etorkizuneko aurreikuspenak, bestetik, beti ere biztanle kopuruaren eta hazkunde demografikoaren arabera, "hiri fantasmarik" eraikitzea ekiditeko.
- Eraiki gabe hutsik dagoen hiri orube kopurua.
- Hutsik dagoen etxebizitza kopurua.
- Etxebizitza dentsitatea, azalera unitateko.
- Auzoetan erosketa ahalmen ezberdineko herritarrak bizitzearen beharra, ghettorik eta gune baztertzailek ez sortzeko.
- Hiri lurzoruan biztanleko zenbat berdegune dagoen batez beste.
- Auzokako deszentralizazio politiken bidez, herritar guztientzako moduko ekipamenduak eratzea.
- Herritarren arteko harremana eta bizikidetzak bultzatzeko moduko eta autoen kaltetan bada ere oinezkoak lasai eta seguru ibiltzeko moduko gune irekiak sustatzea hirigunean.

Hiri lurzorua tratanen Jasangarritasun irizpideak kontuan hartzea helburu izanik,



Parte hartzen duten agenteak

- Gaiarekin zerikusia duten Mankomunitateko zerbitzuak edo Udal zerbitzuak: Hirigintza, Ingurumena, Gizarte Ongizatea, Zirkulazioa eta abar. Izan ere, horrela, udalerria Tokiko Sistema Oso gisa landuko da.
- Udalbatza.
- Teknikari adituak.



Zailtasunak

Proposamen honek udalerri asko eta askotako orain arteko joera aldatzea dakar berekin, hots, herriaren hazkunde barreiaturako eta hiritzea sustatzeko joera alde batera uztea. Eta ondorioz, udalerri askotan alderdi politikoek eta herritarrek ez dituzte onartuko bertan proposatutako neurriak.

Hiri plangintzaren aldetik jasangarria izan nahi duen udalerriak ezin du garraiobide pribatuaren gehiegizko erabilera sustatu, ez eta herria modu barreiatuan haztea bultzatu ere, ingurua-
rentzat eta gizarte kohesioarentzat eragin kaltegarriak baitituzte bi-biek. Ez da ikuspegi berria, baina bai egungoaren bestelakoa, eta ez du onarpen handirik izaten, tamalez.

Ingurunea eta ondorengo belaunaldiak errespetatuz herritar guzti-guztien bizitza kalitatea hobetzea helburu duen udalerria lortzeko prozesua, alabaina, ez da berehalakoa. Aitzitik, epe luzerako prozesua da eta, beraz, Tokiko Agenda 21 en bidez hartu beharreko neurriak eztabaidaren, joera aldaketaren eta udalerriari buruzko ikuspegi aldaketaren ondorio izan-
go dira.

Komunikazioa

Udalerri jasangarrietarantzko bilakaera onuragarria izateko, ezinbestekoa da parte har-
tuko duten herritarrek eta toki agenteak prestatzea eta behar bezala informatzea. Horrela, udalerriko herritarrek parte hartzeko foroaren bidez honako ekintza hauek burutuko dira, besteak beste:

- Beste udalerri batzuetan hiri plangintza jasangarriaren alorrean izandako es-
perientzia arrakastatsuak aztertuko ditu, hala nola honakoak: Calviá (Palma),
Solingen (Alemania), Rennes (Frantzia)...
- Hiri plangintzari dagokionez, udalerri jasangarriek udalerri ez jasangarriekin
alderatuz zein alde on eta txar dituzten aztertu eta balioztatuko ditu. Horreta-
rako, komenigarria litzateke gai horretan aditua den norbaitek Foroan parte
hartzea.



4.2. 2. ekintza. Hiriguneak birgaitzeko programa sortzea



Helburuak

- Herrien hedapena gutxiagotzea eta hiriguneak birgai ditzaten sustatzea.
- Hiriguneen gainbehera ekiditea.
- Udalerrriaren kultur eta historia nortasuna berreskuratzea.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea: lurzorua baliabide mugatua da.
- Udalerrriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehieneko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Lurzorua modu jasangarrian erabiltzea.
- Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
- Oinarrizko zerbitzuak eskuragarriak izatea: etxebizitza.
- Gizartea zuzenagoa izan dadin lortzea.
- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Udalerrriak hedatu egin dira pixkanaka eta horrek biztanleak hirigunetik kanpoaldera joatea eragin du. Ondorioz, hiriguneak hustu egin dira, gizarte bizitasuna galdu egin da eta aurrez zeuden merkataritza jarduera asko eta asko gainbehera daude.

Hori horrela, udalerriko hiriguneko etxebizitzak eta ingurunea bera Birgaitzeko Plana eztabaidatzea, finkatzea eta garatzea proposatzen dugu.

Hirigunea Birgaitzeko Plan horrek ondorengo alderdi hauek barne hartu beharko lituzke:

- Etxebizitzak egokiak izatea, bai diseinuari dagokionez, bai eta beste hainbat neurriren aldetik ere, hala nola, energia modu eraginkorrean erabiltzea, behar bezala intsonorizata egotea, edonor joateko moduan prestatuta egotea, osasunarentzat kaltegarriak ez diren materialekin eraikiak izatea...
- Hiriguneko auzo, plaza eta etxebizitzaren kultur eta historia konnotazioak errespetatzea eta sustatzea.
- Etxebizitzek gain hiriguneko bestelako gune batzuk ere hobetzea, adibidez, plazak, lorategiak eta parkeak, hiri altzaria eta abar; horrela, guneak atseginagoak eta egokiagoak izanik,



herriarren arteko harremana, paseatzea... bultzatzeko

- Hirigunea ekipamendu deszentralizatuez eta lekura egokitutakoez hornitzea.



Parte hartzen duten agenteak

- Gaiarekin zerikusia duten Mankomunitateko zerbitzuak edo Udal zerbitzuak: Hirigintza, Ingurumena, Gizarte Ongizatea, Kultura, Sustapen ekonomikoa... Izan ere, horrela, udal-lerria Tokiko Sistema Oso gisa landuko da.
- Hirigunea Indartzeko Plana finantziazio bitartekoen bidez laguntzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko Udalaz gaindiko Erakundeak, Estatukoak edo/eta Europakoak.
- Hirigunea Indartzeko Plana finantziazio bitartekoen bidez laguntzen duten herri erakundeak edo/eta erakunde pribatuak.
- Teknikari adituak.



Zailtasunak

Zailtasun nagusia hirigunea Birgaitzeko Plana sustatu ahal izateko behar den inbertsioa da eta, beraz, finantziazio iturri publikoak edo/eta pribatuak lortzea. Aukeretako bat Europako proiekturen bateko "partner" gisa jotzea da, finantziazio bide egokiren baten bidez finantzatua izan dadin.

Hirigunea Birgaitzeko Planak arrakasta izateko, funtsezkoa da ondo baino hobeto kudeatuta eta antolatuta egotea, batetik, eta plana zehaztu eta finkatzerakoan gaiarekin zerikusia duten agente guzti-guztiek (udalak, sustatzaileek, eraikitzaileek, auzo eta dendari elkarteek...) parte hartzea, bestetik.



Komunikazioa

Helburua, beraz, herritarrek hirigunera erakartzea da. Baina horretarako, bizitzera hirigunera etor daitezen animatzeko, alegia, sustapenerako eta komunikaziorako plana egin beharko da, hirigunea indartzeko planaren osagarri.

Sustapenerako eta komunikaziorako plan horrek honako alderdi hauek izan beharko ditu kontuan:



- Mota guztietako herritarrengana zuzentzea, hirigunea bera ere anitza eta askotarikoa izan dadin. Horrez gain, eta helburu bera lortzeko asmoz, herri sustapeneko etxebizitza kopuru jakin bat zehaztuko da.
- Hirigunean bizitzeak bizitza kalitatea hobetzea dakar hainbat alderdiren ikuspuntutik. Sustapenerako eta komunikaziorako planak hirigunean bizitzearen alde on horiek azpimarratu beharko lituzke; adibidez, zerbitzu guneetatik hurbil egotea, joan-etorriak egiteko erraztasuna, udalerriarekin eta bertako ohiturekin identifikazio handiagoa...
- Hirigunea hutsik geratzeak dakartzan arazoez sentsibilizatzea herritarrek.



4.3. 3. ekintza. Udalerriko lurzoru urbanizaezinaren trataeran Jasangarritasun irizpideak kontuan hartzea



Helburuak

- Udalerriko lurzoru urbanizaezina babestea: lurzoru urbanizaezinaren erabilerak zehaztea (nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa, baso erabilerakoa...) eta zein funtzio ekologiko duen finkatzea.
- Lurzoru urbanizaezina udalerriko lurzoru marjinalizat har dadin ekiditea.
- Udalerriko lurzoru urbanizaezina behar bezala kudeatzea.
- Herritarrek udalerriko Natur Ondarea aintzat hartzea.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea: lurzoru baliabide mugatua da.
- Udalerraren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehieneko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Lurzoru modu jasangarrian erabiltzea.
- Tokiko Baliabideak erabiltzea eta Ekonomia dibertsifikatuaren bidetik jotzea, nekazaritza, abeltzaintza eta baso jardueri dagokienez.
- Soldata zuzeneko lanpostua izan ahal izatea.

- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Lurzoru urbanizaezinari Hiri Antolamendurako Plan Orokorretan orain arte eman zaion trataera ez da, inondik inora, batere zehatza, hiri lurzoruari eta lurzoru hiritargarriari emandakoarekin alderatuz gero. Lurzoru urbanizaezina beti hartu izan da udalerriko lurraldearen “gainerako” gisa; alegia, udalerrak hiri hazkundera jasateko duen lurzoru erreserbatzat.

Lurzoru urbanizaezina, alabaina, eta Tokiko Jasangarritasunaren ikuspuntutik, andeatu gabeko lurzoru erreserba da eta, beraz, udalerriko natur aberastasunaren zati dugu. Lurzoru urbanizaezina hiriko espazioan sartzeak galera ekologiko larria dakar eta, emandako erabileraren arabera, baita nekazaritza galera eta abar ere.

Horrek ez du esan nahi, jakina, udalerrri jasangarrietan lurzoru urbanizaezina lurzoru urbanizagarri kalifikatu behar ez denik hazkunde demografikoak eta etxebizitza eskariak horretara behartzen dutenean. Lur-



zoru urbanizaezina lurzoru hiritargarri kalifikatu ahal izango da, beraz, baina beti ere beste aukera batzuk behar bezala aztertu, planifikatu eta kudeatu ondoren, hala nola:

- Hiri orubeak eraikitzea.
- Hutsik dauden etxebizitzak behar bezala kudeatzea.
- Alokatzeko etxebizitzak bultzatzea,
- hirigunea indartzeko plana gauzatzea...

Tokiko Jasangarritasunerantz jotzeko ezinbestekoa da kudeaketaren, antolaketa-
ren eta abarren bidez lurzoru urbanizaezina babestuko dela bermatzeko moduko araudia sortzea. Horrela, hona hemen planean lurzoru urbanizaezina aintzat har dadin lortzeko neurri eraginkor batzuk:

- Udalerriko naturguneen, gune erdi-naturalen, nekazaritzako eta abeltzaintzako espazioen eta abarren kaltetzea eta ezaugarriak aztertzea.
- Aurreko azterketaren emaitzen arabera, aztertutako guneak eman nahi zaaien erabileren arabera bereiztea: guneen babes maila eta ekologia eta paisaia funtzioak.
- Plan bereziak eta gune urbanizaezinetako jarduera esparruak zehaztea.
- Lurzoru urbanizaezina berreskuratzeko eta funtzioen eta egituraren aldetik gordetzeko irizpideak zehaztea.
- Lurzoru urbanizaezinean zein jarduera ez dauden baimenduta arautzea eta, ondoren, kontrolatzea.



Parte hartzen duten agenteak

- Gaiarekin zerikusia duten Mankomunitateko zerbitzuak edo Udal zerbitzuak: Hirigintza, Ingurumena, Sustapen ekonomikoa...
- Eskumena duten udalaz gaindiko erakundeak, hala nola, lekuan lekuko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailburuordetza...
- Gaiarekin zerikusia duten gizarteko beste eragile batzuk: nekazarien eta abeltzainen elkar-
teak, lurren jabeak, sustatzaileak eta eraikitzaileak, ekologista taldeak...
- Teknikari adituak.



Zailtasunak

Neurri hau aurrera eramateko, behar-beharrezkoa da babes politikoa izatea eta gaiarekin zerikusia duten Sailak eta Zerbitzuak elkarlanean estu-estu aritzea. Izan ere, horrela baino ez baita lortuko lurzoru urbanizaezinari eman nahi zaion trataera berria lantzeko eta ezartzeko gai izango den lantalde zabala eratzea.

Baina litekeena da gaiarekin zerikusia duten agente askok gustuko ez izatea neurri hau, lurzoru



urbanizaezina, Natur Ondarea eta paisaia ez hiritarraren funtzioa babestea lortzeko herria heda dadin geldiaraztea baitakar.



Komunikazioa

Gaiarekin zerikusia duten agenteek eta herritarrek laguntzea eta neurria babestea lortzeko, ezinbestekoa izango da udalerriaren inguruaren aldeko neurriak hartzea beharrezkoa dela argi azaltzea. Horretarako, beraz, hirikoak ez diren espazioen paisaia eta ekologia funtzioak zein diren azaldu eta funtzio horiek defendatu beharko dira, eragileak eta herritarrek ere behar horretaz jabe daitezen.

Gai honen inguruan etengabe lan egiteko komunikabide egoki bat herriko aldizkaria da. Aldian behin hirikoak ez diren espazioei buruzko artikuluak, albisteak, iritzi artikuluak, monografikoak eta abar argitara daitezke bertan, eta espazio horien ezaugarriei eta berezitasunei buruzko iritzia eman ahal izango dute herriko hainbatek: haurrek, helduek, nekazariak, ekologista taldeek, eraikitzaileek, ordezkari politikoek...



4.4. 4. ekintza. Ingurumenari buruzko udal ordenantzak egitea



Helburuak

- Udalaren eskumen esparruaren barruan, udalerriko ingurumenean eragina duten jarduera guztien inguruan udalak zernolako kudeaketa izango duen arautze-ko araudi eremua eratzea.
- Hiriko ingurumenaren edo/eta landatar ingurumenari buruzko kudeaketa hobetzea: ingurumenari buruzko politika ildoak udalerriko gainerako politika ildotan kontuan hartzea, udal zerbitzuen eta udalaz gaindiko zerbitzuen arteko koordinazioa, herritarrek informazioa eskuratu ahal izango dutela bermatzea...



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea.
- Udalerriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehieneko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Lurzorua modu jasangarrian erabiltzea
- Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informa-

zioa eskuragarria izatea

- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorrak¹⁷, otsailaren 27koa, 87. artikuluan xedatutakoaren arabera, toki erakundeek ingurumenari buruzko ordenantzak* onartzeko betebeharra dute, ingurumenaren alorrean toki erakundeei emandako eskuduntzetan oinarrituz¹⁸. Ingurumen politikarako baliabide publikoa da, beraz, eta baita funtsezko elementu bat ere, udalerrietako ingurumen politikak aurrez ezarritako helburuetan oinarritutako ekintza zehatz bihur daitezten lortzeko araudi eremua eratzea ahalbidetzen baitu.

Arestian aipatutako araudia kontuan hartuz, Ingurumenari buruzko Ordenantzak egitea proposatzen dizuegu, udalerriko ingurumenaren sektore arauak bateratzeko, alde batetik, eta udalaren ingurumenaren alorreko kudeaketa integrala hobetzeko, bestetik.

Udal Ordenantza horiek ondorengo alderdi hauek barne hartu beharko lituzkete, guxtienez¹⁹:

¹⁷ Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa. 87, 34 eta 37.3. artikulukoak.

¹⁸ 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena.



- Hondakin urak, lurzoruaren babesa eta lurzoruaren kutsadura, atmosferaren babesa, zaratak eta dardarak, hondakinen garbiketa eta hondakinak biltzea, berdeguneak eta zuhaitziak eta erradiazio ionizatzaileak.

Bestalde, Ingurumenari buruzko Ordenantzetan honako alderdi hauek zehaztu behar harko lirateke:

- udalerriaren ingurumen politika zein udal ekintza zehaztuz gauzatuko den.

- zein diren printzipio nagusiak:
 - zuhertasuna eta prebentzio ekintzak.
 - ikuskeraren eta kontrol integratua
 - kalteak zuzentzea (batez ere iturburuan bertan) eta hobetzea.
 - ingurumenaren babesa sektore politika guztien zehaztapenean eta gauzapenean barne hartzea.
 - ingurumenari buruzko informazioa, heziketa eta sentsibilizazioa.
- kutsadura eragiten duten agentei zer nolako neurriak ezarriko zaizkien.



Parte hartzen duten agenteak

- Gaiarekin zerikusia duten Udal zerbitzuak: Ingurumena, Zirkulazioa, Hirigintza...
- Gaiaren inguruan eskumena duten Udalaz gaindiko Zerbitzuak.
- Teknikari adituak.



Zailtasunak

Ingurumenari buruzko Ordenantzak egiteak izaera teknikoko arazoak ditu, batez ere: ordenantzen helburuak eta edukiak zehaztea, hain zuzen ere.

Behin ordenantzak idatzi eta indarrean sartu ondoren, ahalik eta hobekien gauzatzeko eta aplikatzeko, ondorengo bi alderdi hauek dira beharrezkoak:

- Gaiarekin zerikusia duten Udal zerbitzu eta Udalaz gaindiko zerbitzu guztien arteko koordinazioa.
- Ingurumenaren babesa Udalaren kudeaketa eta erabaki eremu guztietan barne hartzea.

¹⁹ Ingurumenaren Ordenantzetan barne hartu beharreko gutxienezko alderdien inguruan EUDELeke egindako proposamena.



Komunikazioa

Ingurumena babesteko Udal Ordenantzak onartuak izan eta indarrean sar daitezten egin beharreko legegintza izapideak egin ondoren, gaiarekin zerikusia duten agente guztiei eta, oro har, herritarrei aurkeztuko zaizkie ordenantzak. Horretarako, jardunaldi antzekoren bat antola daiteke, ordenantzen edukiak, eraginak eta printzipioak zein diren edonork ulertzeko moduan azaltzeko.



4.5. 5. ekintza. Udalerriko Natur Ondarearen katalogoa egitea



Helburuak

- Udalerrian zein flora eta fauna espezie dauden jakitea (itsasokoak nahiz lehorrekoak), bai eta espezie bakoitzeko kopurua ezagutzea ere.
- Udalerriko paisaiaren kalitatea edo aberastasuna ezagutzea, hainbat espezieren habitata* den aldetik.
- Egindako katalogoaren emaitzen araberrako kudeaketa neurri egokiak zehaztea.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea.
- Udalerriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehieneko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna, ingurumen zerbitzua den aldetik, aintzat hartu eta babestea.
- Lurzorua modu jasangarrian erabiltzea
- Tokiko Baliabideak erabiltzea eta Ekonomia dibertsifikatuaren bidetik jotzea.
- Oinarrizko zerbitzuak eskuragarriak izatea: hezkuntza eta kultura.
- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.
- Jasangarritasuna esparru globalean.



Deskribapena

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura babesteko 16/1994 Legeak, ekainaren 30ekoak, IV. tituluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioek Natur Ondarearen aniztasun genetikoa babesteko egin beharreko jarduerak egingo dituzte, beti ere ondorengo irizpide hauen arabera:

- Espezie bakoitzaren habitat naturala babesteko eta gordetzeko neurriei emango diete lehentasuna.
- Bertakoak ez diren zein espezie, azpiespezie edo arraza geografiko sartu diren eta zenbateraino ugaltu diren aztertuko dute eta ekidin egingo dituzte, gainera, bertakoekin lehia-tzeaz gain horien purutasun genetikoa edo/eta oreka ekologikoa alda baitezakete.
- Honako espezie eta azpiespezie hauei emango diete lehentasuna: endemikoei, oso leku mugatuetan baino ez daudenei edo populazio aldetik sendotasun gutxikoak edo dentsitate baxukoak direnei eta, azkenik, migra-tzaileei.

Interesekoak diren lehorreko nahiz itsasoko flora eta fauna ez da bizi soilik naturgune babestuetan, hala nola, Natur Parkeetan, Biosfera Erreserbetan, Biotopo babestuetan



edo zuhaitz berezietan. Aitzitik, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako parkeetan, zelaietan, ibaiertzetan, itsasertzetan eta mendietan ere badira, arrazoi bat edo beste dela medio, interesekoak diren flora eta fauna espezieak: ziklo biologikoan duten funtzioagatik, ingurunera moldatzeko ahalmenagatik, ezaugarri bereziak izateagatik, bertakoak izateagatik edo herritarrei eskaintzen dieten ingurumen zerbitzuengatik.

- Udalerriaren egoera: bertako Natur Ondarearen puntu ahulak eta sendoak.
- Natur Ondarea babesteko eta sustatzeko etorkizunean egin daitezkeen ekintza proposamenak .
- 439/1990 Errege Dekretuaren bidez (zeinak espezie mehatxatuak zerrendatzen dituen) babestu beharrekotzat edo interes berezikotzat izendatutako zein espezie dauden udalerrian aztertzea.

Udalerrietako Natur Ondarearen bioaniztasun maila zein den jakiteko, ezinbestekoa da lehenbizi bertako espezieak katalogatzea, gero ondorengo beste alderdi hauek zehaztu ahal izateko:

- Udalerriko ekosistemen egituraketa.

Katalogoari esker udalerriko Natur Ondarea zein eta zenbaterainokoa den jakin daiteke. Horrek, jakina, Natur Ondarea aintzat hartzea dakar berekin, eta baita udalerriko kultur eta biologia aberastasun gisa hartzea ere.



Parte hartzen duten agenteak

- Lehorreko edo/eta itsasoko flora eta fauna espezieen errolda eta katalogoa egiten adituak direnak.
- Udala, Natur Ondarearen Katalogoaren sustatzaile gisa.
- Lekuan lekuko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila, esparru horretan eskumena duen erakundea den aldetik.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailburuordetza.



Zailtasunak

Udalerriko flora eta fauna espezieen errolda eta katalogoa horretan adituak direnek egin behar dute ezinbestez, eta horrek aparteko kostua dakarkio lanari. Dena den, bestelako erakunde batzuetara ere jo daiteke laguntza eske, hala nola, Unibertsitateetara, hainbat eta hainbat Elkargotara...

Bestalde, katalogoak ez luke Natur Ondarearen deskribapen hutsa izan behar; espezieen zerrenda



emateaz gain kudeaketa neurri egokiak ere eskaini beharko lituzke, besteak beste, guneen babesa, bertako espezieak landatzea, erabilerak arautzea.



Komunikazioa

Udalerrietako herritarrek Natur Ondarea aintzat hartu eta babesteko, ezinbestekoa da Natur Ondare hori zertan den jakitea. Beraz, Natur Ondarearen Katalogoa egin eta hartu beharreko neurri egokiak proposatu ondoren, herritarrei jakinarazi beharko zaizkie. Hainbat bide erabil daitezke horretarako:

- Gida bat argitaratu.
- Atzera begirako erakusketa antolatu.
- Udalerriko naturguneetara irteerak antolatu ikastetxeekin, taldeekin...



4.6. **6. ekintza. Udalerriko hiri inguruneko lurzorua berreskuratzea edo babestea korridore ekologikoak sortuz eta nekazaritza guneak mantenduz**



Helburuak

- Udalerriko hiri inguruneko espazioari berriro balioa ematea, udalerriko eremu marjinala izan ez dadin.
- Herritarrek hirigunearen mugetara hurbiltzea, alegia, udalerriaren inguruetara ekartzea.
- Espazioaren erabileren dibertsifikazioa sustatzea, udalerriko nekazaritza, naturaguneak eta berdeguneak integratzearen alde.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabide berriztagarriak, berriztaezinak eta jarraiak modu eraginkorrean erabiltzea.
- Udalerriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehienezko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna, ingurumen zerbitzua den aldetik, aintzat hartu eta babestea.
- Lurzorua modu jasangarrian erabiltzea: lurzorua baliabide mugatua da.
- Tokiko Baliabideak erabiltzea eta Ekonomia dibertsifikatuaren bidetik jotzea.
- Soldata zuzeneko lanpostua izan ahal izatea.

- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.
- Jasangarritasuna esparru globalean.



Deskribapena

Proposamen honen helburua erabileren dibertsifikazioaren bidez udalerrietako inguruneari berriro balioa ematea da. Eta zeri deritzogu hiri inguruneko espazioa? Udalerriko hiriko espazioaren eta landako espazioaren arteko trantsizio eremuari deritzogu, eta sarritan eremu marjinala izan ohi da, inolako plangintzarik gabea, eta ingurumen arazo larriak izan ohi ditu.

Hori dela eta, hainbat ekintza egitea proposatzen dizuegu, ezberdinak izanagatik ere bata bestearekin zerikusirik badutenak, funtzio ekologikoak eta sozialak izango dituen espazio mistoa sortzeko hiriko eta landako bi espazio horien artean. Hona hemen ekintza proposamen batzuk:

- Korridore ekologikoen sarea* sortzea eta indartzea.
- Hiri inguruneko espazioan dauden baratze marjinalak egokitzea.
- Hiri inguruneko espazioan nekazaritza jarduera bultzatzea.



- Udalerriko landa bideak egokitzea.
- **Korridore ekologikoen sarea sortzea eta indartzea.** Udalerriko hirigunearen inguruan antolatutako eremu natural edo/eta antropikoak dira korridore ekologikoak. Euren artean lotuta egon ohi dira, eta funtzio hauek izaten dituzte:
 - Fauna eta flora espezieentzako habitat babestua osatzen dute eta, horrela, bioaniztasuna eta espezieak babestea eta kontserbatzea laguntzen dute.
 - Andeatutako gunek berreskuratu eta naturagunek sortzen dira horrela.
 - Gizakiok Naturarekin harremana izatea ahalbidetzen dute horrelako sareek eta, gainera, ingurumenarekiko errespetua izatea eta Natura babestu eta kontserbatu beharra irakasten digu. Bestalde, gizakion arteko harremana ere bultzatu egiten da horrelako lekuekin.

Korridore ekologikoak era askotakoak izan daitezke, adibidez, ubideak, berdegune naturalak, berdegune antropikoak, ibilbide historikoak...

- **Hiri inguruneko espazioan dauden baratze marjinalak egokitzea.** Baliteke hainbat udalerrikan baratzeak sortu izana han-hemenka inolako kontrol gabe. Sarritan baratze horiek arazo ugari sortarazten dituzte, adibidez, sa-

neamendu arazoak, lurraldearen antolamenduarekin zerikusia dutenak... Horrelakoetan, baratze horiek behar bezala antolatzekeo kanpainak egingo dituzte udalek.

- **Hiri inguruneko espazioan nekazaritza jarduera bultzatzea.** Hiri espazioa handitzeak nekazaritza gunek gutxiago-tzea eragin du eta horrek lanpostu ugari galtzea, lurzoruak bertan behera uztea eta abar ekarri du berekin. Nekazaritza gunek berreskuratzeko eta sustatzeko, ezinbestekoa da, besteak beste:
 - Tokiko nekazaritza eta abeltzaintza produktuen eskaintza handitzea.
 - Hiri espazioaren eta landa espazioaren arteko elkarrekintza orekatua lortzea eta, horretarako, erabileren, funtzioen eta harremanen aniztasuna bultzatzea.
 - Lurraldearen antolamendu plana egitea.
 - Andeatutako gunek berreskuratzea.
- **Udalerriko landa bideak egokitzea.** Izan ere, landa bideak egokituz gero, udalerriaren inguruaren eta herritarren arteko harreman gunetako bat kontserbatuko dugu. Eta, horrez gain, udalerriko natur ondarearen erabilerak babestea, sustatzea eta arautzea lortuko dugu.



Parte hartzen duten agenteak

- Gaiarekin zerikusia duten Mankomunitateko zerbitzuak edo Udal zerbitzuak: Ingurumena, Hirigintza, Gizarte Ongizatea eta Sustapen ekonomikoa.
- Eskumena duten Udalaz gaindiko Zerbitzuak: Foru Aldundietako Nekazaritza Saila...
- Gaiak eragiten dieten agenteak eta, oro har, herritarrak.

Zailtasunak

Proposatutako neurri guztiek toki agintariek egindako planaren barne egon behar dute eta ez dute izan behar unean uneko ekintza solteak.

Bestalde, ezinbestekoa da hiri ingurunea babesteko eta sustatzeko planak udalerriko politikarien eta teknikarien babes izatea, beti egongo baita planaren aurkako agenteren bat, hiri espazioa inolako mugarik gabe haztearen aldekoa.

Komunikazioa

Toki agintariek hiri ingurunean gauzatu beharreko ekintzen plan orokorraren berri emango diete herritarrei eta, horrez gain, lan taldeak eratuko dituzte gaiarekin zerikusia dutenekin: lurren jabeekin, nekazariekin, baratzeen jabeekin...

Bestalde, prestatutako espazioei buruzko ingurumen heziketako kanpaina egingo du.



4.7. **7. ekintza.** Eraikuntza eta eraiste lanetako hondakinen kudeaketa hobetzea



Helburuak

- Eraikuntza eta eraiste lanetako hondakinen kudeaketa hobetzea.
- Eraikuntza eta eraiste lanetako hondakinen hondakindegia kontrolatugabeak sor daitezen ekiditea.
- Eraikuntza eta eraiste lanetan parte hartzen dutenak informatzea eta sentsibilizatzea.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea.
- Udalerriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehieneko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Lurzorua modu jasangarrian erabiltzea.
- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.



Deskribapena

Eraikuntza eta eraiste lanetatik hiru hondakin mota sortarazten dira:

- *Eraikuntza lanetako bertako hondakinak*: eraikinak egiterakoan edo/eta birgaitze lan txikietan sortarazten diren hondakinak dira.
- *Eraiste lanetako hondakinak*: eraikinak eraisterakoan edo desmuntatzerakoan sortarazten diren hondakinak dira, bai eta eraikinak eraisteko edo desmuntatzeko beharrezko instalazioek sortarazitakoak ere.
- *Indusketa lanetako hondakinak*: eraikitzen hasi baino lehen lurrak induskatzerakoan sortarazten diren hondakinak dira.

Higiezin merkatua izugarri hazi da azken urteotan Euskal Autonomia Erkidegoan. Hori dela eta, gaur egun horrelako hondakin ugari sortarazten da eta, ingurumen aldetik, ez dira behar bezala kudeatzen: edo horretarako prestatutako hondakindegietara eramaten dira edo hondakindegia kontrolatugabeetara botatzen dira.

Hori horrela, eta udal kudeaketa hobetzeko bitarteko gisa, udalek ordenantzak egitea proposatzen dugu, eraikuntza eta eraiste lanetako hondakinak non eta nola botatzen diren kontrolatu ahal izateko (bai hondakindegia kontrolatugabeetara botatutakoak eta bai hondakindegia kontrolatuetara botatutakoak ere) eta baita horrelako hondakinak behar bezala tratatu ahal izateko ere. Azken batean, ondorengo hauek



bermatzea da helburua:

- Hondakinak sortarazten dituztenek behar bezala kudeatzea.
- Hondakinak behar den lekuan botatzea edo uztea.
- Hondakinak birziklatzea, ondoren beste eraikuntza lan batzuetan, errepideetan eta abar lehengai gisa erabil daitezen.
- Hondakinak hondakindegietan botatzeagatik ordaindu beharreko tasak ordaintzea, eta hondakinak behar bezala kudeatzen, lekualdatzen eta botatzen dituztenei tasen zati bat itzultzea, sari gisa.
- Hondakinak hondakindegia kontrolatugabeetan botatzeagatik isunak ezartzeko arauak finkatzea.
- Udalaren kudeaketa udal ordenantzen arabera eta eraginkorra izatea.



Parte hartzen duten agenteak

- Udal zerbitzuak, hala nola, Hirigintza, Ingurumena eta Kontu hartzaileak
- Udalaz gaindiko Erakundeak
- Hondakinak tratatzeko fabriketako kudeatzaileak
- Teknikari adituak



Zailtasunak

Hauexek dira zailtasun nagusiak: alde batetik, Udal Ordenantzak berak egitea eta, ondoren, behar bezala aplikatzea, eta bestetik, gaiarekin zerikusia duten Udal zerbitzuen arteko koordinazioa ona izatea.

Bestalde, udalerri askok eta askok ez dute hurbil izango eraikuntza eta eraiste lanetako hondakinak tratatzen dituen fabrikarik. Horrek, jakina, gauzak zaildu egiten ditu, bai eta garestitu ere, hondakinak udalerritik tratamendu fabrikara eramateak sortzen duen kostua dela eta.

Hondakindegia kontrolatugabe ugari agertzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoan azken urteotan, eta gaiari buruzko sentsibilizaziorik eza eta horrelako hondakindegia sor ez daitezen kontrolatzeko zailtasuna adierazten du horrek.



Komunikazioa

Proposamenak arrakasta izateko, beraz, berebiziko garrantzia dauka gizartea gaiarekiko sentikor bihurtzea. Horretarako, eraikuntza eta eraiste lanetako hondakinak sortzeko prozesuan parte hartzen duten agenteei zuzendutako sentsibilizazio edo/eta heziketa kanpainak egin ditzake udalak, batez ere eraikuntza eta eraiste enpresei eta hondakin kopuru txikiak sortzen dituzten herritarrei zuzendutakoak. Kanpainak, jakina, ondo baino hobeto antolatu beharko lirateke eta, ahal izanez gero, jendeak parte hartzeko modukoak eta berritzaileak izan beharko lukete.

Arestian aipatutako kanpainak egiteaz gain, prozesu osoan zehar, alegia, hondakinak sortarazi, kudeatu, birziklatu eta berriro erabiltzeko prozesuan parte hartzen duten agenteekin lan talde bat osa dezake udalak, hondakinek sortarazten duten arazoa denen artean aztertu eta hondakinak kontrolik gabe botatzea ekiditeko irtenbideak bilatzeko.



4.8. 8. ekintza Gaikako bilketako edukiontzien kudeaketa hobetzea



Helburuak

- Sortutako hondakinen kopurua murriztea.
- Gaikako bilketako edukiontzien kudeaketa hobetzea.
- Sorburuan birziklatzeko eta bereizteko mailak areagotzea.
- Udalerriko herritarren sentsibilizazio maila areagotzea eta herritarren parte hartzea erraztea.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea.
- Udalerraren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntitu gabe jasan dezakeen gehieneko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Bertako baliabideak eta ekonomia dibertsifikatua erabiltzea.
- Bizi kalitate ona bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.



Deskribapena

Paperaren, beiraren eta ontzien gaikako bilketa ez dago erabat ezarrita oraindik

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri guztietan. Paperaren eta beiraren bilketa sendotuago dago, baina ontziena berriagoa da, eta eskumena duten Erakundeek ahalegin handiagoa egin beharko dute bilketa hori sustatzeko.

Hondakinen eguneroko kudeaketa garestia da Udalentzat, Mankomunitateentzat, Koadrilentzat eta Foru Aldundientzat, eta, oro har, euskal errealitatea ikusita, ez da erraza Europako Batasunak ezarritako birziklatze helburuak betetzea.

Horregatik, beharrezkoa da udalerrri bakoitzak, eskumenak edozein izanik ere, etengabeko ahalegina egitea, ondorengo helburuak lortzeko:

- Sortutako hondakin kopurua murriztea.
- Gaikako bilketarako edukiontzien kudeaketa hobetzea.
- Datuak behar bezala landu eta baloratu ondoren, segimendu eta kontrolko ondorioak ateratzea.

Hona hemen neurri batzuk, udalerrri bakoitzean gaikako bilketako edukiontzien kudeaketa bermatzeko eta hobetzeko:

- Dagokion Erakundeak bilketako datuak aldi berean eskuratzeko eta aztertzeak, hainbat alderdi kontuan izanik: kokalekuak, bilketako lekuaren ezaugarri soziologikoak, bertan dau-



den jarduera ekonomikoen kopurua...

- Udalerrri bakoitzeko datu guztiak informatizatzea, azterketa zehatzak egin ahal izateko eta etengabeko hobekuntzak proposatu ahal izateko.
- Gaikako bilketa maila zein izan den etengabe jakinaraztea herritarrei, hiri handietako auzoekin eta/edo udalerriekin alderatuta, eta baita lortu beharreko helburuen berri ematea ere.
- Jarri beharreko edukiontzien tipologia eta kokalekua zehatz-mehatz aztertzea.
- Edukiontziak eta bilketako guneen kopurua hainbat eragileren arabera banatzea: biztanle kopurua, lekuaren ezaugarriak (biztanleriaren arabera), bilketarako maiztasuna...
- Kostuak eta etengabe hobetzeko erak zehatz-mehatz aztertzea. Izan ere, hondakinak biltzeko udalek daukaten aurrekontu saila garrantzitsua baita.
- Datu baseetatik ondorioztatzen den informazioaren aldian behingo segimendua eta kontrola, hobekuntza berriak ezartzeko eta kudeatzeko.



Parte hartzen duten agenteak

- Hondakinen kudeaketaz eta garraioaz arduratzen diren Udal eta/edo Udalaz Gaindiko Zerbitzuak.
- Herritarrak, oro har.
- Teknikari adituak.



Zailtasunak

Udalerrri txikietan, normalean, hondakinak biltzeko zerbitzua amankomunatua edo forala izan ohi da. Horregatik, gerta liteke proposatu berri ditugun neurriak (udalentsakoak ere izanik) bere eskumenekoak ez direla pentsatzea zenbait udalek.

Bestalde, informazio sistema eguneratuta izatea eta aztertzea garesti samarra da, batik bat giza baliabideek eragiten dituzten kostuak.

Herritarren parte hartzea funtsezkoa da birziklatze maila hobetzeko eta, zenbait azterketa espezializaturen arabera, behin birziklatze maila batzuetatik aurrera, bereziki konplikatu eta garestia da birziklatze hori areagotzea. Horrez gain, birziklatze mailaren kalitatea zehazteko, birziklatutako hondakinen kopurua ez ezik, hondakin erreusak* murriztea ere kontuan hartzen da.



Komunikazioa

Ekintzak arrakasta izan dezan, erabakigarria da udal teknikarien eta herritar guztien parte hartzea. Eskumena duten Udal eta Udalaz Gaindiko Erakundeek sentibilizatu egin behar dituzte herritarrak. Horretarako, ondorengo neurriak edo ekintza ereduak proposatzen dira:

- Hondakinak birziklatzen dituzten enpresetara bisitaldi gidatuak antolatzea, beira-
ren, paperaren eta ontzien birziklatze prozesua aztertze eta jendeak horren be-
rri zuzenean jakiteko.
- Sorburuko bereizketa erraztuko duten tresnak banatzeko kanpainak egitea. Adibi-
dez, honelakoak:
 - Zabor ontzi egokien erabilera, zaborra bereizita gordetzeko modukoak.
 - Erosketak egiteko ehunezko poltsen erabilera, plastikozko poltsarik
ez erabiltzeko...

Azkenik, aipatu beharra dago sentibilizazio kanpainetan programa bereziak aurreikusi behar direla lortutako emaitzen segimendua, ebaluazioa eta kontrola egiteko.



4.9. 9. ekintza Garbiguneen kudeaketa optimizatzea, produktuen balorazioa bermatuz



Helburuak

- Hondakinen gaikako bilketa areagotzea, batik bat ere ondorengoena: batez ere etxeetan eragiten direnak, hirikoen antzekoak diren hondakin industrialak, dendetako hondakinak eta lan txikietan eragiten diren eraikuntza eta eraispén hondakinak.
- Hondakin horien balorazioa bermatzea, baimendutako kudeatzaile sare baten bidez.
- Herritarren konpromisoa eta parte hartzea areagotzea.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea, birziklatuz.
- Udalerrriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehieneko biztanle kopurua. Hondakinak ahalik eta gehien murriztea eta behar bezala kudeatzea.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Bertako Baliabideak eta Ekonomia dibertsifikatua erabiltzea.
- Bizi kalitate ona bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea

- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

2000-2006 Hiri Hondakinen Plan Nazionalan, Hondakinen berreskuratzeari eta birziklatzeari dagokion atalean, zera zehazten da: "beharrezkoa da eta bultzatu beharra dago batez ere etxeetan eragiten diren hondakinak gainerako hiri hondakinetatik bereiztea, bai birziklatzeko, bai baloratzeko. Bereizketa horretarako, zenbait sistema erabil litezke, besteak beste, garbiguneak, etxez etxeko bilketa bereziak, borondatezko hitzarmenak..."²⁰

Garbiguneak leku bereziak dira, hondakin mota batzuk jasotzeko, gaikako bilketa egiteko eta bereizteko. Garbiguneetan jasotzen dira, besteak beste, batez ere etxeetan eragiten diren hondakinak, hirikoen antzekoak diren hondakin industrialak, dendetako hondakinak eta lan txikietan eragiten diren eraikuntza eta eraispén hondakinak. Garbiguneari beste izen batzuk ere ematen zaizkio: puntu berde mugikorra, gaikako bilketa gunea edo hondakinen biltegi alternatiboa.

Oro har, garbiguneetan honelako hondakinak jasotzen dira:

- Kolak eta itsasgarriak.

²⁰ Hiri Hondakinen Plan Nazionala, 2000-2006, 2000ko urtarrilaren 5ekoa.



- Pinturak, bernizak eta disolbatzaileak
- Intsektizidak eta parasitoen aurkakoak.
- Landare olioak.
- Etxean erabiltzen diren produktu kimikoak.
- Automobiletarako gehigarriak eta likidoak.
- Sendagaiak eta produktu terapeutikoak.
- Elektrizitateko eta elektronikako hondakinak.
- Erabilgarria eta ordutegi zabala izatea.
- Iristeko erraza izatea.
- Hondakinen sarrerak kontrolatzea.
- Datuetatik lortzen den informazioa biltzea, informatizatzea, lantzea eta baloratzea: erabileran izandako bilakaera, sartu diren hondakin mota nagusiak, erabiltzaileen tipologia...
- Hondakinen kudeatzaileen sarea ezartzea, hondakin horiek baloratze-ko edo birziklatzeko.
- Hondakinen irteerak eta erabilitako garraiobide motak kontrolatzea.
- Zerbitzuaren berri ematea eta informazioa zabaltzea: jasotzen diren hondakin motak, kokalekua, udalerritik gertuen dauden garbiguneak non dauden, ordutegia, gaikako bilketaren helburu nagusiak...

Garbiguneen kudeaketa egokia arautzeko eta planifikatzeko, Lurralde Historiko bakoitzak bere Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketa Egitasmoa egin beharra dauka. Horrela, garbiguneek behar bezala funtzionatzeko eta egitasmoaren kudeaketa integratua lortzeko, ondorengo alderdiak hartu behar dira kontuan:



Parte hartzen duten agenteak

- Eskumena daukaten Udal eta Udalaz Gaindiko Zerbitzuak.
- Bildutako hondakinak kudeatzen dituzten enpresen sarea.
- Herritarrak.



Zailtasunak

Bermatu beharra dago garbigunean gaika biltzen diren hondakinak behar bezala baloratuko direla. Horretarako, sistema egokia ezarri beharra dago: enpresa espezializatu eta baimenduen sarea.

Bestalde, garbiguneak arrakasta izateko ezinbestekoa da denboran zehar etengabe erabiltzea, bai herritarrek, bai enpresek eta baita dendekek ere. Horregatik, funtsezkoa da



informazio eta trebakuntza zorrotza eta berritzailea ematea; halaber, garrantzitsua da herritarrei, enpresei eta dendei kalitatea eta erraztasunak eskaintzea.

Batzuetan, batez ere informazio eta trebakuntza mailak behar bezalakoak ez direnean, arazoak sor litezke auzokoekin, garbigunearen kokalekua dela-eta.



Komunikazioa

Garbiguneak arrakasta izateko, ezinbesteko baldintza da aurretik garbigunearen berri ematea eta jendea hezte.

Jendeak jakin beharra dauka zer diren garbiguneak, non dauden, nolako hondakinak biltzen dituzten, han utzitako hondakinekin gero zer egingo den, zergatik erabili behar diren... Hau da, beharrezkoa da hondakinen eta hondakinen kudeaketaren errealitateari buruzko trebakuntza kanpaina abian jartzea. Horrela, jendea arduratu egingo da berak sortzen dituen hondakinez eta horren arabera jokatu du.



4.10. 10. ekintza Udal eraikin, instalazio eta zerbitzuetan energia eraginkortasunerako irizpideak ezartzea



Helburuak

- Udal eraikin, instalazio eta zerbitzuetan energia eraginkortasuna areagotzea.
- Udalak energian gastatzen duena murriztea.
- Energiaren kontsumoan eraginkortasuna: alor pribatuan (enpresetan eta dendetan) eta etxeetan sentsibilizatzeko maila areagotzea.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabide berriztagarrien, berriztaezinen eta jarraien erabilera eraginkorra.
- Udalerriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehieneko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Bizi kalitate ona bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Euskal Energia Erakundearen 3E-2005 Plana, Euskadiko Energia Estrategia 2005ean adierazten zenez, 1995ean Euskal Autono-

mia Erkidegoak behar zuen energiaren %10 Euskadik berak ekoizten zuen eta 2005ean kopuru hori %18ra igotzea aurreikusten zen. Bere burua hornitu ahal izateko maila horrek gora egin arren, gure erkidegoa erabat kanpokoen menpean dago erregai solidoei (ikatz, egurra...) eta petrolioari dagokienez. ²¹ Menpekotasun horrek Planetako beste eskualde batzuetan hainbat ingurumen inpaktu nabarmen eragiten ditu, adibidez, naturako baliabide berriztaezinen agorpena.

2005 urterako, Euskadin, honela aurreikusten da oinarritzko energiaren eskaria, jatorriaren arabera:

- Petrolio eskaria: %54
- Gas naturalaren eskaria: %27
- Erregai solidoen eskaria: %8
- Inportazioetatik datorren energia elektrikoaren eskaria: %4
- Iturri berriztagarrietatik (biomasa eta haizea) datorren energiaren eskaria: %6
- Energia deribatuen eskaria: %1

Egoera horren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek, herritarrengandik eta energia kontsumitzen duten tokiko agenteengandik gertuen dauden Entitateak direnez, eredu izan beharko lukete eta energiaren kudeaketa jasangarria indartu beharko lukete, hain zuzen ere, ondorengo neurri hauetan oinarrituta:

²¹ 3E-2005 Plana, Euskadiko Energia Estrategia 2005, Energiaren Euskal Erakundea – EEE, 1997



- Energia kontsumoa murriztea.
- Energia eraginkortasuna.
- Iturri berriztagarrietatik lortutako energiaren erabilera areagotzea, iturri berriztaezinetatik lortutako energiaren kaltetan.
- Energia eraginkortasuneko irizpideak sartzea eraikinetan, bai publikoetan, bai pribatuetan.

Horretarako, hona hemen zenbait neurri zehatz udal eraikin, instalazio eta zerbitzuetan energia eraginkortasuna eta aurrezpena sustatzeko:

- Bonbilla arrunten ordez kontsumo txikikoak jartzea, bai eraikinetan, bai herriko argietan.
- Energia hornitzaileekin (enpresekin) sinatutako udal kontratuak berraztertzea eta prezioak erabilpen ordutegira egokitzea.
- Herri argietako luminariak egokitzea: formatua dela kausa, ahal dela ez dezatela argi kutsadurarik eragin.
- Herri argietako luminarien kokalekuak egokitzea eta horien bizitasuna kontrolatzea (ordutegiaren arabera).
- Energiaren erabilerarako kudeaketa sistema inteligenteak sustatzea: argiak pizteko eta itzaltzeko programagailuak, tenporizadoreak edo erloju astronomikoak erabiltzea, beroketa sistemaren eta aire girotuaren erabi-

lera eta tenperatura kontrolatzea, udal kontsumoen eta kostuen kudeaketa eta kontrol sistema eten gabeak...

- Udalerriko eraikin nagusiak argitze-rakoan eta udalerrian Gabonetan eta herriko jaietan argiak jartzerakoan energia eraginkortasunerako irizpideak erabiltzea (kontsumo txikiko lanparak, ordutegiak arautzea...).
- Udal eraikin eta instalazioetan (kirol-degi, eskola...) epe luzera eguzki energiako sistemak erabiltzeko aukerak, bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertzea.
- Etxebizitzan sustapen publikoetan kontratista batzuen alde egitea positiboki; hain zuzen ere, etxebizitzetan ondorengoak bezalako baldintzak bermatzen dituztenen alde: isolamendua, orientazioa, energia eraginkortasuna, energia berriztagarrien erabilera... beti ere etxebizitzaren kalitatea murriztu gabe, noski.
- Udalaz gaindiko mailan, berriz, gomendagarria da hori guztiaren aurretik udal eraikin, instalazio eta zerbitzuetan Energia Auditoriak egin daitezela laguntzea eta sustatzea, kontsumoa murrizteko eta kudeaketa hobetzeko aukerak aztertzea.



Parte hartzen duten agenteak

- Udaletako arduradun politikoak eta teknikariak: Ingurumen, Ekonomia eta Zerbitzuen arloetakoak.
- Energia hornitzaileak (enpresak).
- Energiaren Euskal Erakundea.

Zailtasunak

Energia alorrean izandako liberalizazioaren ondorioz, energia horniketako prezioek behera egin dute eta gerta liteke etorkizunean kontsumoak gora egitea.

Bestalde, beharrezkoa da inbertsioak egitea, instalazioak energia eraginkortasunerako irizpideetara egokitzeko. Inbertsioak baloratzeko, errentagarritasun ekonomikoaren ikuspegia ez ezik, ingurumenaren ikuspegia ere kontuan izan beharko da.

Lan batzuk aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoa izango da udaletako arduradun politikoak eta teknikariak motibatuta egotea eta konprometitzea. Izan ere, gerta liteke egin beharreko horiek ez izatea herritarren oso gustukoak. Halaber, beharrezkoa izango da sentsibilizazio eta komunikazio kanpaina egokiak antolatzea, sor litezkeen gatazkak saihesteko.

Komunikazioa

Udal eraikin, instalazio eta zerbitzuetan energia eraginkortasuna areagotzeko udalak egin beharreko ahalegin bereziak eredugarria izan behar du herriko gainerako agenteentzat (herritarrak, industria, dendak, eraikitzaileak, beste erakunde eta elkarte batzuk...). Horrela, gai honen inguruan udalak egiten duen lan guztiaren berri emango du, baina jakinarazteko ez ezik, antzeko beste eginkizun batzuen aurrean herritarrak sentsibilizatzeko eta hezteko ere bai.

Energia eraginkortasuna dela-eta, hainbat hiritan esperientzia positiboak burutu dituzte, besteak beste, Haga-n (Holanda), Rochefort-en (Frantzia), Saarbrücken-en (Alemania) eta Bartzelonan (Espainia). Esperientzia horiek aztertu eta horien berri ematea ere badago.



4.11. **11.ekintza.** Uraren tarifa erabileren eta kontsumoaren arabera antolatzea



Helburuak

- Etxeetako, industria sektoreko, nekazaritza eta abeltzaintza sektoreetako eta udaleko bertako gehiegizko ur kontsumoa zigortzea eta, aldiz, sektore horiek guztiek ura aurrez dezaten saritzea.
- Ur kontsumoa eraginkorra izatearen beharraz sentsibilizatzea gizarteko sektoreak: herritarrak oro har, industria sektorea (enpresak eta dendak), nekazari-tza eta abeltzaintza sektoreak eta udala bera.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabide berriztagarriak, berriztaezinak eta jarraiak modu eraginkorrean erabiltzea: ura baliabide urria da.
- Udalerriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehieneko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Udalen eskumenetako bat herritarrak edateko uraz hornitzea da. Horretarako, toki administrazioek honako alderdi hauek bermatu behar dituzte:

- Ura biltzea.
- Ura garraiatzea.
- Ura edateko modukoa bihurtzea.
- Ura erabiltzaileengana iristaraztea.

Euskal Autonomia Erkidegoko egoera meteorologiko berezia dela eta, uraren horniketa ia erabat ziurtatuta dagoelako ustea dago zabaldua; alegia, ura baliabide urria ez delako ideia dago hedatuta.

Usteak uste, baina, ura baliabide urria dugu, eta gaur egungo gehiegizko kontsumoaren ondorioz, gero eta urriagoa, gainera. Modu jasangarrian erabili beharreko baliabidea dugu, beraz, eta horretaz gain, hor dugu beste hainbat eta hainbat lekuri erakutsi beharreko Elkartasuna. Hori horrela, behar-beharrezkoa da uraren kontsumoaren eraginkortasunerako sistemak eta ura aurrezteko sistemak sustatzea, batetik, eta isuritako erabilitako uren kalitatea gero berrito erabiltzeko modukoa izan dadin bermatzea, bestetik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurunea Babesteko 3/1998 Lege Orokorrak xeda-



tu bezala, hauxe dugu ura eta itsasertza babesteko irizpideetako bat:

“Ura egungo uraren kalitatea hobetzeko moduan eta ur kopurua handiagotzeko moduan erabiliko dela bermatzea, eta horretarako, ura aurrez dadin sustatzea, kontsumo erabilera guztietan eraginkortasuna handiagotzea eta ura xahu dadin ekiditea”.

Helburua, beraz, euskal udalerrietan ura aurrez dadin eta modu jasangarrian erabil dadin sustatzea da. Eta hauxe proposatzen diegu ur horniketa kudeatzen dutenei –Udalei, Mankomunitateei edo Partzuergoei– helburu hori lortzeko: uraren kontsumo kopuruaren eta erabilera motaren (etxekoa, industrial, udalak berak erabiltzekoa edo/eta nekazaritza edo abeltzaintzakoa) araberako tarifa sistema antolatzea.

Baina ez dugu edonolako tarifa sistema proposatzen, tarifa sistema mailakatua baizik, hau da, ur kontsumoa handiagotzen den heinean kontsumoari ezarritako zerga gero eta handiagoa izatea proposatzen dugu,

baina beti ere erabiltzaile ugariako etxebizitzetan aldeko zuzenketa eginez. Izan ere, tarifa sistema finkoak eta kontsumoarekiko menpekotasunik gabekoak ez baitu ura aurrezte bultzatzen, kontrakoa baizik: ura inolako ardurarik gabe kontsumitzea sustatuko luke.

Proposatutako ekintza horretaz gain, hona hemen uraren kontsumoa aurrezteko ezar daitezkeen beste neurri eraginkor batzuk:

- Udal eraikin eta instalazioetan ura aurrezteko neurriak hartzea: tenporizadoreak ipini, elementu zaharkituak aztertu...
- Berdeguneak edo/eta nekazaritza soroak ureztatzeko, araztegietan garbitutako hirugarren tratamendua jasotzen duen ura erabiltzea.
- Udalerriko lorategi eta parkeetan tantaz tanta ureztatzeko sistemak edo antzekoak ipintzea.
- Ura kontsumitzen duten enpresa eta lantegi handiek zirkuitu itxien bidez ura berriro erabiltzeko sistemak jar ditzaten bultzatzea.



Parte hartzen duten agenteak

- Uren udal zerbitzua eta udal enpresa kudeatzailea.
- Eskumena duten Udalaz gaindiko erakundeak: mankomunitateak.
- Ur partzuergoak.



Zailtasunak

Litekeena da uraren prezioaren tarifa mailakatua ez izatea asko eta askoren gustuko, ondorio kaltegarriak izango baititu ura kontsumitzen duten enpresa, denda eta etxe askotan.

Hasiera batean, tarifa mailakatuak kalte egiten die erabiltzaile askoko etxebizitzetara eta, beraz, arestian esan bezala, uraren tarifa horrelako etxebizitzetara alde zuzentzeko neurriak hartu behar dira, nahiz eta horrek administrazio arazoak eragin.

Komunikazioa

Uraren tarifa mailakatuak ahalik eta onarpen handiena eta ahalik eta ondorio ekonomiko txikiena izan dezan, tarifa ezarri baino lehen heziketa eta komunikazio kanpainak egin ditzake udalak. Aipatu kanpainen helburuak honako hauek lirateke:

- Neurriaren eragina jasango dutenei –enpresariei, dendariei, nekazariei eta abeltzainei eta, oro har, herritarrei– uraren prezioaren tarifa berriaren berri ematea
- Tarifa sistema berriarekin zein helburu lortu nahi diren jakinaraztea: gehiegizko ur kontsumoa zigortzea eta denok ura aurreztu eta zentzuz erabil dezagun sustatzea.
- Tarifa berriak kontsumitzaile handien eta txikien gain duen eragina alderatzea eta aztertzea.



4.12. 12. ekintza. Udal eraikin, instalazio eta zerbitzuetan ur kontsumoaren eraginkortasunerako irizpideak ezartzea



Helburuak

- Udal erabileretan uraren kontsumoa optimizatzea.
- Udalak zenbat ur kontsumitzen duen eta non jakitea.
- Ur horniketarako sarean zenbat ur galtzen den jakitea.
- Uraren gehiegizko ustiapena saihestea.
- Uraren udal kudeaketa hobetzea.
- Udala bera eredu izan eta, horrela, udalerriko gainerako ur kontsumitzaileak sentsibilizatzea.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabide berriztagarriak, berriztaezinak eta jarraiak modu eraginkorrean erabiltzea: ura baliabide urria da.
- Udalerraren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehienezko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Udal eraikin, instalazio eta zerbitzuetan ur kontsumoaren eraginkortasunerako irizpideak ezarriko ditu Udalak, uraren udal kudeaketa hobetzeko, batetik, eta herritarrek ura zentzuz kontsumitu beharraz sentsibilizatzeko, bestetik.

Ur asko kontsumitzen du udalak berak udal eskumeneko jarduerak burutzerakoan: bi-deak garbitu, parkeak eta lorategiak ureztatu, udalerriko azpiegiturak eta instalazioak hornitu (igerileku publikoak, kiroldegia, udalerriko iturriak...), ur horniketarako sarea bera hornitu eta abar. Zerrenda luzea, benetan. Baina udalerrri asko eta askotan udalak ez du zerrenda luze horretako jardueretan zenbat ur kontsumitzen den egiaztatzen; ez daki, beraz, udalaren beraren ur kontsumoa zenbatekoa den ere.

Hori horrela, eta udalaren beraren ur kontsumoa optimizatzeko eta hobetzeko asmoz, honako proposamen hauek luzatzen dizkizuegu:

- Ur horniketarako sarean zenbat ur galtzen den jakitea eta kopuru hori txikiagotzeko hartu beharreko neurriak hartzea, adibidez, horniketa sarea behar bezala egon dadineko mantentze lanak egitea (bai gerta



daitezkeen kalteei aurrea hartzeko, bai kalteak berak konpontzeko ere), aldian behin berrikusi eta kontrolatzea...

- Udal erabilerarako ur bilketarako gune guztietan ur kontagailuak jarzea.
- Udal eraikinetan ura aurrezteko sistemak jarzea eta neurriak hartzea, adibidez, instalazioetako elementu zaharkituak edo akastunak aldatzea eta konpontzea (ura gal dadin ekiditeko), tenporizadoreak ipintzea...
- Udal zerbitzuetako enpresa emakidadunek (hala nola, garbiketa zerbitzukoek, parkeak eta lorategiak ureztatzekoek, kirol instalazioetako emakidadunek...) ura zentzuz erabiltzeko jarraitu beharreko arauak edo ohiturak onak ezartzea.

- Zenbat ur kontsumitzen den jakitea eta uraren kontsumoa informatizatzea, udalerrian ura zentzuz kontsumitzen den jakin ahal izateko eta baliosteko.
- Aldizka Udalaren ur erabilerari eta kudeaketari buruzko auditoria egitea.

Ura baliabide urria da eta ez dugu inolaz ere bermatuta beti eta nahi adina izango dugunik. Horretaz jabetu beharra dugu denok, bai herri agintariok, bai kontsumitzaile pribatuok ere (industria sektorekoek, nekazariak, oro har herritarrek...). Eta horretarako, kontsumitzaile pribatuak sentsibilizatzeko eta, gainera, ura zentzuz erabiltzeko duten konpromisoa har dezaten, ezinbestekoa da toki agintariak beste ezer baino lehen ura modu jasangarrian kudeatzea epe labur eta ertainean.

Parte hartzen duten agenteak

- Uren udal zerbitzua eta udaleko enpresa kudeatzailea.
- Udalerriko beste zerbitzu batzuk.
- Eskumena duten Udalaz gaindiko erakundeak: mankomunitateak.
- Uren Partzuergoa.
- Udaleko zerbitzu eta instalazioen enpresa emakidadunak.

Zailtasunak

Ura zentzuz erabil dadin lortzeko, kontsumitzaile guzti-guztiak sentsibilizatu eta motibatu behar dira. Horixe da erronka nagusia. Ezinbestekoa da denak laguntzeko prest egotea, azken batean beraiek izango baitira ura zentzuz erabil dadin lortzeko proposatutako neurriak arrakasta izatearen eragile.



Horretaz gain, neurri horiek mantentze kostu handiak eragingo dituzte, batez ere udalerri txikietan, eta Udalak bere gain hartu beharko ditu kostu horiek.



Komunikazioa

Ura modu eraginkorren erabiltzeari buruzko kanpaina egingo du Udalak, udaletxeko bertako langileei nahiz enpresa emakidadunei zuzenduta. Horretarako, uraren zikloaren azterketaz baliatuko da sentsibilizazio eta heziketa bitarteko gisa, eta ohitura onen kodea ezarriko du, gainera.

Beste udalerri eta hiri batzuetan lortutako emaitzen berri ere eman dezake, hala nola ondorengoetan lortutakoez: Alacanten, Kalifornian (Estatu Batuak), Lurmutur Hirian (Hegoafrika)...

Bestalde, auditoriaren emaitzak jakinaraziko dizkie herritarrei, eta udalerrian uraren kontsumoak zein bilakaera izan duen eta zenbat ur aurreztu den aztertuko du.



4.13. 13. ekintza. Neurrizko zirkulazioko guneak eta ingurumen guneak eratzea udalerrian



Helburuak

- Hiri espazioaren erabilera oinezkoen ematea lehentasuna, ibilgailu pribatuaren kaltetan.
- Herritarren arteko harremanetarako guneak sortzea.
- Udalerrian ibilgailu pribatuaren gehiegizko erabilera eragozteko.
- Udalerriko ingurumena hobetzea: airearen poluzioa, soinu kutsadura...
- Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea udalerrian.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabide berriztagarriak, berriztaezinak eta jarraiak modu eraginkorrean erabiltzea.
- Udallerriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehieneko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Lurzorua modu jasangarrian erabiltzea.
- Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
- Oinarrizko zerbitzuak eskuragarriak izatea: osasun arloa.
- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.

- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Azken urteotan pixkanaka-pixkanaka ikaragarri hazi da, oro har, bide sarera eta aparkalekuetara zuzendutako hiri espazioa. Hor dugu, muturreko adibide gisa, Los Angeles hiria: hiri espazioaren %70 bide sareak eta aparkalekuek hartzen dute.

Udalerri bertako joan-etorrietarako eta, zer esanik ez, udalerri batetik bestera joateko, gero eta gehiago erabiltzen da ibilgailu pribatua. Horrek honako ondorioak eragin ditu, besteak beste:

- Udalerriko airearen poluzioa nahiz soinu kutsadura handiagotzea.
- Bide segurtasuna txikiagotzea.
- Autoak eta auto pilaketek eragindako tentsioa eta estresa gehiagotzea.
- Hiri espazioa handiagotzea, hirikoa ez den espazioaren eta balio ekologiko handiagoko espazioaren kaltetan.
- Bizikidetzarako eta harremanetarako gune publikoak galtzea.
- Ohiturak aldatzea.
- Joan-etorrietarako ematen dugun batez besteko denbora gehiagotzea.

Hori horrela, jasangarria izan nahi duen udalerriak honakoak sustatu beharko lituzke:



- “Herria herritarrei itzuli” esaldia eredu harturik, gizarte kohesioa bultzatuko duten guneak sortzea.
- Herritarrek ingurumen aldetik hain kutsatzaileak ez diren garraiobideak erabiltzea: garraiobide publikoak, tren, bizikleta edo, besterik gabe, oinez ibiltzea.
- Azken batean, oinezkoak alde batetik bestera erraz joateko eskubidea bermatzea eta, aldi berean, ingurumena eta udalerriko herritarren bizitza kalitatea errespetatzea.
- Neurrizko zirkulazio guneak: udalerriko bide sareko gune hauetan ibilgailu pribatuek nahiz garraiobide publikoko ibilgailuek 10 eta 20 km/orduko arteko gehieneko abiadura muga dute. Bide sareko gune horietan, beraz, lehentasuna ohikoaren alderantzizkoa da: oinezkoak dira nagusi eta ibilgailuak bigarren mailan daude.
- Ingurumen guneak: herritarrak, erai-kinak, berdeguneak, bide sarea... denetarik dago gune hauetan, baina autoek eragindako arriskua saihestu eta harremanetarako gunea sortzeak du lehentasuna. Beraz, autoak egon badauden arren, urriak izango dira horrelako guneetan.

Hori guztia lortzeko, udalerrian neurrizko zirkulazioko guneak eta ingurumen guneak eratzea proposatzen dizuegu.



Parte hartzen duten agenteak

- Gaiarekin zerikusia duten Mankomunitateko zerbitzuak edo Udal zerbitzuak: Zirkulazioa, Hirigintza, Ingurumena eta Gizarte Ongizatea.
- Teknikari adituak.



Zailtasunak

Ekintza hau aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa da udalerriko ordezkari politikoek erabateko babesa ematea, batetik, eta tokiko gobernu taldeak oinezkoen mesedetan zirkulazioa geldiarazteko eta, beraz, bizikidetzarako eta herritarren arteko harremanetarako guneak sortzeko apustu irmoa egitea, bestetik.

Bestalde, behar-beharrezkoa da, halaber, gaiarekin zerikusia duten udal zerbitzuetako teknikarien arteko lana koordinatzea: Zirkulazioa, Hirigintza, Ingurumena eta Gizarte Ongizatea.



Baina ezin ahaz daitezke proposatutako ekintza honek alboko bideetan izan ditzakeen eraginak eta ondorioak, eta aztertu egin beharko dira, beraz, auto pilaketarik gerta ez dadin.



Komunikazioa

Beste udalerri batzuetan burututako antzeko ekintzak aztertzea lagungarri izan daiteke, esperimentziaren bidez eskuratutako hainbat eta hainbat ezagutzaren berri izango baitu horrela udalak eta, beraz, proposatutako ekintza hobeto antolatu eta ezarri ahal izango baitu. Hona hemen antzeko ekintzak aurrera eraman eta emaitza onak izan dituzten zenbait herri: Bremen (Alemania), La Haya (Herbehereak), Aalborg (Danimarka) eta Trondheim (Norvegia).

Funtsezkoa da ekintza honekin zein helburu lortu nahi diren eta zein udalerri eredu ezarri nahi den jakinaraztea, herritarrak proposatutako neurrien alde egon daitezten. Horretarako, beraz, ondorengo hauei zuzendutako informazio kanpaina bati ekingo dio udalak ezer baino lehen:

- Gaiarekin zerikusia duten zerbitzuetako udal teknikariak.
- Neurrien eraginak zuzenak jasango dituzten lanbideetako herritarrak: taxi gidariak, udalerri barruko garraiolariak, banatzaileak, gidariak...
- Komunikabideak.
- Herritarrak, oro har.

Bestalde, gainera, herritar talde ugari jasoko ditu ekintza honen onurak, adibidez:

- Oinezkoek (gutxi gorabehera Euskal Autonomia Erkidegoko hirietako joan-etorrien %56²²).
- Sortutako ingurumen guneetako biztanleak.
- Oro har, herritar guztiek.

²² Hiri Behatokia, Informazio Sistemen Saileko Ikerketa Zerbitzuak egindako "Gasteizko erretratua" txostenetik hartutako datua. Gasteizko Udal Aldizkariaren 100. alean argitaratua, 1997ko abenduaren 20an. Bizkaiko Garraiobide Partzuegoak egindako "Bizkaiko mugigaitasunaren azterketa. 1998" txostenak dioenaren arabera, Bizkaian oinez egiten diren joan-etorriak guztizkoaren %44,5 dira, batez beste.



4.14. **14. ekintza.** Oinezkoentzako guneak gehiagotzea eta bizikleta gehiago erabil dadin sustatzea, horretarako behar bezalako sarea sortuz



Helburuak

- Hiri espazioaren erabileran oinezkoei ematea lehentasuna.
- Bizikleta gehiago erabil dadin sustatzea, garraiobide jasangarria den aldetik.
- Herritarren arteko harremanetarako guneak sortzea.
- Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea udalerrian.
- Oinezkoen nahiz bizikletarien bide segurtasuna bermatzea.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabide berriztagarriak, berriztaezinak eta jarraiak modu eraginkorrean erabiltzea.
- Udalerriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehienezko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Lurzorua modu jasangarrian erabiltzea.
- Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

“Hiri ingurumenari buruzko liburu berdea”
²³ txostenak dioen bezala:

Kaleak antolatzerakoan autoen zirkulazioa ahalik eta eraginkorren izan dadin baino ez da kontuan hartzen, eta hala-beharraren esku uzten dira oinezkoak. Antolaketa ekuazio horiek egiterakoan, alabaina, oinezkoak barne hartu egin behar dira, baina ez oinezkoentzako gune berezietan sartu beharreko espezie mehatxatu gisa, hiri eta herrien erabiltzaile nagusi gisa baizik.

Bizikletei dagokienez, berriz, hauxe dio txosten horrek berak:

Ibilgailu guztien artean bizikleta da, ezbairik gabe, “ekologikoena”. Baina herri gutxitan egin da bizikleta garraiobiderako estrategia orokorrean sartzeko ganorazko saiorik. Eta oso bestelako egoera dugu egiaz: hirietako egungo ibilgailu zirkulazioak bizikletaz ibiltzeko gogoa kentzen du, kutsadura eta segurtasunerako arriskuak direla eta.

Herrietan bertan herritarrak oinez edo bizikletaz ibil daitezen sustatzeko, bai eta herritarren arteko harremanetarako guneak sor daitezen bultzatzeko ere, ondorengo bi proposamen hauek luzatzen dizkizuegu:

²³ Hiri ingurumenari buruzko liburu berdea, COM(90) 218 amaiera. Brusela, 1990eko uztailak 26.



- Udalerriko hainbat gune oinezkoentzat bihurtzea.
- Herritarrak bizikletaz ibil daitezen behar bezalako sarea sortzea.
- **Udalerria oinezkoentzat egiteko planean** honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:
 - Ez da utziko ibilgailu motordunetan ibiltzen, zamalanetarako guneetan izan ezik.
 - Zoladura aldatu egingo da, oinezkoentzat egindako guneak zein diren antzeman dadin.
 - Oinezkoentzako ibilbideak edo elkarren artean lotutako pasealekuak sortzea bultzatuko da, ibilaldiak egiteko aukera bermatuta egon dadin.
 - Hirigunean ez ezik, udalerriko auzoetan ere sortuko dira oinezkoentzako guneak.
 - Oinezkoentzako guneen eta bide sarearen arteko elkargunean oinezkoek izango dute lehentasuna.
 - Oinezkoentzat egindako guneak hiri altzari egokiekin prestatuko dira: bankuak, zakarrontziak, jardinerak...
- **Garraiobide gisa bizikleta sustatzeko planean** ondorengo alderdi hauek zehaztuko dira, gutxienez:
 - Hainbat ibilbide egingo dira

udalerrian, bizikletaz ibiltzeko aukera bermatuta egon dadin. Bizikleta sustatzeko planak, beraz, bizikletaz egin ahal izateko ibilbide osoak sortzea sustatu behar du.

- Bizikletentzako bideei dagokienez, hiru motatakoak diseinatuko dira:
 - Udalerriko osoa lotzen duen bidea.
 - Auzoak lotzen dituzten bideak.
 - Elkarguneak.

Hiru bide motek ezaugarri ezberdinak dituzte, mota bakoitzetik igarotzen den bizikleta kopuruaren arabera, batetik, eta bide mota bakoitza egiten ematen den denboraren arabera, bestetik:

- Nolako bidea egin ere erabaki behar da eta, jakina, udalerrirako egokiena dena aukeratuko da. Beste udalerriko batzuetako esperientzia ikusita, bide sarean bertan kokatutakoak dirudite interesgarrienak. Bizikleta bidea deritze horrelakoei: galtzadan bertan daude, baina ibilgailuentzako bideetatik babestuta.²⁴
- Bizikletentzako bideetan semaforoak, bide seinaleak, bideak babestekoak eta abar jarriko dira eta, bestalde, bizikletak uzteko leku seguruak eratuko dira.
- Bizikletariak udalerriko kaleetan seguru ibiltzeko neurriak hartuko dira.

²⁴ Espalioetan kokatutako bizikleta-bideei espalio bidea deritze.



Parte hartzen duten agenteak

- Gaiarekin zerikusia duten Mankomunitateko zerbitzuak edo Udal zerbitzuak: Zirkulazioa, Hirigintza, Ingurumena eta Gizarte Ongizatea.
- Oinezkoentzat egin diren guneeetako dendariak eta herritar taldeak.
- Udalerriko bizikletari taldeak.
- Teknikari adituak.



Zailtasunak

Oinezkoentzat egin diren guneeetako dendariak ekintza horren aurka egon izan dira orain arte, euren esanetan ibilgailu pribatuak erabiltzen dituztenei zailtasunak jartzen baitzaizkie gunehorietara jotzeko. Gaur egun, alabaina, horrelako ekintzekiko errezeloak gero eta txikiagoak dira, orain arteko esperientziek egiaztatu dutenez udalerriko hainbat gunehorietara egiteak ez baitu leku horietako salerosketan eragin kaltegarriarik sortzen eta, aitzitik, bultzatu egiten baitu, gehienetan.

Bestalde, eta bizikleta erabiltzea sustatzeko planari dagokionez, funtsezkoa da ordezkari politikoen babesa izatea ekimena aurrera eraman ahal izateko, arestian esan bezala bizikletentzako bideak egiteak ibilgailu pribatuentzako bide espazioa murriztea baitakar.



Komunikazioa

Beste udalerririk batzuetan burututako antzeko ekintzak aztertzea lagungarri izan daiteke, esperientziaren bidez eskuratutako hainbat eta hainbat ezagutzaren berri izango baitu horrela udalak eta, beraz, proposatutako ekintza hobeto antolatu eta ezarri ahal izango baitu.

- Azpimarragarria da, benetan, Donostiako udalak 1990etik egindako ahalegina Oinezkoentzako eta bizikletarientzako sareen garapena deritzon eta, berriki, Mugigaitasunari eta Bizikleta Planari buruzko herri hitzarmena delakoan.
- Oraintxe bertan Bizkaiko Foru Aldundiak ere asmo handiko proiektua du esku artean, Bizkaian bizikleta gehiago erabil dadin sustatzeko asmoz.

Oso interesgarriak dira, halaber, Herbehereetako esperientziak. Izan ere, guztira egiten diren joan-etorrien %43 bizikletaz egiten dira, gutxi gorabehera. Delft eta Groningen hiriak ditugu, besteak beste, horren adibide.



Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan bizikleta berriro ere garraiobide izan dadin lortzeko, behar-beharrezkoa da bizikleta sustatzeko planarekin batera beste neurri osagarri batzuk ere hartzea, hala nola:

- Euskal Autonomia Erkidegoan “Bizikletaren eguna” instituzionalizatzea, eta egun horretan bizikleta izatea nagusi udalerrietako errepideetan, ibilgailu pribatuaren kaltetan.
- Udal zerbitzuetako langile eta teknikariek bizikleta erabil dezaten sustatzea eta lanera bizikletaz joan daitezen animatzea.
- “Hiriko bizikletarien” elkarteak sor daitezen sustatzea, udalerrian bizikletaren aldeko ekintzak antola ditzaten.
- Udalerriko enprekin hitzarmenak egitea, bertako langileak bizikleta erabiltzera anima ditzaten.
- Neguan ere bizikleta erabiltzearen aldeko kanpaina bereziak egitea.

Azken batean, bizikletaz ibiltzea modan jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan, txiki nahiz handietan.



4.15. **15. ekintza.** Sustapen ekonomikoa ingurumena erasotzen ez duten jardueretarantz bideratzea



Helburuak

- Ingurumenaren kalitatea bermatzea udalerrian.
- Ingurunea erasotzen ez duten jarduera ekonomikoak sustatzea.
- Ingurumen alderdiak kontuan hartzea udalerriko sistema ekonomikoan.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabide berriztagarriak, berriztaezinak eta jarraiak modu eraginkorrean erabiltzea.
- Udalerraren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehienezko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatuaren bidetik jotzea.
- Soldata zuzeneko lanpostua izan ahal izatea.
- Oinarrizko zerbitzuak eskuragarriak izatea.
- Gizartea zuzenagoa izan dadin lortzea.
- Behar bezalako bizitza kalitatea bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Toki agintarien helburu nagusietako bat udalerrira inbertsioak eta kapital produktiboa erakartzea eta horiek aberastasuna eta lanpostuak sortzea izan ohi da.

Horretarako:

- Sustapen ekonomikorako jarduerak antolatzen eta planifikatzen ditu.
- Hiri lurzoru industrialak gehiagotzen du.
- Sustapen ekonomikoan adituak diren erakunde eta taldeen laguntza bilatzen du.
- Eta, oro har, enpresei ez die inolako oztoporik jartzen bertan kokatzeko, behin jarduera baimenerako behar diren neurri zuzentzaileak ezarri ondoren, udalerraren garapen ekonomikoa lortzearen aldean bigarren mailako helburua baita ingurumena babestea.

Udalerrria jasangarria izateko, alabaina, ezinbestekoa da aberastasuna sortzearen eta ingurumena babestearen arteko oreka bilatzea. Eta helburu hori lortzeko, udalerriko sustapen ekonomikoa ingurumena erasotzen ez duten jardueretarantz bideratzea proposatzen dugu. Horretarako:

- Ingurumen irizpideak ere kontuan izango dituzte toki agintariek udale-



rrian kokatzeko baimena eskatzen duten enpresak balioesterakoan. Hona hemen aintzat hartu beharreko ingurumen irizpide batzuk: energia eraginkortasuna, ura modu eraginkorrean erabiltzea, isurketak, kiratsa, kea, zarata eta hondakinak minimizatzea...

- Teknologia garbiko eta produkzio prozesu ez kutsatzaileko lantegiak kokatzea sustatuko da, bai eta birziklapenera, produktuak balioestera eta horrelakoetara zuzendutako enpresak kokatzea ere.
- Ingurumen Kudeaketarako Sistema ezarrita eta egiaztatuta duten enpresak positiboki baloratuko dira, eta baita eskaera egindakoan ezarrita ez badute ere epe laburreko helburuetako bat aipatu sistema ezartzea duten enpresak.
- Emaizta ekonomikoetan ingurumen kostuak islatzen eta barne hartzen dituzten eta, gainera, ingurumen kon-

tabilitatea ezarrita duten enpresak positiboki baloratuko dira.

Tokiko Agenda 21 ek arrakasta izateko, funtsezkoa da sektore pribatuak ere parte hartzea hura ezartzeko eta garatzeko prozesuan. Alde batetik, Herritarrek parte hartzeko foroko partaideetako bat da eta, bestetik, Tokiko jasangarritasuneranzko prozesuan toki agintarien laguntzaile izan beharko luke, bai langileak gaiarekiko sentikor bihurtzeko kanpainak eginez, bai bere arloari dagozkion neurriak hartuz ere, adibidez:

- Langileak garraiobide kolektiboren batean joan-etorriko direla bermatzea.
- Lantokian segurtasun eta higiene sistemak ezartzea eta ziurtatzea, enpresan ingurumen kudeaketarako sistemak ezartzea eta langileei prozesu horren guztiaren berri ematea.
- Langileak ingurumenarekiko sentikor bihurtzea eta horrelako gaietan prestatzea.



Parte hartzen duten agenteak

- Gaiarekin zerikusia duten Mankomunitateko zerbitzuak edo Udal zerbitzuak: Sustapen ekonomikoa, Enplegua eta Ingurumena.
- Sustapen ekonomikorako erakunde publikoak.
- Udalerriko enpresak eta bertako langileak.
- Enpresarien elkarteak eta Merkataritza eta Industria Ganberak.
- Teknikari adituak.



Zailtasunak

Jada udalerrian bertan dauden enpresek izango dituzte arazo larrienak, aldaketa ugari egin beharko baitituzte lehiakorrangoak izateko: produkzio prozesua egokitu, garbiagoa egin eta ingurumen eskakizun gero eta zorrotzagoak bete.

Komenigarria da, gainera, ekimen hau udalerrri guzti-guztietan eramatea aurrera, hots, sortu nahi duten enpresei exijituko zaizkien irizpideak berberak izatea udalerrri guztietan, dumping ekologikoa* ekiditu ahal izateko.

Zailtasun asko, pentsatuko du batek baino gehiagok. Eta hala da, izan ere. Baina zailtasunak zailtasun, eragin zuzena dute inguruaren hobekuntzan, ingurumen irizpideak politika ekonomiko eta sozialetan kontuan har daitezen eta udalerrriaren beraren irudian.

Komunikazioa

Ekintza hau aurrera eraman eta ezartzeko eta garatzeko, ezinbestekoa da informazioa ematea eta komunikazioa egotea. Hori horrela, hiru mailako komunikazio bideak eratuko dira:

- Udalaren eta enpresen artean. Hasiera batean informazioa trukatzeko bidea baino ez da izango, baina gerora bien arteko lankidetzeta eta elkarlana sortu beharko litzateke bertatik.
- Udalerriko enpresen artean. Izan ere, udalerriko egoerarekin zerikusia duten eragile pribatuak dira eta, beraz, teknologia garbiei, egindako hobekuntzei eta langileekin egindako ekintza programei buruzko informazioa eman beharko lukete
- Enpresen eta langileen artean. Izan ere, eta sarritan ez badirudi ere, helburu bera baitute bi-biek: enpresako egoera hobetzea eta enpresak irautea.

Bestalde, eta aldi-an-aldian, gaiarekin zerikusia duten hainbat arloren berri eman diezaieke Udalak herritarrei herri aldizkariaren bidez: zein enpresa berri dauden udalerrian, zertan ari-zen diren, zein irizpide izan diren kontuan enpresak baloratzerakoan...



4.16. 16. ekintza. Udalerriko jarduerak ikuskatzeko eta kontrolatzeko sistema eratzea



Helburuak

- Ingurumenaren gain eragiten duten udalerriko jarduerak kontrolatzea.
- Udalerriko jarduera horiek ikuskatzea eta kontrolatzea ahalbidetzen eta errazten duen bitarteko informatikoa sortzea.
- Udalerriko jarduera horiei egindako ikuskapenen emaitzen berri ematea, aldian-aldian, herritarrei.
- Jarduera baimenak ematean eskumena duten Ingurumen erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabide berriztagarriak, berriztaezinak eta jarraiak modu eraginkorrean erabiltzea.
- Udalerriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehienezko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea
- Lurzorua modu jasangarrian erabiltzea
- Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
- Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatuaren bidetik jotzea.
- Soldata zuzeneko lanpostua izan ahal izatea.

- Oinarrizko zerbitzuak eskuragarriak izatea.
- Gizartea zuzenagoa izan dadin lortzea
- Behar bezalako bizi kalitatea bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Euskal Autonomia Erkidegoan, industria sektorea BPGren %37 da. Bestalde, eta “Ingurugiroaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. 1998” txostenaren arabera, industria sektorea dugu kutsadura eta hondakin gehien sortu, natur baliabide gehien ustiatu eta energia gehien kontsumitzen duen sektorea. Hori horrela, behar-beharrezkoa da neurriak hartzea: arazoei aurrea hartzeko neurriak, batez ere, baina baita jada badauden arazoak zuzentzeko neurriak ere.

Udalek, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorreko 106. artikuluaaren arabera, udalerrian dauden edo burutzen diren ekintzak, jarduerak, instalazioak, eraikinak eta erabilerak kontrolatzeko, ikuskatzeko eta zaintzeko eskumena dute. Hori horrela, udalerriko jarduerak kontrolatzeko eta horiei segimendua egiteko programa eratzea proposatzen dugu.



Programa horrek ondorengo alderdi hauek izango ditu oinarri:

- Ingurumena kutsa dezaketen udalerriko jarduera guztiak bilduko dituen programa informatikoa eta datu basea sortzea, horrela jarduera baime-nak emateko prozesu guztiak eta ondorengo ikuskapenak kontrolatu ahal izateko. Horretarako, jardueri egindako ikuskapenen eta azterketen emaitzak datu basean sartuko dira aldian-aldian. Izan ere, udal teknikarien kudeaketa lana errazteko moduko bitarteko informatikoa sortzea baita helburua.
- Ingurumenaren gain eragina duten jardueren antolakuntzan eskumena duten erakundeen artean informazioa trukatzeko.
- Udalerriko jarduera guztiak araupe-tzea edo legeztatzea.
- Aldian-aldian udalerriko jarduerak kontrolatzeko ikuskapenak egitea eta, ondoren, eguneratzea.
- Udalek berebiziko garrantzia dute prozesu honetan guztian eta, beraz, tokian tokiko udalak dagozkion egin-kizunak bere gain hartzea.
- Gainera, eta Kutsaduraren Kontrol eta Prebentzio Integraturako irailaren 24ko CE/96/91 Europako Artezta-rauaren arabera -IPPC-, udalerriko jardueri aldian-aldian egindako ikus-kapenen emaitzak eskuratu ahal izango dituzte herritarrek informazio bide zuzenen bidez.



Parte hartzen duten agenteak

- Gaiarekin zerikusia duten Mankomunitateko zerbitzuak edo Udal zerbitzuak: Sustapen ekonomikoa, Hirigintza eta Ingurumena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen erakundea edo tokian tokiko Foru Aldundiko eskumeneko erakundea.
- Udalerriko enpresak.
- Herritarrak, oro har.
- Teknikari adituak.



Zailtasunak

Proposatutako neurria ezartzeko, ezinbestekoa da udalak langileen artean teknikari adituak izatea, ikuskapen lanak egiteko eta datu basea behar bezala kudeatzeko. Baina Euskal Autonomia Erkidegoko udalek giza baliabide urriak izaten dituzte maiz eta behar adinako



eta behar bezalako teknikariak izatea berebiziko erronka izan liteke ekintza hau arrakastaz aurrera eraman ahal izateko.

Bestalde, herritarrek informazio gehiago izan dezaten bideak eratzeak enpresen sekretu profesionala kolokan jar dezake.



Komunikazioa

Funtsezkoa da eskumeneko erakundeen arteko komunikazioa eta koordinazioa ona izatea, udalak esku artean izango duen datu basea eguneratua eta udal kudeaketarako baliagarria izan dadin.

Bestalde, eta baldin eta informazioa benetan eskuragarria bada herritarrentzat, udalak ondo baino hobeto bete beharko ditu dagozkion eginkizunak eta, bestalde, horrek irudi mesedegarria emango dio udalari erakunde kudeatzaile gisa.



4.17. 17. ekintza. Udal merkatuen kudeaketa integrala sustatzea



Helburuak

- Udal merkatuak berrindartzea, batik bat bertako produktuei eta kudeaketa integratuari dagokienez.
- Hornidura azoken udal kudeaketa hobetzea eta merkatu horien kudeaketa jasangarria lortzea.
- Herritarren kontsumo ohituretan eragitea, kontsumo arduratsuagoa lortzeko.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabide berriztagarrien, berriztaezinen eta jarraien erabilera eraginkorra.
- Udalerrriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntitu gabe jasan dezakeen gehienezko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Lurraren erabilera jasangarria.
- Bertako baliabideak eta ekonomia dibertsifikatua erabiltzea.
- Bidezko soldata duen lana lortu ahal izatea.
- Bizi kalitate ona bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarri izatea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

5.000 biztanletik gorako udalerrien esku-menetako bat udal merkatuen kudeaketa da²⁵. Merkatu horien kudeaketa jasangarria lortzeko, beharrezkoa da merkatuak sistema integratuak balira bezala aztertzea.

Merkatuetan ondorengoak izaten dira:

- Baliabideen sarrera: gehienetan elikagai galkorrak, ekoizpen lekutik zuzenean bertara garraiatuak.
- Baliabide naturalen kontsumoa: energia eta ura.
- Harreman pertsonalak eta merkataritza trukeak..
- Hondakinen sorrera: batez ere hondakin organikoak eta bilgarriak.

Merkatua gizarte, ekonomia eta ingurumen aldetik sistema jasangarria izan dadin, garrantzitsua da ondorengo alderdietan eragitea:

- Saltzaileei dagokienez: euren lanean ingurumena kontuan izango dutela ziurtatzeko proposamena eta aurrera eramateko konpromisoa. Merkatuko postuak ematerakoan irizpide hori kontuan izatea.
- Ahal dela, bertako produktuak saltzea. Izan ere, horrela.
 - bertako ekonomia sustatuko da,
 - udalerriko nekazaritza eta

²⁵ 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena.



abeltzaintzaren biziraupena eta garapena bermatuko da.

- bertako baliabideak aprobetxatuko dira, eta.
- produktuaren garraioan energia eta ekonomia eragin txikia izango da.
- Bertako nekazaritzaren eta arrantzaren garapenean laguntzeko plana garatzea, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako "Landa Garapen Jasangarriaren Plana, 2000-2006"ekin bat datorrena.
- Eskaintza dibertsifikatzea, eskaria asetzeko.
- Ingurumen ohitura egokiak ezartzea: instalazioetan energia eraginkortasunerako irizpideak, ur kontsumoaren eraginkortasunekoak, plastikozko poltsen ordez berriz ere erabil daitezkeenak erabiltzea...
- Merkatua elkarbizitzako leku gisa sustatzea.
- Merkatuaren sarbideak hobetzea.

Neurriak jartzerakoan, lehentasuna izango dute oinezkoek eta bizikletaz joaten direnek eta aparkaleku pribatuak jarriko dira ibilgailu pribatuentzat.

- Sortutako hondakinen kudeaketa plana, European nagusi diren ondorengo printzipioetan oinarrituta: murriztu, berrerabili, birziklatu, baloratu eta isuri.
- Merkatua behar bezala egokitzea eta garbitzea.
- Merkatuko dendariak bete beharreko ohitura egokiak sustatzea.
- Merkatua tasa ekologikoen bidez arautzea.

Aurreko hori guztia kontuan izanik, Udalak, erakunde kudeatzailea den neurrian, bete beharreko neurri batzuk proposatuko ditu, merkatuaren kudeaketa jasangarria bultzatzearren. Halaber, kontuan izan behar harko dira azokekin zerikusia duten gainerrako eragileak: ekoizleak, dendariak eta erabiltzaileak.



Parte hartzen duten agenteak

- Zerikusia duten Udaleko edo Mankomunitateko zerbitzuak: Ekonomia Sustapena, Merkataritza, Esku hartzea eta Ingurumena.
- Tokiko ekoizleak.
- Merkatuko dendariak.
- Merkatuaren erabiltzaileak.



Zailtasunak

Udal merkatuaren kudeaketa jasangarria lortzeko prozesuak denboran luze jotzen du, denboran zehar etengabe jarraitu beharrekoa da. Horretarako, ezinbestekoa da proposamenak guttien laguntza izatea, bai politikoena, bai tartean dauden udal Zerbitzuetako teknikoena.

Gaur egun, udal merkatuen lehiakide nagusiak merkataritza gun handiak dira, bai prezioan eta bai kalitatean. Euren merkatu txokoa ezartzeko, udal azokek lehenengo euren berezko ezaugarriak indartu beharko lituzkete, beste merkatuetatik bereizteko.

Merkatua egokitze eta berritzeko beharrezkoa da Udalak eta bertako dendariak inbertsioak egitea. Baina hasieran komenigarria da inbertsio horrek eraginik ez izatea produktuen azken prezioetan. Izan ere, prezioa garestitzeak eragina izan baitezake negozio bolumenean.

Komunikazioa

Komunikazioari dagokionez, ildo hauek landuko dira:

- Komunikazio bideak ezartzea Udalaren eta dendarien artean. Bi eragileek helburu berbera dute: udal merkatuaren biziraupena eta indarpena lortzea, kudeaketa jasangarriaren bidez. Horregatik, merkatura sustatzeko ekintzak diseinatuko eta gauzatuko dituzte elkarrekin.
- Udala, dendariak eta erabiltzaileak elkarrekin biltzea, merkatuaren kudeaketan balizko akatsaei antzemateko eta jendearen beharrak asetuko dituzten neurri berriak proposatzeko. Helburua zera da: udalerriaren barruan merkatura indartzea.
- Kontsumo arduratsua sustatzeko programak diseinatzea eta indarrean jartzea, udalerriko herritarrentzat.



4.18. 18. ekintza. Sektore Batzordeen bidez herritarrek parte har dezaten sustatzea



Helburuak

- Herritarren parte hartzea sustatzea udalerrian.
- Sektore Batzordeak eta/edo parte hartzeko Foroak eratzea, udal gobernuko taldeari aholkuak emateko eta laguntzeko
- Udal politikek lehen baino balio handiagoa izatea, herritarren iritzia ere kontuan hartuko dutelako.



Jasangarritasun irizpideak

- Bizi kalitate ona bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.



Deskribapena

Bai Sektore Batzordea, bai parte hartzeko Foroa herritarrek parte hartzeko mekanismoak dira, baina biak bereizi beharra dago.

Sektore Batzordea udal ekimenaren ondorioz eratutako lan taldea da. Bere helburu nagusia hau da: udalean sektore politikak lantzerakoan eta ezartzerakoan, Udalari aholkuak ematea. Egonkorra eta jarraia da, aldi behingo lan bileretan oinarritua.

Sektore Batzordea ondorengoek osatzen dute:

- Herriko sektore guztietako ordezkariak

- Ordezkarik politikoak eta udal teknikariak
- Udalaz gaindiko erakundeetako ordezkariak

Sektore Batzordearen barne funtzionamendua, eskumenak, osaketa eta abarrekoak herritarren parte hartzea zehazten duen udaleko Araudian dago adierazita.

Herritarrek parte hartzeko Foroa, berriz, aldi baterako lan taldea da eta bere helburu nagusia hau da: Tokiko Agenda 21 definitzeko, ezartzeko eta garatzeko prozesuan jendearen parte hartzea ziurtatzea, metodologia zehatz bati jarraiki.

Foroetan herriko sektore guztiek hartzen dute parte: zuzenean konprometitutako agenteek eta herritar guztiek. Sektore Batzordeetan bezala, Foroan ere garrantzitsua da udalerriko ordezkari politikoak eta udal teknikariak ere barne izatea.

Sektore Batzordearen eta Foroaren desberdintasun nagusia zera da: Sektore Batzordea iraunkorra izatea, mugagabea; Foroa, berriz, mugatua da, helburu nagusi eta argi baten inguruan sortua (Tokiko Agenda 21 egitea eta abian jartzea).

Tokiko Jasangarritasuna lortzeko, ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea, bai Sektore Batzordeen bidez, bai Foroen bidez. Herritarren parte-hartzeak aberastu egiten du udal erabakiak hartzeko prozesua eta gero



udal politiken eragina jasan beharko duten agenteen iritzia ezagutzea ahalbidetzen du. Bi mekanismoak gatazkei aurrea hartzeko eta konpontzeko dira eta oinarri dira udal demokratikoko eredurako.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan, zenbait udalerritan dagoeneko eratu dituzte Sektore Batzordeak eta herritarrek parte hartzeko Foroak.

Bai Sektore Batzordeek eta bai Foroek arrakasta izan dezaten, ezinbestekoa da behar bezala antolatzea eta plangintza egokia egitea. Horretarako, hona hemen neurri batzuk:

- Lan talde espezializatuak eratzea
- Dinamizatzeko teknika egokiak diseinatzea.
- Lan taldeen bilera bakoitza behar bezala planifikatzea.
- Bilera bakoitzaren aurretik dokumentu guztiak eskura izatea.
- Eztabaida aberasteko informazioa erabiltzea.
- Eztabaida sustatzea eta erabakiak hartzerakoan adostasuna bultzatzea.
- Herritarren parte-hartzea ahalbidetzen duten beste esperientzia arrakastatsu batzuk aztertzea, antzeko ekintzak sustatzeko.



Parte hartzen duten agenteak

- Udal ordezkari politikoak.
- Udalez gaindiko erakundeetako ordezkariak.
- Udal talde teknikoak.
- Udalerriko gizarteko eta ekonomiako agenteak.
- Herritarrak.
- Talde dinamizatzailea.
- Idazkaritza teknikoak.
- Moderatzailea.



Zailtasunak

Prozesu nahikoa berria da eta oraindik ez dago behar bezala errotuta. Horren ondorioz, udal agintariak eta gizarte zibilak ez daukate behar besteko esperientziarik parte hartzeko prozesuetan, eta, azkenean, horrek eragina dauka prozesuaren arintasunean. Oraingoan, behintzat, agenteen eta oro har herritarren parte hartzea nahikoa eskasa da.



Batzuetan, berriz, Sektore Batzordea eta/edo Foroa partziala izan ohi da. Izan ere, parte-hartze hori manipulatu egiten baitute zenbait lagun edo taldek (batzuetan herritarren mugimenduek; beste batzuetan udal agintariak, udal politikak justifikatzeko).

Komunikazioa

Oro har, Sektore Batzordean edo Foroan parte hartzeko deia idatziz egiten du tokiko agintaritzak.

Alabaina, tokiko agintariak arduraz gehiago izan beharko lukete herritarrei parte hartzera deitzerakoan. Horretarako, beste bide batzuk ere aztertu beharko lirateke, ahal izanez gero eraginkorragoak, adibidez, parte har lezaketan agenteekin elkarriketatzea edo bilerak egitea.

Parte hartzea sustatzeko, herritarrak bultzatu egin beharko genituzke euren ekarpen pertsonalak egin ditzaten, bai ideiak, bai kritikak, bai informazioak eta bai iritziak. Horretarako, zenbait mekanismo ezar genitzake:

- Herritarrei inkestak egitea.
- Iradokizunak jasotzeko postontziak jartzea, bai fisikoak, bai elektronikoak.
- Idatziren bat sartzeko udal aldizkarietan edo udaleko doaneko beste argitalpenen batean.
- Prentsaurrekoa.



4.19. 19. ekintza. Udalerriko eragile ekonomikoekin lan talde bat sortu eta dinamizatzea



Helburuak

- Eragile ekonomikoen* parte-hartze aktiboa sustatzea, udalerraren garapen jasangarri orekatua eta integrala definitzeko eta kudeatzeko.
- Eragile ekonomikoak sentsibilizatzea eta trebatzea, batez ere Tokiko Jasangarritasunean eta merkatuan eragiten dituen lehia abantailetan.
- Eragile ekonomiko batzuek dagoeneko hartu dute parte hainbat udalerritako Tokiko Agenda 21en garapenean: esperientzia horien berri izatea.
- Eragile ekonomikoak konprometitzea eta dagokien erantzukizuna harraraztea, udalerriko Tokiko Ekintza Plana ezarriz.
- Udalaren eta udalerriko eragile ekonomikoen artean etengabeko lankidetzaz ezartzea.
- Mugitzeko ahalmena eta sarbidea bermatzea.
- Bertako baliabideak eta ekonomia dibertsifikatua erabiltzea.
- Bidezko soldata duen lana lortu ahal izatea.
- Oinarrizko zerbitzuak lortu ahal izatea
- Gizarte zuzentasuna eta justizia areagotzea.
- Bizi kalitate ona bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarri izatea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Eragile ekonomikoen eginkizuna funtsezkoa da udalerraren Tokiko Jasangarritasuna lortzeko. Izan ere, eragile ekonomikoek:



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabide berriztagarrien, berriztaezinen eta jarraien erabilera eraginkorra
- Udalerraren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehieneko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Lurraren erabilera jasangarria.
- Enplegua sortzen dute eta, beraz, aberastasuna ekartzen diote udalerrari. Tokiko ekonomiaren dinamizatzailerak dira.
- Kapital naturala kontsumitzen dute, hots, baliabide naturalak: ura, energia, materialak...
- Hondakin industrialak sortzen dituzte.
- Iritzi publikoa sortzen dute.

Eragile ekonomikoen jarduerak eragin handia daukate udalerriko garapen ekonomikoan, baina baita ingurumen eta gizarte



garapenean ere. Horregatik, garrantzitsua eta beharrezkoa da eragile horiek Tokiko Agenda 21en ezarpenean eta garapenean parte hartzea, lanerako eta eztabaidarako talde bat eratuz eta dinamizatuz. Horrela, Tokiko Agenda 21ek, Udal Egiturazko Plana –Udala kudeatzaile nagusi duena– izateaz gain, udalerriko sektore ekonomikoaren laguntza eta parte hartzea ere izan behar ditu.

Tokiko Agenda 21en barruan, Udalak eragile ekonomikoei deituko die berariazko lan taldea sor dezaten. Talde horrek udalerriaren etorkizuna aztertu beharko du, ikuspegi ekonomiko eta jasangarritik begiratuta, ingurua errespetatuko duen eta gizarte aldetik bidezkoa izango den etorkizuneko herria lortzearen. Talde horren ekarpenekin batera, eragile ekonomikoek eurek ere konpromisoa hartu eta hainbat hobekuntza proposamen egin beharko dituzte, besteak beste, honelakoak:

- Ekologia industrialak* lantzea eta udalerrian ekologia hori ezartzeko aurrerak aztertzea.
- Enpresa sektorean kanpo efektuak* barneratzea: ingurumen kontabilitatea.
- Ekoeraginkortasuna* baliabide naturalen kontsumoan.
- Industrietan ingurumen aurrekontuak egitea.
- Ingurumen kudeaketarako sistemak

ezartzea.

- Ekoizpen garbia.*
- Indarrean dagoen ingurumen araudiaren egokitzapena.

Laburbilduz, eta lehen ekintza gisa, zera proposatzen da: udalerrian eragile ekonomikoen lan taldea indartzea, ondorengoak helburuak lortzeko:

- Lotura ezartzea: Udaleko Tokiko Agenda 21 prozesuaren eta alor ekonomikoak Tokiko Jasangarritasuna lortzearen egiten dituen ekarpen, proposamen eta ekimenen artean.
- Trebatzea eta sakontzea: ekonomia, ingurumen eta gizarte alorraren integrazioan.
- Eztabaida sustatzea eta ekimen eta egitasmo jasangarriak sortzea.

Europako udalerri askotan sartu dira eragile ekonomikoak Tokiko Agenda 21eko prozesuan, indarrean dagoen integrazio printzipioa eraginkorki gauzatzeko. Berezi ki aipagarriak dira adibide hauek: Bremen-eko ekimena (Alemania), Canterbury-ko (Britainia Handia) “Negozioarentzat ona, ingurumenarentzat ona” egitasmoa, Berlin-eko (Alemania) “Hiriko enpresa txiki eta ertainen ingurumen hobekuntza programa” eta Britainia Handiko Coventry eta Warwick



eko esperientziak.

Parte hartzen duten agenteak

- Udalerriko eragile ekonomikoak.
- Enpresaburu eta dendarien elkarte eta taldeak.
- Udala.



Zailtasunak

Hasieran, behintzat, Udalak izan behar du ekintza honen bultzatzaile nagusia eta gainditu beharreko lehen erronka udalerriko eragile ekonomikoek parte har dezaten motibatzea izango da. Horretarako, nahi izanez gero, adituren batengana edo antzeko prozesuren batean esku hartu duen norbaitengana jo dezakegu, eragile ekonomikoak parte hartzeko treba, motiba eta bultza ditzan.

Bigarren erronka, berriz, zera da: oso zaila dela uztartzea udalerriko ingurumen eta gizarte alderdiak garapen ekonomikoarekin. Arlo honetan etengabeko aurrerapenak gertatzen ari dira Euskadin, baina oraindik ere balio edo garrantzi handiagoa ematen zaie irizpide ekonomikoei ingurumen eta gizarte irizpideei baino. Lagungarria izan daiteke beste esperientzia batzuk eta udalerrian parte hartzen duten eragileen esperientziak aztertzea.

Azkenik, komenigarria da lan taldeko kideen planifikazioa eta ardura zorrotzak eta erabatekoak izatea, arazorik sor ez dadin.



Komunikazioa

Komunikazioa, bi mailatan landuko da:

- Barnekoa: lan taldeko eragile guztien artekoa, barne eraketarako eta kudeaketa eragingarrirako.
- Kanpoko: lan taldean izandako lorpen, ekarpen eta ekimenak ezagutarazteko, beste eragile batzuek ere parte har dezaten.



4.20. 20. ekintza. Ingurumen heziketako kanpaina egitea udalerrian: Tokiko Agenda 21 ikastetxeetan



Helburuak

- Udalerriko gazteak Tokiko Jasangarritasunean hezte eta trebatzea, Tokiko Agenda 21 prozesua ezagutaraziz eta parte hartzera bultzatuz.
- Helburutzat dugun jendearengan (hau da, 15-16 urteko gazteak, derrigorrez eskolan ibiltzeko adinekoen artean) eztabaida eta adostasuna sustatzea.
- Gazteak Udalera eta demokrazia parte hartzailera hurbiltzea eta ohitzea.



Jasangarritasun irizpideak

- Baliabide berriztagarrien, berriztaezinen eta jarraien erabilera eraginkorra.
- Udalerriaren karga ahalmena ez gainditzea. Hauxe da karga ahalmena: lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehienezko biztanle kopurua.
- Bioaniztasuna aintzat hartu eta babestea.
- Lurraren erabilera jasangarria.
- Mugitzeko ahalmena eta irisgarritasuna bermatzea.
- Bertako baliabideak eta ekonomia dibertsifikatua erabiltzea.
- Bidezko soldata duen lana lortu ahal izatea.
- Oinarrizko zerbitzuak lortu ahal izatea.
- Gizarte zuzentasuna eta justizia areagotzea.

- Bizi kalitate ona bermatzea.
- Herriarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarri izatea.
- Elkartasuna esparru globalean.



Deskribapena

Udalerrietan egin daitezkeen Tokiko Agenda 21 en eguneroko ohituren adibideak jartzen ditugunean, ingurumen hezkuntzako plan eta kanpaina bereziak jartzen dira. Horrelakoak dira, adibidez, etxeetako hondakinak sorlekuan bereizteko sentsibilizazio kanpainak, nork bere ibilgailua erabili beharrean beste garraiobide batzuk erabiltzearen aldekoak, kontsumo ohiturak hobetzekoak...

Ikastetxeen arloa, ordea, bereziki landu nahi da eta, horregatik, Tokiko Agenda 21 ikastetxeetara hurbiltzea proposatzen da, ingurumen hezkuntzako neurri gisa. Hau da, derrigorrez eskolatzeko adinean dauden herriko gazteekin lan egitea planteatzen da, prozesua ezagutu dezaten eta ondorengo hauekin ohitu daitezen:

- Udalaren eginkizuna: udaleko eguneroko kudeaketa.
- Udalerriko ingurumen, ekonomi eta gizarte errealitatea osatzen duten alor tematiko eta aldagaiak, eta horiek guztiak Udalek eta Tokiko beste



- erakundeek nola kudeatzen dituzten.
- Jasangarritasuna udalerrian: ingurumen, ekonomi eta gizarte arazoetan eragiteko helburu gisa.
- Herritarren parte hartzea Udalean: herritarren, eragile ekonomikoen eta sozialen eta udal gobernuko taldearen arteko komunikazio bidea ezartzeko.
- Udalerriko herritarren eskubidea: informazioa eskuragarri izatea.

Laburbilduz, asmoa zera da: ikasgela barruan ikasleek parte hartzeko Foroa eratu ondoren, gazteen ikuspegitik udalaren errealitatea aztertzeko eta ebaluatzeko lan egitea eta hobetzeko ekintza zehatzak proposatzea. Tokiko Agenda 21 ikastetxera bertara eramatea eta prozesuak udalerrian eman dituen emaitzak gazteen parte-hartzearen ondoren lortutakoekin alderatzea. Labur esanda, udalerria bi ikuspuntutatik aztertzea:

- Biztanle helduak eta udalerrian daukaten eginkizuna.
- Biztanle gazteak, erabiltzaile eta kontsumitzaile gisa.

Metodologiari dagokionez, jarraitu ondorengo pausoei:

- I. Herritarren parte hartzeko Foroan

gazte bakoitzak zein rol izango duen definitzea: udal gobernuko taldekoak, enpresaburuak, gizarte eragileak, gazteak... Irakasleak dinamizatzaileak izango dira.

- II. Ikasgela barruan Foroa eratzea. Foroa: aztertu, eztabaidatu eta gutien adostasunez erabakiak hartzen dituen organo aholkularia.
- III. Foroan eztabaidatzeko beharrezko informazioa lortzea: udal teknikari batek parte har dezala. Datu horiek erraz ulertzeko moduan eman.
- IV. Foroa lan taldeen bidez dinamizatu eta ondorioak atera.

Hona hemen lortu nahi diren emaitza nagusiak:

- Elkarrikeria, eztabaida eta adostasuna sustatzea.
- Udalerriaren ingurumen, ekonomia eta gizartean trebatzea ikasleak, ikuspegi jasangarri eta integratutik begiratuta eta helburutzat dugun jendeak erraz ulertzeko moduan.
- Gazteek udalerria nola ikusten duten jakitea: gabeziak eta izan litekeena, eta gaitasunak edo ahalmena, eta ekintzarako programen proposamena.
- Tokiko Administrazioa ikastetxera hurbiltzea.



Parte hartzen duten agenteak

- Egitasmoan aitzindari diren zinegotzigoak eta udal-zerbitzuak.
- Aukeratutako ikastetxeetako irakasleak.
- Derrigorrez eskolatzeko adinean dauden 15 eta 16 urteko gazteak.
- CEIDAK – Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketerako Ikastegiak.



Zailtasunak

Ekintza proposamen hau aurrera eramateko, garrantzitsua da Udalak berez dagokion aitzindari ardura bere gain hartzea eta Tokiko Agenda 21 (hau da, Tokiko Jasangarritasuna) udalerriko gazteei hurbiltzeko tinko lan egitea.

Horrez gain, beharrezkoa da irakasleak Tokiko Agenda 21ean trebatzea, ikasitakoa ikasgelara eraman eta dinamiza dezaten. Bereziki garrantzitsua da irakasleen laguntza eta motibazioa lortzea, eurak baitira, azken finean, gauzatu beharko dutenak.

Egitasmoan, halaber, beste alderdi batzuek ere eragin handia dute, besteak beste, ikasleek udalerria zenbateraino ezagutzen duten.



Komunikazioa

Udalerriko Tokiko Agenda 21 prozesuan bezala, interesgarria izan liteke gazteek eurek, udalerriko erabiltzaile, kontsumitzaile eta herritar ikuspegitik, egin duten Tokiko Ekintzako Plana eta Diagnostikoa ezagutaraztea. Informazio hori Udalera eta herritarren parte hartzeko Forora bideratuko da eta baliabide erabilgarria izango da barne eztabaidarako eta udal ekintzak egiteko.



4.21. 21. ekintza. Euskal udalerri jasangarrien arteko sarea eratzea



Helburuak

- Tokiko Jasangarritasunaren alde lanean diharduten euskal udalerrien artean esperientzien trukea sustatzea eta komunikazio sistematikoa erraztea.
- Euskal udalerrien trebakuntza tekniko espezializatua indartzea, eztabaidarako lan taldeak sortuz.
- Beste euskal udalerri batzuk Tokiko Agenda 21 prozesuan sar daitezen animatzea.



Jasangarritasun irizpideak

- Bizi kalitate ona bermatzea.
- Herritarrek parte hartzea eta informazioa eskuragarria izatea.



Deskribapena

Ekintza honen xedea zera da: Tokiko Agenda 21ean lanean diharduten euskal udalerrien artean foro bat sortzea, prozesua sendotzeko, eta gune hori eztabaida, koordinazio, lankidetzeta, esperientzia truke eta estrategia zein ekintza berriak diseinatzeko izan dadin. Hannover 2000-ko Deklarazioan hitzez hitz adierazten denez:

“Gu, udal aitzindariok, prest gaude eskualdeko sareak ezartzeko eta garatzeko, garapen jasangarria sustatzearren”

Hona hemen euskal udalerri jasangarrien arteko sareak izan beharko lituzkeen zenbait helburu:

- Tokiko Agenda 21en garapena indartzea, Tokiko Jasangarritasunaren aldeko tokiko politikak ezartzeko tresna izan dadin.
- Estrategia komunak ezartzea, Europako finantzazio iturriak eskuratu ahal izateko.
- Euskal udalerrietan herritarren parte hartzea sustatzeko eta dinamizatzeko estrategia eta ekintza berriak diseinatzea.
- Ikerketa indartzea, batik bat euskal udalerrien arazoei erantzungo dieten ekintza berriak bilatzeko.
- Proposamen berriena eta udal kudeaketa jasangarria hobetzeko aukera sortzeko.
- Plan eta programa komunak garatzeko baliabide eta esperientziak elkarbanatzea.
- Guztien artean komunikazio programak diseinatzea.
- Gaikako dokumentu espezializatuak egitea.
- Gai jakin batzuk lantzeko talde espezializatuak sortzea.



Euskal udalerri jasangarrien arteko Sarearen bultzatzaileak udalerriak eurak izan daitezke, baina baita Udalaz gaindiko erakunde bat edo batzuk ere, eginkizun hori bere edo euren gain hartuz gero. Behin osatutakoan, Sarearen funtzionamendurako berariazko eskema diseinatu beharko da: organo zuzentzaileak, segimendurako batzordea, lan taldeak, idazkaritza teknikoak...

Euskal udalerri jasangarrien arteko Sareak onura nabarmenak ekarriko lituzke; izan ere, kalitate hobekuntza eragingo bailuke Tokiko Agenda 21eko prozesuetan Euskadin, bai udal kudeaketan eta baita erabakiak hartzeko herritarren parte hartzean ere; horrela, Tokiko Jasangarritasuna lortzeko bidean, pauso sendoagoak eta elkartuagoak emango lirateke Euskal Autonomia Erkidegoan.



Parte hartzen duten agenteak

- Tokiko Agenda 21 ezartzeko eta garatzeko lanean diharduten euskal udalerriak
- Udalaz gaindiko beste erakunde batzuk.



Zailtasunak

Gaur egun, zailtasun nagusia Sarearen eraketa bera da, hau da, Sare hori osatzearen eta dinamizatzearen alde zein Erakunde dauden erabakitzea.

Bestalde, Sareko udalerriek denbora eta giza baliabideak eskaini beharko dizkiote, euren parte hartzea eraginkorra izan dadin. Hori neketsua izan liteke zenbait udalerrientzat, batez ere txikienentzat, agian ahalegin handia egin beharko lukete-eta.



Komunikazioa

Sarearen sorrera bultzatu beharra daukaten Erakundeek berariazko komunikazio plana egin beharko dute, Tokiko Agenda 21ean lan egiten duten euskal udalerri guztien parte hartzea eta integrazioa sustatzeko.

Halaber, behin eratu ondoren, Sarearen helburu nagusien artean jardueren berri ematea ere kontuan hartu beharko da. Horretarako, bi plan diseinatuko dira:

- Barne komunikaziorako plana: Sare barruko udalerrientzat.
- Kanpo komunikaziorako plana: instituzioentzat, beste udalerrientzat eta, oro har, jende guztientzat.



Zein da
Tokiko Agenda 21 en
egoera **Euskadin?**

5. Tokiko Agenda 21 Euskadin

5.1. Tokiko agenda 21 Euskadin: hasiera

Bi dira, batez ere, Euskadin Tokiko Agenda 21 en sorreran eragin zuten erreferentziak: Gasteizko eta Urdaibaiko (Biosferaren Erreserbako) esperientzia aitzindariak.

VITORIA-GASTEIZ

1995ean, Gasteiz Aalborg-eko Gutuneko kide egin zen eta hitz eman zuen Gasteizeko Tokiko Agenda 21 diseinatzen, egiten eta ezartzen lan egingo zuela.

Gasteizko Udalak erabaki sendoa hartu zuen eta gogor ekin zion lanari Jasangarritasuna udal politiketan integratzeko. Horrela, Udaleko Ingurumen Ikerketarako Zentroak dinamizatzailerak egin zituen eta Alkatetza aitzindari izan zen egitasmoa gauzatzerakoan. Horri guztiari esker, Gasteizko Tokiko Agenda 21 abian jarri eta sendotu egin ahal izan da.

URDAIBAI

1996an, berriz, Urdaibaiko Tokiko Agenda 21 en prozesua hasi zen. Hasteko, Busturialdea eskualdeko ingurumen, ekonomi eta gizarte Diagnostikoa egin zuten. Hain zuzen ere, hori izan zen Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Jarduera Sozioekonomikoen Bateratze eta Garapen Programako lehen urratsa.

5.2. Euskadin prozesua baldintzatzen eta bultzatzen duten eragileak

Batez ere bi faktorek eragin zuten Tokiko Agenda 21 en ezarpen prozesuak Euskadin aurrera egin zezan:

Trebakuntza eta motibazioa

1997ko urrian, Gasteizko Udalak antolatuta, Jardunaldi Tekniko batzuk izan ziren, *Europako Tokiko Administrazioak Garapen Jasangarrirantz: Ekintzak* izenburupean. Jardunaldi horiei esker, Euskadiko udal agintari eta tekniko askok Tokiko Agenda 21 ezagutu ahal izan zuten, bere inguru teorikoa eta metodologi prozesua, eta baita European izandako zenbait esperientzia interesgarri ere.

Trebakuntza , finantzazioa eta motibazioa

1998ko maiatzean, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren estrategiaren diseinua amaitu zen. Alde batetik, Bakeaz-ekin akordioa lortu ondoren, *Europako Tokiko Agenda 21en Plangintzarako Gida* itzuli eta argitaratu zen.

Bestalde, Dirulaguntza Lerroa onartu zen, Tokiko Agenda 21en barruan Ingurumen Ekin-tzarako Tokiko Planak diseinatzen, garatzen eta gauzatzen zituzten udalentsat eta manko-munitateentzat.

5.3. Tokiko Agenda 21 Euskadin: gertaerarik garrantzitsuenak

1995etik aurrera Euskadin izandako gertaerek eta jarduerak definitzen dute gaur egungo Tokiko Agenda 21en errealitatea. Hona hemen gertaera nagusiak:

Kronologia	Gertaerarik garrantzitsuenak Euskadin
1995	Gasteiz Aalborg-eko Gutuneko kide egin zen.
1996	Busturialdea Eskualdea ren Diagnostikorakoaren I. fa-sea. Tokiko Agenda 21 prozesua hasi zen Urdaibain, Bios-feraren Erreserban. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako “Ekogarapen Programa” praktika ontzat jo zuten Nazio Batuek. Gasteizen hasitako prozesua Lisboako Konferentzian aur-keztu zen, Europako Hiri Jasangarrien Bigarren Konferen-tzian.
1997	“Europako Tokiko Administrazioak Garapen Jasangarri-rantz: ekintzak” Jardunaldi Teknikoak, Gasteizko Udalak antolatuta.

Kronologia	Gertaerarik garrantzitsuenak Euskadin
1998	Eusko Jaurlaritzak Tokiko Agenda 21 Planifikatzeko Europako Gida argitaratu eta zabaldu zuen, euskaraz eta gaztelaniaz. Eusko Jaurlaritza Urteko Dirulaguntza Lerroa ematen hasi zen, Agenda 21en barruan ingurumen ekintzarako tokiko planak diseinatzeko, garatzeko eta/edo gauzatzeko. Ondorengo hiri eta herriak atxiki zitzaizkion Tokiko Agenda 21i: Bilbo, Gernika-Lumo, Santurtzi eta Villabona. “Bilbo Jasangarritasunaren alde” Jardunaldi Teknikoak, Bilboko Udalak antolatuta. Gasteizko Udaltzako Tokiko Agenda 21 onartu zuen, guztien adostasunaz. 1997. urteari zegozkion Gasteizko Jasangarritasun Adierazleak argitaratu ziren. Urdaibai Biosfera Erreserbako jardura sozioekonomikoak bateratzeko eta garatzeko Programa edo Tokiko Agenda 21 onartu zen. 258/1998 Dekretua, irailaren 29koa. Gasteiz, Ingurumenaren Sari Nazionala.
1999	Ondorengo herriak atxiki zitzaizkion Tokiko Agenda 21i Eusko Jaurlaritzaren Urteko Dirulaguntza Lerroaren bidez.: Astigarraga, Donostia, Eibar, Eskoriatza, Getxo, Legazpi, Agurain, Tolosa eta Zestoa. 1998. urteari zegozkion Gasteizko Jasangarritasun Adierazleak argitaratu ziren. Tokiko Agenda 21 kontzeptuaren inguruko sarrera ikastaroa, Azpeitian, 4R Fundazioak antolatua.

Kronologia	Gertaerarik garrantzitsuenak Euskadin
1999	Urdaibai Biosfera Erreserbako jarduera sozioekonomikoak bateratzeko eta garatzeko Programa edo Tokiko Agenda 21 argitaratu zen.
2000	“Bilbo Jasangarria” Jardunaldiak, Bilboko Udalak antolatuta. Bizkaiko Foru Aldundiaren estrategia Tokiko Agenda 21ean, Lurralde Historikoko Udalerrientzat. Urdaibai Biosfera Erreserbako jarduera sozioekonomikoak bateratzeko eta garatzeko Programaren edo Tokiko Agenda 21en Segimendu Batzordea eratu zen. Ondorengo herriak atxiki zitzaizkion Tokiko Agenda 21i Eusko Jaurlaritzaren Urteko Dirulaguntza Lerroaren bidez: Amurrio, Andoain, Arrasate, Asparrena, Arratiako Mankomunitatea, Basauri, Elorrio, Erandio, Goredexola, Hondarribi, Irun, Legutiano, Laudio, Oiarzun, Erreterria, Usurbil eta Zumaia. 1999. urteari zegozkion Gasteizko Jasangarritasun adierazleak argitaratu ziren. Udaltalde 21: Euskadiko 8 udalerritan Tokiko Agenda 21 ezartzeko programa, EUDEL/IHOBek sustatua. Tokiko Agenda 21 Euskadin zenbateraino garatu zen neurtu zuen Eusko Jaurlaritzak . Euskadiko udalerrietan Tokiko Agenda 21 ezartzeko eta garatzeko Gida praktikoa egin zen. EAEko Ingurugiro Estrategiaren Agiria 2000-2012

Tokiko Agenda 21i
buruzko hitzen
glosategia

6. Glosategia

- Agenda 21

Garapen jasangarriko programa orokorra. Ekonomi, gizarte eta kultur gaiak hartzen ditu bere baitan, eta baita ingurumenaren babesari buruzko gaiak ere. 1992an onartu zen, Nazio Batuen Ingurumen eta Garapenari Buruzko Rio de Janeiroko Konferentzian.
- Alor tematikoa

Ingurumen, ekonomi eta gizarte alorrak. Sail horien guztien arteko loturek udalerriko errealitatea osatzen dute.
- Aztarna ekologikoa

Berariazko Jasangarritasun adierazlea da. Populazio jakin baten baliabide kontsumoaren mailari eusteko beharrezkoa den lur azalera islatzen du. Honako galderari erantzuten dio: zenbateko lur azalera produktiboa behar da populazio jakin baten kontsumo mailari eusteko, lur hori eta lur horren baliabideak edonon daudela ere?
- Bioaniztasuna

Biziaren barietatearen neurria. Inguru guztietan, hau da, lehorrean, itsasoan, beste ekosistema urtar batzuetan eta gune ekologikoetan dauden bizidunen aniztasuna. Aniztasun mota desberdinak daude: espezieen baitan, espezieen artean eta ekosistemen artean.
- Brundtland Txostena

“Guztion etorkizuna” ere deitzen zaio. Brundtland andreak, Europako Batasuneko Komisarioak, aurkeztu zuen 1987ko Ingurumen eta Garapeneko Munduko Batzordean. Txosten horretan Garapen Jasangarria terminoa kontzeptualizatu zuen eta guztien adostasuna lortu zuen.
- Diagnostiko integrala

Udalerriko ingurumen, ekonomi eta gizarte errealitatea eza-gutzea, jasangarritasun irizpideen arabera ebaluazioa egitea eta, beraz, alde ahulak eta sendoak hautematea.
- Dumping ekologikoa

Elkarrekin salerosketan dabilzan bi ekonomiak ingurumen kostuak desberdin barneratzea. Araudi permisiboagoa duen herrialdeak abantaila izango du kostuetan, eta hori prezioetan nabarmenduko da. «Dumping ekologiko»aren argudio nagusia zera da, prezioen arteko alde hori desleiala dela

	eta salerosketa distortsionatu egiten duela. Esaten dutenez, azkenean, sarritan, produktuak ekoizpeneko benetako kostuaren azpitik saltzen dira.
•Ekintzarako ildo estrategikoak	Garapen jasangarria lortzeko bidean, hobetzeko eta aurrera egiteko udalerrian kontuan hartu beharreko ardatz nagusiak.
•Ekoeraginkortasuna	Ondorengo premisan oinarritzen da: produktuaren balioa areagotzea eta baliabideen kontsumoa murriztea. Ekoeraginkortasuneko produktu eta zerbitzuak lehiakorak dira prezioan, gizartearen premiak asetzen dituzte eta bizi kalitatea eskaintzeaz gain, pixkanaka ingurumen eraginak eta beren bizi ziklo guztian baliabideen erabilera intentsitatea murrizten dute, harik eta planetak bere egin ahal izan ditzan arte.
•Ekoizpen garbia.	Ekoizpen prozesuan egin beharreko hobekuntzak, hondakinen, hondakin uren eta emisio atmosferikoen sorrera prebenitzeko eta murrizteko, eta baita lehengaien eta energiaren kontsumoa gutxiagotzeko ere.
•Ekologia	Bizidunen eta ingurunearen arteko harremanak aztertzen dituen biologi zientzia.
•Ekologia industrial	Industriarako eta fabrikaziorako ikuspegi berria, produktuen eta prozesuen diseinu industrial eta fabrikaziorako estrategia jasangarri berrien inplementazioa beste era batera ikusteko. Materialen ziklo osoaren optimizazioa du helburu, hasi erabili gabeko lehengaietatik eta berrerabili ezin diren hondakinetara, tartean material prozesatuak, produktuak eta hondakin birziklagarriak direla. Ekologia industrialak materialen harremanak eta fluxua ditu aztergai, ingurumen ekosistemarantz bideratuta eta ingurumen ekosistematik begiratuta.

- Eragile ekonomikoak Udalerriko pertsona fisiko eta/edo juridikoak, udalerriaren garapen ekonomikoan bereziki garrantzitsuak. Ekonomiako alorretan aritzen dira lanean: industrian, nekazaritzan, arrantzan, merkataritzan, eraikuntzan eta/edo zerbitzuetan. Herritarren parte hartzea sustatzeko Foroan esku hartu behar dute.
- Erreusen ehunekoa Bereizitako hondakin guztietatik, behar bezala bereizi ez diren hondakinen kopurua.
- Europako Hiri eta Herri Jasangarrien Bigarren Konferentzia Lisboa, 1996. Mila lagun bildu ziren, Europa guztiko udalerrietako eta eskualdeetako agintarien ordezkariak. "Lisboako Ekintza Plana: Gutunetik Ekintzara" dokumentua landu eta onartu zuten. Agiri horren xede nagusia Aalborg-eko Gutunean finkatutako printzipioak ezartzea eta garatzea da.
- Europako Hiri eta Herri Jasangarrien Hirugarren Konferentzia Hannover, 2000. Tokiko Jasangarritasunaren alde Europan lanean diharduten 1.500 udal agintari eta profesionalen bilera. "Hannover-eko Adierazpena" landu eta onartu zen. Adierazpen horretan, Europako udalerrietan ingurumen, ekonomi eta gizarte politikak integratzeko lan egin beharra nabarmentzen da.
- Europako Hiri eta Herri Jasangarrien Lehenengo Konferentzia Aalborg (Danimarka), 1994. Tokiko Jasangarritasunaren alde lan egiteko hitz eman zuten hiri eta herrien lehen bilera. Konferentzian Aalborg-eko Gutuna ("Europako hiriak jasangarritasunerantz") onartu zuten 80 udalerritako ordezkariak.
- Garapen Jasangarria Garapen mota bat da, neurrikoa: gaur egungo belaunaldien premiak asetzea, baina etorkizuneko belaunaldiak euren premiak asetu ahal izatea arriskuan jarri gabe.
- Giza Garapenaren Adierazlea Nazio Batuen Garapenerako Programak sortutako adierazlea. Gizarte jakin bateko pertsonen bizi kalitatea ebaluatzea edo baloratzea ahalbidetzen du, gizarte irizpide batzuen bidez: hezkuntza maila, berdintasuna, kultur aniztasuna...

•habitata	Animalia edo landare espezie bat edo espezie multzo bat bizi den lekua, ingurumen ezaugarri jakin batzuk (biotikoak zein abiotikoak) dituen.
•Herritarrek parte hartzeko Foroa	Aldi baterako lan taldea. Talde honen helburu nagusia hau da: berariazko metodologiari jarraiki, Tokiko Agenda 21en definizioan, ezarpenean eta garapenean herritarrek parte hartzea. Taldekideak hauek dira: ordezkari politikoak, udaleko talde teknikoak, eragile ekonomikoak, gizarte eragileak eta herritarrak.
• Hiri eta Herri Jasangarrien Europako Kanpaina	Europako erakundea, Europako hiri eta herriek Tokiko Jasangarritasunaren alde lan egin dezaten animatzeko eta laguntzeko sortua. Europako Hiri eta Herri Jasangarrien Lehenengo Konferentzian eratu zen, 1994an. Interneten: http://www.sustainable-cities.org
•ICLEI	Tokiko Ingurumen Ekimenen Nazioarteko Kontseilua. Tokiko agintarien nazioarteko erakunde honek ingurumen hobekuntza zenbakarriak lortzea du helburu, eredu berriak garatuz eta baliabide egokiak erabiliz. Europako Batasunarekin eta Aalborg hiriarekin batera, Europako Hiri eta Herri Jasangarrien Lehen Konferentzia antolatu zuen.
•Ingurumenari buruzko Udal Ordenantza	Xedapenen multzoa. Ordenantza honen bidez Tokiko Erregimenak bat egiten du Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko ordenamendu juridikoarekin, eta sistema bakarra osatzen du, ingurumena kontserbatzeko, babesteko eta kalitatea hobetzeko, pertsonen osasuna babesteko eta baliabideen erabilera zuhurra eta arrazoizkoa lortzeko.
• Ingurumenrako Bosgarren Programa Markoa	1993-2000. Ingurumen eta Garapen Jasangarriari dago-kienez, Politika eta Ekintza ezartzen dituen Batasuneko Bosgarren Programa. Xede nagusia giza jarduera eta garapena era jasangarriagoetara bideratzea da. Horretarako, gaur egun indarrean dauden garapen, ekoizpen, kontsumo eta jokaerako ereduak aldatu beharko lirateke.

• Jasangarritasun Adierazlea	Udalerria zenbateraino jasangarria den ebaluatzeko adierazlea. Tresna honek udal kudeaketa errazten du.
• Jasangarritasun irizpideak	Gizarte jasangarri orok lortu beharreko eszenategi ideala zehazten duten erreferentzi printzipioak. Irizpideon oinarria hau da: ekintzen plangintza integraturako, gizarte orok kon-tuan izan behar ditu inguruaren biziraupena eta begirunea (ingurumen jasangarritasuna), gizarte berdintasuna eta justizia (gizarte jasangarritasuna) eta oreka ekonomikoa (jasangarritasun ekonomikoa).
• Kapital naturala	Lurralde jakin batean dauden baliabide naturalen multzoa (baliabide berriztaezinak, berriztagarriak eta jarraiak).
• Kanpo efektuak	Ondasunen prezioek benetako balioa islatzen ez dutenean, merkatuan eragiten diren disfuntzioak. Ingurumenaren degradazioaren ondorioz eragindako kostuak dira, baina jarduerako kostu ekonomiko gisa hartzen ez direnak. Kostu errealak dira, jarduera batek eragindakoak, baina kontu ekonomikoetan ez dira sartzen edo barneratzen.
• Karga ahalmena	Lurralde batek bertako baliabideak suntsitu gabe jasan dezakeen gehienezko biztanle kopurua. Termino honen esanahia ekologian zehaztuta dago eta neurria adierazten du: kontserbazioa eta aberastasuna galdu gabe, gure bizitza eta gure organizazioak jasan behar dituzten ekosistemek gehienez ere jasan dezaketen presioa.
• Korridore ekologikoa	Udalerrietako hirigunearen inguruan planifikatzen diren inguru natural eta/edo antropikoak. Korridore ekologikoen helburuak hauek dira: flora eta faunarentzat habitat babestua sortzea, gune degradatuak berreskuratzea eta herritarrak inguruarekin harremanetan jar daitezen laguntzea.
• Lurraldeko Toki Erakundeak	7/1985 Legearen arabera, hau da, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen arabera, honakoak dira: Udalerria, Probintzia (Balearretan eta Kanarietan, berriz,

	Uharte), Autonomia Erkidegoek ezartzen edo onartzen dituzten udalerriaren azpiko erakundeak, Eskualdeak, Metropoli Barrutiak eta Udalerrien Mankomunitateak.
• Sistema	Elkarri lotutako ingurumen, ekonomi eta gizarte aldagaiak.
• Subsidiaritatea	Erabakiak hartzerakoan, ahal dela kontuan izan behar dira zuzenean kaltetutako pertsonak. Premisa honetan dago oinarrituta: "Erabakiak herritarrengandik ahalik eta gertuen hartuko dira, herritarrek kontuan izanik".
• Tokiko Agenda 21	Udaleko Egiturazko Plana. Ingurumen, ekonomi eta gizarte politikak integratzean datza, beti ere jasangarritasun irizpideak kontuan izanik. Planaren ezarpenean hainbat lagunek hartu behar dute parte, erabakiak adostuz; besteak beste, ordezkari politikoek, udal teknikariek, eragile ekonomikoek, gizarte eragileek eta herritarrek.
• Tokiko Agenda 21 Adierazpena	Tokiko Ekintzarako Plana laburtzen duen dokumentua. Udal gobernua Tokiko Jasangarritasunarekiko daukan beraritzako konpromisoa islatzen du.
• Tokiko Ekintzarako Plana	Dokumentu osoa, jasangarritasuna lortzeko bidean, epe labur, ertain eta luzean udalerrian gauzatu beharreko ekintza programak edo ekintza multzoak biltzen dituena.
• Tokiko Jasangarritasuna	Tokiko Agenda 21 prozesuaren oinarri teorikoa. Garapena esan nahi du, baina herritarren bizi kalitatea hobetzeko, beti ere kapital naturalarekin eta tokiko ahalmen ekonomikoekin orekan.
• Zuzendaritza Batzordea	Udaleko barne organoa, Tokiko Agenda 21 udalerrian arin eta behar bezala ezartzeaz arduratzen dena. Batzordean ondorengoak elkartzen dira: Udaleko bururen bat (hobe alkatea bera), ordezkari politikoak eta horretarako izendatutako udal teknikariak.

Eranskina

- Aalborg-eko Gutuna
- Lisboako Ekintza Plana
- Hannoverreko Deia

EUROPAKO HIRIEN JASANGARRITASUNAREN ALDEKO GUTUNA

(Aalborg-eko Gutuna)

(1994ko maiatzaren 27an Danimarkako Aalborg-en burutu zen hiri jasangarriari buruzko Europako Konferentziako parte-hartzaileek onartu zuten moduan)

- I. atala: Adostasun adierazpena: Europako hiriak jasangarritasunerantz.
- II. atala: Europako hiri jasangarrietako kanpaina.
- III. atala: 21. Programaren tokian tokiko ekimenetan parte-hartzea: jasangarritasunaren aldeko tokiko ekintza planak.

I. atala

Adostasun adierazpena. Europako hiriak jasangarritasunera.

I.1 Europako hirien zeregina.

Gutun hau sinatzen dugun Europako hiriok haxe adierazi nahi dugu, alegia, historian zehar hainbat inperio, estatu eta erregimen ezagutu ditugun arren, horiei guztiei egin diegula aurre, eta giza bizitzaren ardatz gisa eta baita geure ekonomien, kulturaren, tradizioaren eta ondarearen sustatzaile zein zaindari moduan ere tinko mantendu gara. Familia eta auzoekin batera, hiriak gure gizarte eta estatuen oinarria izan dira, industriaren, artisautzaren, merkataritzaren, hezkuntzaren eta gobernuaren gunea, hain zuzen ere.

Gaur egunean hirietan dugun bizimoduak, alegia, lana eta funtzioak banatzeko ditugun egiturek, lurraren okupatzeak, garraioak, industri ekoizpenak, nekazaritzak, kontsumoak eta aisia jarduerak, eta ondorioz geure bizitza mailak, gizateariak aurre egin behar dien ingurune arazo askoren erantzule zuzenak bihurtzen gaituzte. Datu hori

are adierazgarriagoa da Europako populazioaren %80 hiri guneetan bizi dela kontuan hartzen badugu.

Ohartu garenez, munduko populazio osoa eta, are okerrago, geroko belaunaldiak gaur egun herrialde industrializatuetan dauden baliabideen kontsumo mailetara iritsiko badira, natura erabat hondatuko dute.

Planeta honetako giza bizitza jasangarria izango bada, seguru gaude tokian tokiko elkarte bideragarri batzuk behar-beharrezkoak direla. Izan ere, tokiko gobernuak ingurune arazoak sortzen direneko tokitik gertu dago, eta hiritarrendandik are gertuago; gainera, gizakiaren eta naturaren ongizatearen erantzukizuna du maila guztietan beste gobernuarekin batera. Hiriak zeregin erabakigarria dute, beraz, bizimoduen, ekoizpenaren, kontsumoaren eta espazioa banatzeko arauen aldaketa prozesuan.

I.2 Jasangarritasuna: nozioa eta oinarriak.

Hiriok ulertzen dugunez, garapen jasangarriko

kontzeptuak gure bizitza maila naturak igortzeko duen gaitasunaren menpe jartzen laguntzen digu.

Gizarte justizia, ekonomi jasangarriak, eta ingurumen iraunkorra lortu nahi ditugu. Gizarte justizia izango bada, ekonomi jasangarritasuna eta zuzentasuna ezinbestekoak dira, eta horiek, era berean, ingurune jasangarritasuna behar dute. Ingurune jasangarritasunak natura babestea suposatzen du. Horretarako, baliabide material, hidriko eta energetiko berriztagarrien kontsumoak ezin du natura sistemek beroriek berritzeko duten gaitasuna gainditu; era berean, baliabide ez berriztagarriak baliabide berriztagarri iraunkorren ordezkapen erritmoa baino mantsoago kontsumitu behar dira. Ingurune jasangarritasunak kutsatzaileen igortze erritmoak aireak, urak eta lurrak beroriek zurgatu eta prozesatzeko duten gaitasuna ez gainditzea ere eskatzen du.

Ingurune jasangarritasunak, gainera, biologi aniztasuna, osasun publikoa eta airearen, uraren eta lurraren kalitatea giza bizitza eta ongizatea babesteko adinako mailetan mantentzea eskatzen du, baita flora eta fauna betiko iraunaraztea ere.

1.3 Jasangarritasunaren aldeko tokiko estrategiak.

Geuk, hiriok, mundu modernoari dagozkion arkitektura-, gizarte-, ekonomi-, politika-, ingurune- eta natur-baliabideen desoreka ugariei aurre egiteko gai den entitaterik nagusizat hartzen dugu hiria; era berean, arazoak modu bateratu, holistiko eta jasangarrian konpon daitezkeen unitaterik txikiena dela uste dugu. Hiri guztiak desberdinak direnez, norik bere jasangarritasuneranzko bidea aurkitu behar du. Jasangarritasun oinarriak sartuko ditugu geure politika guztietan, eta geure indarrak tokian tokiko estrategia egokien abiapuntu izango dira.

1.4 Jasangarritasuna orekaren aldeko tokiko prozesu sortzaile gisa.

Geuk, hiriok, jasangarritasuna ez dela ez ametsa ez aldaezinezko egoera diogu, orekaren aldeko tokiko prozesu sortzailea baizik, zeina maila horretan erabakiak hartzeko esparru guztietara hedatzen den. Hiri ekosistema orekarantz bultzatzen duten jardueri eta berau harengandik urrutiratzen dutenei buruzko informazio itzultze etengabea ahalbidetzen du. Hiri kudeaketa antzeko prozesu baten bidez jasotzen den informazioan oinarritzen denez, hiria osotasun organiko gisa agertzen da, eta jarduera garrantzitsu guztien eraginak nabarmentzen dira. Prozesu horren bidez hiriak eta bere biztanleek hautu desberdinak aldeztuz aurretik ondo ezagutzen dituztela egin dezakete aukera; gainera, jasangarritasunean oinarritzen den kudeaketa sistemak kaltetutako pertsonen interesak ezezik, geroko belaunaldienak ere ordezkatzeko dituzten erabakiak hartzea ahalbidetzen du.

1.5 Arazoak negoziazio irekien bidez konpondu.

Geuk, hiriok, onartzen dugu ezin ditugula geure arazoak ez elkarte handiagoetara ez geroko belaunaldietara eraman. Beraz, aurretik geure kabuz konpondu behar ditugu geure zailtasun eta desorekak, eta, beharrezkoa denean, eskualde zein nazio mailako erakundeekin laguntzaz. Hauxe da adostasunaren hasiera; bere aplikazioak askatasun handiagoa emango dio hiri bakoitzari bere jardueren izaera askatasun handiagoaz definiti dezan.

1.6 Jasangarritasunaren aldeko hiri ekonomia.

Geuk, hiriok, geure ekonomi garapena geure

natur baliabideentzat, hots, airearentzat, lurrarentzat, urarentzat eta basoentzat, kaltegarri gertatu dela onartzen dugu. Baliabide horietan inbertitu behar dugu beraz, lehentasunezko orden honi jarraiki:

- dagoen natur baliabideen kontserbazioan inbertitu (lur azpiko uren erreserbak, lurrak, espezie bitxien habitatak).
- natur baliabideen hazkundera sustatu, gaur eguneko ustiapen maila murriztuz (energia ez berriztagarrietan, esaterako).
- natur baliabideen erreserben gaineko presioa arintzearen, erreserba berri batzuk – hiri aisialdirako parkeak, esaterako – sortu. Horrela, natur basoen gaineko presioa murriztuko da.
- Zenbait produkturen –energi errendimendu altuko eraikinen zein ingurumena errespetatzen duten hiri garraioen– azken errendimendua gehitu.

I.7 Hiri mailako jasangarritasunaren aldeko gizarte justizia.

Geuk, hiriok, ondo dakigu behartsuenak direla ingurune arazoak (hotsa, zirkulazioaren kutsadura, aisialdirako instalaziorik eza, osasunaren kalterako etxebizitzak, berdegunerik eza) gehien jasan behar izaten dituztenak, baita arazo horiek konpontzeko ere ahalmen gutxien dutenak direla. Aberastasunaren banatze desorekatuak jasangarria ez den portaera dakar, eta horrela, aldaketa zailagoa da. Populazioaren oinarritzko gizarte beharrak eta osasun, enplegu eta etxebizitza programak ingurumenaren babesean sartzeko asmoa dugu. Lehenengo esperientzietatik bizimodu jasangarriak ikasi nahi ditugu, kontsumoa gehitu beharrean hiritarren bizitza kalitatea hobetuko badugu.

Elkartearen jasangarritasuna lagunduko duten lanpostuak sortzen ahaleginduko gara, ondorioz

langabezia murriztuz. Enplegua erakarri edo sortzeko ahalegin horietan ekonomi aukeren ondorioak ebaluatuko ditugu jasangarritasun hitzetan, eta horrela jasangarritasun oinarriekin bat egingo duten lanpostu eta produktu iraunkorren sortzea ahalbidetuko dugu.

I.8 Lur jasangarriaren okupatzea.

Geuk, hiriok, beharrezkotzat jotzen dugu gure toki agintariek lurraldea antolatzeko politika eraginkorrak abian jartzea, zeintzuek plan guztien ingurune ebaluazio estrategikoa ekarriko baitute berekin. Hiri kontzentrazio handienetan dauden garraiorako eta energi hornidurarako zerbitzu publikoek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatu behar ditugu, eta aldi berean garapenaren giza dimentsioa mantendu. Hirietako erdigunea berrizatzeko programak sustatuz eta hiri inguruko gune berriak planifikatuz funtzio desberdinak lotu nahi ditugu elkarren artean, eta horrela mugigaitasuna murriztu. Eskualdeen elkarrekiko menpekotasun zuzenaren kontzeptuak, landaren eta hiriaren arteko fluxuak orekatzeaz gain, hiriei hiri inguruko guneetako baliabideen ustiapen hutsa galarazi behar die.

I.9 Hiri mugigaitasun jasangarria.

Geuk, hiriok, garraioa murrizteaz gain, sartzea errazteko eta hiri ongizatea eta bizimoduak irau-narazteko ahaleginak egin behar ditugu. Badakigu hiri jasangarri batean mugigaitasun behartua murriztu eta motordun ibilgailuen erabilera ez beharrezkoa sustatzeari utzi behar diogula ezinbestean. Lehentasuna eman behar diegu beti ere ingurumena errespetatzen duten garraio bideei (berreziki, oinez, bizikletaz zein garraio publikoen birtatez burutzen diren joan-etorriak), eta baliabide horien konbinazioa ezarriko dugu geure plangintza ahaleginen ardatzean. Hirian dauden motor-

dun garraiobide desberdinek bertako zerbitzueta-
ra sartzea erraztu eta hirietako ekonomi jarduera
mantendu behar dute funtzio ordezkatzailer gisa.

I.10 Munduko klima aldaketaren erantzukizuna.

Geuk, hiriok, planetaren berotzeak natur eta hiri inguruetarako eta geroko belaunaldientzako dakartzan arrisku handiak aintzat harturik, berotegi efektuko gasak orekatu eta, ondoren, murriztuko dituen erantzun egokia aurkitu behar dugula uste dugu. Era berean, garrantzitsua da biomasaren mundu baliabideak, basoak eta fitoplanktona, esaterako, babestea, planetaren karbonoaren zikloan zeregin garrantzitsua betetzen duten heinean. Erregai fosilen igorpenak murriztearren, alternatiben eta hiri ingurunearen —energi sistema gisa— erabateko ezagutzan oinarritutako politika eta ekimenak abiatuko dira. Energi iturri berriak garriak dira alternatiba jasangarriak.

I.11 Ekosistemen toxikapenaren aurkako prebentzioa.

Geuk, hiriok, ondo asko dakigu atmosferan, uretan, lurrian eta elikagaietan gero eta substantzia toxiko eta arriskutsu gehiago daudela, eta beroriek osasun publikorako eta ekosistemarako gero eta mehatxu handiagoa suposatzen dutela. Beraz, kutsadura oztopatu eta iturburuan prebentzeko ahalegin guztiak egingo ditugu.

I.12 Tokian tokiko autogestioa ezinbesteko baldintza gisa.

Geuk, hiriok, bizimodu jasangarriak garatzeko eta

geure elkarteak garapen jasangarriko ikuspegitik sortu eta kudeatzeko beharrezkoak diren indarra eta ahalmen sortzailea ditugula konbentzita gaude. Hautu demokratikoaren bidez geure toki elkarteetako ordezkariak garenez, prest gaude geure hirietako berrantolaketaren erantzukizuna hartzeko, beti ere garapen jasangarria xedetzat hartuta. Hiriok erronka horri aurre egiteko gaitasuna ordezkotasun printzipioaren arabera eman- go zaizkien autogestio eskubideen menpe egon- go da. Ezinbestekoa da tokiko agintariek bote- reak eta finantza berme sendoa edukitzea.

I.13 Hiritarren protagonismoa eta elkartearen parte-hartzea.

Geuk, hiriok, Rio de Janeiroko gailurrean onartu zen 21. Programa agiri nagusiko aginduaren ara- bera, geure elkarteetako sektore guztiekin —hiritar- rak, enpresak, interes taldeak— elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, Programa horretarako lagungarri izango diren tokiko pla- nak sortuz. Europako Batasuneko ingurumen ekin- tzako bosgarren programa «Garapen jasangarri- rantz» delakoaren deia aintzat harturik, progra- ma aplikatzearen erantzukizuna elkartearen se- ktore guztien artean banatu beharra dagoela uste dugu. Ondorioz, gure lanak konprometitutako alderdi guztien arteko elkarlanean oinarrituko dira. Interesa duten herritar eta talde guztiek in- formazioa eskura izatea eta erabakiak hartzeko tokiko prozesuetan parte hartu ahal izatea ber- matuko dugu. Garapen jasangarriko gaietan hezkuntza eta heziketa bermatzeko ahaleginak egingo ditugu, ez soilik jendearentzat orokorrean, baita hautatutako ordezkari eta tokiko adminis- trazioetako langileentzat ere.

I.14 Jasangarritasunaren aldeko hiri kudeaketarako tresnak.

Geuk, hiriok, hiri kudeaketaren planteamendu ekosistematikoa lortu asmoz, eskura ditugun tresna tekniko eta politiko guztiak erabiltzeko konpromisoa hartzen dugu. Ingurune datuak jaso eta tratatzeko eta ingurune plangintza egiteko askotariko tresnak izango ditugu, baita erregelamendu-, ekonomi-, eta komunikazio-tresnak ere, hala nola zuzendaritzak, zergak eta eskubideak; era berean, sentsibilizazio mekanismoak ere erabiliko ditugu, jendearen parte-hartzea barne. Ingurune kontabilitateko sistema berriak sortzen ahaleginduko gara; horiek aukera emango digute geure natur baliabideak geure baliabide materiala den «dirua»-ren maila berean kudeatzeko.

Geure erabaki eta kontrolak, ingurune zaintza bereziki, auditoretzak, ingurune inpaktuko ebaluazioa, kontabilitatea, balantzeak eta txostenak adierazle desberdinetan oinarrituko dira ezinbestean; adierazle horien artean hiri ingurumenaren kalitatea, hiri fluxu eta ereduak eta, batez ere, hiri sistemetako jasangarritasun adierazleak dira azpimarragarrienak.

Geuk, hiriok, Europako hainbat hiritan ingurumenaren mesederako zenbait politika eta jarduerak arrakastaz burutu direla onartzen dugu. Horiek, garapen ez jasangarria oztopatu eta murrizteko tresna baliagarriak izanik ere, ezin dute berez gizarteak duen joera hori alderantzizkatzea. Haatik, ekologi oinarri sendo horretaz baliaturik, hiriek aukera ezin hobe dute politika eta jarduerak horiek abiarazi eta beren administrazio sisteman sartzeko, jasangarritasun orokorreko prozesuaren bidez tokiko hiri ekonomiak kudeatzeko asmoz. Prozesu horrek aurrera egingo badu, geure estrategiak sortu eta abian jartzeaz gain, geure

esperientziak banatu behar ditugu.

II. atala.

Europako hiri jasangarrietako kanpaina.

Geuk, Gutun hau sinatzen dugun Europako hiriok, garapen jasangarriaren alde lan egingo dugu, tokian tokiko mailan izandako esperientziatik eta arrakastetatik abiatutako ikaste prozesu batean. Elkarri animuak emango dizkiogu epe luzerako tokiko ekintza planak ezartzeko (21. tokiko programak); modu horretan, agintarien arteko elkarlana sustatzeaz gain, Europako Bata-suneko hiri ingurumeneko jardueretan sartuko dugu prozesu hori.

Hiriei garapen jasangarriaren aldeko beren lane-tan bultzada ematearren, Europako hiri jasangarrietako kanpaina abian jartzea erabaki dugu. Kanpaina horretako hasierako faseak bi urte iraungo du eta 1996an burutuko den hiri jasangarriei buruzko Europako bigarren konferentzian ebaluatuko da.

Honen bidez geure gonbidapena luzatu nahi diegu hiri, herri zein probintzietako tokian tokiko agintari guztiei, eta baita Europako toki agintarien sare guztiei ere, Gutun hau bere egin eta sinatzearen bidez kanpainan parte har dezaten.

Europako toki agintarien sare handi guztiei kanpaina koordinatzeko eskatzen diegu. Sare horien ordezkariez osatutako koordinazio batzordea sortuko da. Ezein saretan parte hartzen ez duten toki agintarientzat neurriak hartuko dira.

Hauexek izango dira kanpainaren helburu nagusiak:

- Europako hirien elkarren arteko laguntza erraztea, garapen jasangarriaren aldeko politikak sortu eta ezartzeko.
- tokian tokiko mailako esperientzia positiboak buruzko informazioa jaso eta zabaltzea.
- gainerako toki agintarien artean garapen jasangarriko printzipioa sustatzea.
- Gutunaren sinatzaile berriak lortzea
- urtero «hiri jasangarriaren saria» antolatzea.
- Europako Batzarrari gomendio politikoak ematea.
- hiri ingurumenari buruzko adituen taldeak hiri jasangarriez eginiko txostenetan laguntza ematea.
- tokiko erabakiak hartzeko arduradunei Europako Batasuneko lege eta gomendio egokiak ezartzen laguntzea.
- kanpainaren informazio buletina argitaratzea.

Jarduera horiek kanpainaren koordinazioa ezartzea eskatuko dute.

Beste elkarte batzuei ere gonbidatuko diegu kanpaina honetan parte har dezaten.

III. atala

21. Programaren toki jardueretan parte hartzea: jasangarritasunaren aldeko toki ekintza planak

Geuk, Gutun hau sinatzen dugun Europako hiriok, geure sinaduraz eta Europako hiri jasangarrietako kanpainan parte hartuz, geure elkarteetan baita tokian tokiko mailako 21. Programari buruzko adostasunera heltzeko konpromisoa hartzen dugu 1996. urtea amaitu

baino lehen. Horrela, 1992ko ekainaren Rioko gailurrean onartu zen 21. Programaren 28. kapituluaren aginduari erantzun diogu. Geure toki jardueren bidez, Europako Batasuneko «Garapen jasangarriantza» ingurumen ekintzako bosgarren programa ezartzen lagunduko dugu. 21 Programa laguntzeko toki jarduerak Gutun honen lehen zatitik abiatuko dira.

Tokiko ekintza planaren prestatzeak etapa hauek barne hartzea proposatzen dugu:

- dauden plangintza metodoak eta finantza mekanismoak, eta baita beste plan eta programa batzuk ere, onartzea.
- Kontsulta publiko zabalen bidez arazoak eta beren zergatien mugatze sistematikoa.
- atzemandako arazoak tratatzearen lanak lehentasun ordenaz sailkatzea.
- elkartearen sektore guztiak barne hartuko dituen parte-hartze prozesuaren bidez elkarte jasangarriko ereduak sortzea.
- aukera estrategiko alternatiboak aintzat hartu eta ebaluatzea.
- helburu neurgarriak barne hartuko dituen garapen jasangarriaren aldeko epe luzerako tokiko ekintza plana ezartzea.
- plana ezartzeko programazioa, egutegia eta erantzukizunak parte-hartzaileen artean banatzeko adierazpena barne.
- planaren ezartzea gainbegiratu eta jakinarazteko, sistema eta prozedura egokiak ezartzea.

Gure toki agintarien barne akordioak –garapen jasangarriaren aldeko epe luzerako tokiko ekintza planak barne– 21. Programaren toki jarduerak abian jartzeko egokiak eta eraginkorrak diren erabaki beharko dugu. Horiekin batera, erakundearen gaitasuna hobetzera zuzendutako zenbait ahalegin gehigarri ere izan litezke beharrezko, hala nola hitzarmen politikoen

berraztertzea, administrazio prozedurak, lan kolektibo eta diziplinartekoak, dauden giza baliabideak eta, azkenik, agintarien arteko elkarlana, elkarteak eta sareak barne.

**Danimarkako Aalborg-en sinatua,
1994ko maiatzaren 27an.**

LISBOAKO EKINTZA PLANA: GUTUNETIK EKINTZARA

[Hiri jasangarriei buruzko Europako
Bigarren Batzarrean parte hartu zutenek berretsia, Lisboa, Portugal, 1996ko urriaren 8a]

Sarrera

Europa osoko tokiko eta eskualdeko agintarien mila ordezkari Lisboan (Portugalen) bildu ziren hiri jasangarriei buruzko Europako Bigarren Batzarrean, 1996ko urriaren 6 eta 8 bitartean. Europako 35 estatutan Tokiko Agenda 21 en egoera nolakoa zen jakin zuten eta Aalborg-en (Danimarka) egindako lehen batzarretik izandako aurrerapena ebaluatu zuten. Tokiko praktikari buruzko ideiak eta esperientziak elkarri jakinarazi zizkieten eta Europako beste komunitate batzuekin proiektu bateratuetan lankidetzan aritzeko aukerak aztertu zituzten. Tokiko agintariak Tokiko Agendaren prozesuetan konpromisoak hartzea eta kanpainaren hurrengo fasea prestatzen laguntzea ezinbestekoa dela adierazi zuten.

Europako hiri jasangarrien Kanpainari Europako 80 udalerrik eman zioten hasiera Aalborg-eko Batzarrean. Izan ere, jasangarritasunera bideratutako Europako hirien Gutuna (Aalborg-eko Gutuna) sinatu baitzuten. Orain arte, tokiko eta eskualdeko 250 agintarik sinatu dute Gutun hori. Sinatzaileek konpromiso hau hartu dute euren gain: bideragarritasuna lortzeko epe luzearako ekintza plana (Tokiko Agenda 21) burutzeko, tokiko komunitateen artean adostasuna lantzeko eta lortzeko prozesuan parte hartzeko konpromisoa.

Kanpainaren lehenengo bi urteetan tokiko bideragarritasunari buruzko ideiak zabaldu ziren batez ere; horretarako, Aalborg-eko gutuna bultzatu zen eta tokiko agintariak premiatu ziren

gutuna sinatzeko eta kanpainarekin bat egiteko; Tokiko Agenda 21 en prozesuari buruzko orientazioa emateko ere premiatu ziren agintariak. Lisboako Batzarrean hurrengo fasea aurkeztu zen; gutunean finkatutako printzipioak ezartzea izango da fase horren helburu nagusia. Horretarako, Tokiko Agenda 21 en prozesua martxan jarriko da eta tokiko bideragarritasun plana ezarriko da. Fase horretan parte hartuz gero, Europako tokiko agintariak Agenda 21 en (Rio, 1992) ezarpenean lagunduko dute, eta baita Habitat Agendaren (Istanbul 1996) ezarpenean ere.

Beraz, 1996ko Lisboako Batzarrean parte hartu zutenek "Gutunetik Ekintzara" izeneko dokumentu hau berretsi zuten. Tokiko esperientzietan oinarritu da, batzarreko 26 tailerretan jakinarazitako eta jorratutako informazioa kontuan izanik. Bestalde, dokumentu hauek ere hartu dira kontuan: Aalborg-eko Gutunean zehaztutako printzipioak eta gomendioak; RUko tokiko gobernuetako Zuzendaritza Batzordearen "Urratsez urrats gida"; Europako Batzordeko hiri inguruneari buruzko aditu taldearen hiri bideragarrien inguruko txostena; Tokiko ingurumen ekimenetarako Nazioarteko Batzordearen Tokiko Agenda 21 planifikatzeko Gida.

Tokiko gobernuen Europako lehen Batzarrean parte hartu zutenek Habitat Agenda ezartzen lagundu nahi dute eta horretarako, Europako hiri jasangarrien kanpainaren hurrengo fasean hartuko

dute parte. Aipatutako Batzarra HABITAT 11 Batzarraren (Istanbul, 1996ko ekaina) ondoren egin zen.

Tokiko gobernuaren prestaketa Tokiko Agenda 21en prozesurako

1. Gure ustez, jasangarritasunera bideratutako Europako hirien Gutuna (Aalborg-eko Gutuna) hartzea abiapunturik onenetako bat da Tokiko Agenda 21en prozesuari ekiteko.

Politikariek Tokiko Agenda 21en prozesuan parte hartzea behar dugu. Ekimena bideratzeko motibatutako pertsona taldea osatuko dugu. Zenbait ideia, kontzeptu eta agindu erreferentziazat erabiliko ditugu, hala nola, Agenda 21, Europako Batasuneko Ingurumen Ekintzako Bosgarren Programa, Aalborg-eko Gutuna edo Habitat 11 Batzarra. Prozesua burutzeko lan programa eta egutegia finkatu eta fase bakoitzaren helburuak argi definituko ditugu. Aalborg-eko Gutuna sinatuz, bat egingo dugu Europako hiri jasangarrien Kanpainarekin. Tokiko agintarien edozein sarerekin bat egitea pentsatuko dugu, ingurumen kudeaketa eta bideragarritasunerako aholkurik eta oinarri praktikorik onenak emango dituztela ikusten badugu.

2. Gure ustez, Tokiko Agenda 21en prozesua tokiko agintariek erraztu behar dute nagusiki.

Gure tokiko agintariek subirano jarrerari uko egin eta prozesua errazteko zeregina euren gain hartu behar dute; kemena azaldu behar dute, eta beste batzuek egiten ez duten bitartean, langileak ipini eta aurrekontu bat eman behar dute; teknikari profesionala hartu eta gidaritza erakutsi behar dute, baina prozesua menperatu gabe.

3. Gure ustez, Tokiko Agenda 21en prozesuak tokiko agintari guztien parte-hartzea eskatzen du, bai hiri handia bada, baita herri txiki edo landa udalerria bada ere.

Barne komunikazioa oso garrantzitsua da hauek guztiak prozesuan sartzeko: udalerria eta administrazioa, hautatutako karguak eta funtzionarioak, departamentu guztiak eta erantzukizun maila guztiak. Funtsezkoa da udal arduradun nagusiaren laguntza izatea eta hautatutako ordezkari eta karguak bideragarritasun kontzeptuen inguruan prestatzea. Tokiko bideragarritasuna gizarte, ekonomia eta ingurumen bideragarritasunek osatzen dute; beraz, ezinbestekoa da sektoreen arteko ikuspuntua izatea.

Estrategiak finkatzea komunitateak parte har dezan

4. Kotsultak egingo ditugu eta komunitateko hainbat sektorerekin lankidetzan arituko gara, lankidetzaren bidez sinergiak sortzeko.

Komunitateko sektore eta alde guztien artean adostasuna lortu behar da Agenda 21 burutu ahal izateko (Rio, 1992). Baina ez horretarako bakarrik; adostasun horrek, epe luzera, sendotasuna ematen dio ekintza planari, ezarri ahal izateko sendotasuna, alegia. Pertsona edo erakunde arduradunen talde bat eratzea gomendatzen dugu (Tokiko Agenda 21eko Foroa). Helburu argiak dituzten proiektu zehatzetarako lankidetzak ezarriko ditugu eta lan taldeak osatuko ditugu proiektuetarako, negozioz taldeetarako, aholkularitza taldeetarako edo mahainguruetarako. Prozesua diseinatu eta adostasuna bilatuko dugu prozeduraren,

prozesuaren aldien eta helburuen inguruan. Parte-hartzaileak kontu handiz orientatuko ditugu, baina prozesuaren bidez erdietsi nahi diren helburuak argi eta garbi erakutsiz. Alde bakoitzaren interesak esplizituki definituko ditugu eta eurekin elkarrizketak izango ditugu, irekitze eta gardentasunaren bidez konfiantza lortzeko asmoz.

Tokiko Agenda 21 bideratzea eta planifikatzea

5. Geure egoitza lortzen ahaleginduko gara, kanporantz negoziatzeko printzipioa ezartzeko asmoz

Gure komunitateak ez ditu arazoak ingurune zabalagora edo etorkizunera eraman behar. Garapen bideragarriaren etikak kanporantz negoziatzeko printzipioari jarraitzeko eskatzen du eta, beraz, behar-beharrezkoa da tokiko eskariaren eta horniduraren artean oreka lortzen saiatzea. Eta ezin bada hori lortu, inguruko eskualde, herrialde edo kontinentearekin negoziazioak ezarri behar dira, aukerak, zamak eta ardurak banatzeari dagokionez. Komunitateak arazoak esportatzeari uzteko aukera guztiak zabalduko ditugu edo, gutxienez, arazo gutxiago kanporatzeko; ingurune zabalagoa erabiltzeko edo etorkizunera eramateko baldintzak bidezkoak diren ikusi behar da. Gure udalerriko azterketa sozial, ekonomiko eta ekologikoak egingo ditugu, ingurumenean eta etorkizuneko belaunaldiengan izan dezakeen eragina ezagutzeko; emaitzak jakinaraziko ditugu.

6. Ekintza sistematikoki planifikatuko dugu, azterketatik ekintzara pasatzeko

Tokiko Agenda 21 parte hartzeko prozesua da eta

urratsez urratseko prozedura sistematikoa eskatzen du; Tokiko Agenda 21eko Foroak filosofia eta ikuspegia aztertu eta erabaki bat hartuko du. Kontseiluak, jendeari galdetu eta gero, hartu egingo du aipatutako erabakia. Arazoak, zergatiak eta ondorioak finkatuko ditugu. Kontseilua helburuak hartzeko bultzatuko dugu; arazoen inguruko lehentasunak identifikatuko ditugu, eraginaren ebaluazioaren metodologiaren bidez; ekintzarako aukerak eta helburuak finkatuko ditugu. Helburuak lortzeko programak sortu eta zenbait programa gauzatuko ditugu, ekintza planaren barruan; plana ezarri eta jarraipena egingo dugu; emaitzak ebaluatu eta berrelikadura emango diogu prozesuari.

Bideragarritasuna kudeatzeko tresnak

7. Ingurumen garapena garapen sozial eta ekonomikoarekin batera jorratuko dugu, biztanleen osasuna eta bizi kalitatea hobetzeko.

Egonkortasun eta justizia sozialak ekonomia bideragarrian oinarritu behar dira. Eta ekonomia bideragarria, berriz, naturaren gaitasunetan oinarritu behar da, hau da, ingurumen bideragarritasunean. Garapenaren planifikazio bideragarria egiteko, ingurumen alderdiak eta alderdi ekonomiko eta sozialak batera jorratu behar dira eta, beraz, planifikazioa eta ezarpena sektoreen arteko ikuspuntutik egin behar da. Ingurumen planen prestaketa beste sektore batzuetako prestaketarekin batera koordinatuko dugu, batez ere sektore sozial eta ekonomikoetako prestaketarekin. Enpresa eta planta berriak baimentzeko negoziazio prozeduretan, bideragarritasun eraginaren ebaluazioa egingo dugu. Eta tokiko enpresek administrazio eta ingurumen auditorien programak (EMAS)

aplikatzea bultzatuko dugu.

8. Bideragarritasuna kudeatzeko tresna aurreratuak erabiliko ditugu

Tokiko agintariak bideragarritasunerantz orientatzen saiatuko gara. Horretarako, ingurumen, ekonomia, gizarte eta osasun kudeaketarako metodo eta tresna ugari aplikatu behar dira. Bideragarritasun adierazleak erabiliko ditugu egungo egoera azaltzeko eta garapena balioesteko; EMAS eta ingurumen aurrekontuak sartuko ditugu eta baita oreka ekologikoko beste metodo batzuk ere; ingurumen eragineko ebaluazio metodoak eta ingurumen ebaluazio estrategikoko metodoak erabiliko ditugu eta gizarte, osasun eta ekonomia eragina ebaluatzen ere zabalduko ditugu.

Ezaguera eta hezkuntza gehitzea

9. Biztanleen, interes taldeen eta tokiko gobernu politikari eta karguen artean garapen bideragarriaren inguruko ezaguerak gehitzeko programak finkatuko ditugu.

Ezaguera eta hezkuntzaren igoera funtsezkoa da gizarte, ekonomia eta ingurumen alderdien artean zer-nolako lotura dagoen sakon ulertzeko. Lanbide prestakuntza behar-beharrezkoa da gure langile publikoek kudeaketako ekintza, praktika zuzen, metodo eta tresnetarako aukerei buruz zerbait ikasteko. Tokiko komunitateko talde guztientzako informazio jarduerak burutuko ditugu eta hezkuntza eta prestakuntza programak ezarriko ditugu haurtzaindegietan, eskoletan, unibertsitateetan, bokazio erakundeetan eta helduen prestakuntzakoetan.

Agintarien arteko lankidetzak

10. Agintarien arteko itunen bidez indartu egingo gara: elkarteak, sareak eta kanpainak.

Inguruko udalerriekin elkarteak eratuko ditugu, desorekak konpontzeko eta kanpoko negoziazioen printzipioa kontuan izanda. Gobernu edo administrazioeko karguak ekimen eta programa guztietan inplikatuko ditugu. Udalerrietako sareen eta Tokiko Agenda 21 en kanpainekin bat eginda lortuko dugun indarraz eta estimuluez baliatuko gara.

11. Garapen bideragarria lortzeko, ipar eta hegoaldearen eta mendebalde eta ekialdearen arteko itunak osatuko ditugu.

Hiriak eta herriak uharteak ez direnez, tokiko bideragarritasuna lortzeko ezinbestekoa da honako hau kontuan izatea: tokiko baliabideen erabileraren eta igorpenen eragin globalak eta eraginaren esportazioa. Gure ekintzek ingurumen globalean izandako eragin negatiboen ardura geure gain hartuko dugu eta herrialde garatueto tokiko agintariekin lankidetzan arituko gara. Kontuan hartuko dugu ingurumen senidetzea edo, bestela, udal lankidetzako antzeko akordioak nazioarte mailan. Bi aldeko laguntza programak ezarriko ditugu; klima, urak eta lurra babesteko eta bioaniztasuna bermatzeko neurriak batera ezartzeko aukerak aztertuko ditugu.

12. Europako hiri jasangarrien Kanpaina-rekin batera koordinaturik egingo dugu aurrera.

1996ko urriko Lisboako Batzarrarekin, Europako hiri jasangarrien Kanpaina "Gutunetik Ekintzara"

izeneko bigarren fasean sartu da. Tokiko Agenda 21eko prozesuak Europako tokiko beste agintari batzuekin koordinatuta eramango ditugu aurrera oraingoan ere. Tokiko agintarien elkarte eta sareei euskarri praktikoa, orientazioa eta prestakuntza ematen jarraitzeko eskatuko diegu.

XXI. MENDEAREN ATALASEAN MUNDUKO UDAL-AGINTARIEK EGINDAKO HANNOVERREKO DEIA

Federación Española de Municipios y Provincias - FEMP
izenekoak 2000ko otsailaren 11n ingelesez itzulitako bertsio ofiziala.

A.- Atarikoak

Gu, Europako 36 herrialdeetako eta inguruko lurraldeetako 250 agintariok, Hannover-2000 Biltzarra dela-eta (Hiri eta udalerri jasangarriei buruzko Europako Hirugarren Konferentzia) bildu gara, 2.000ko otsailaren 9tik 12ra, balantzea egiteko, gure hiriak jasangarriagoak izan daitezen orain arte emandako pausoak ondo emanda dauden ikusteko, eta, XXI. mendearen atalasean gaudenez, aurrera begira gure ahaleginak adostasunez bideratzeko.

Jasangarritasunaren inguruko Europako Hiri eta Udalerrien Gutuna (Aalborg-eko Gutuna) izenpetu dugunok gure agintariak bultzatu nahi ditugu Tokiko 21. Agendan edo garapen jasankorreko bestelako prozesuetan parte har dezaten, eta, gainera, bat egiten dugu Europako Hiri Jasangarrien Kanpainarekin. Horren koordinatzaileak honako hauek dira: Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseilua (CMRE), Eurocities metropoli-elkartea, Osasunerako Munduko Erakundea, Ingurumenarekiko Tokiko Ekimenen Nazioarteko Kontseilua, eta Hiri Batuen Munduko Federazioa, Europako Batzordearekin eta Hirietako Ingurumenerako Adituen Taldearekin lankidetzan.

Europako 32 herrialdeetako 650 alkate eta agintari arduratu dira tokiko jasangarritasunaz eta kanpainaz, Aalborg-eko Gutuna sinatuz. Kanpainaren parte-hartzaileen herrialdeetako

biztanleria 130 milioi europar baino gehiago dira. Lisboako Ekintza Plana da gure gidaria, eta aurrera egiteko dugun asmoa Turku, Sofia, Sevilla eta Hagako Adierazpenetan gauzatzen da. *Kanpaina abiarazi genuenetik lortu diren aurrerapausoak nabariak dira, eta horri esker, onerako aldaketak sustatu dira gure hiri eta udalerrietan. Lorturikoa pizgarria da ekintza berriak bultzatzeko, eta oraindik ere ditugun erronka ugariei aurre egiteko.*

B. Jasangarritasunera hurbiltzeko toki-ekintzen printzipioak eta baloreak

B.1 Oraingo eta geroko belaunaldien ongizatea da gure ardura. Hori dela-eta, gizarte-berdintasunaren eta justiziaren alde, eta pobrezia zein gizarte-bazterkeriaren aurka egiten dugu lan, *ingurumen bizigarri eta osasuntsua helburu edukita*. Sexu bien arteko diferentziak, kulturak eta adinak errespetatzen ditugu, gure hirietako gizarte-ongizatea hobetzen laguntzen dutelakoan.

B.2 Gure iritziz, ekonomia bidezkoa izan behar da, gizarte-ikuspuntutik, eta eraginkorra, ekologiaren ikuspuntutik, *berriztagariak ez diren baliabideak alferrik xahutu gabe*. Ekonomia honela ulertzen badugu: gizakiaren eta gizartearen beharrianak asetzeko salgaiak eta zerbitzuak

lortzearen aldera, natur baliabideak eraldatzen dituen mekanismoa.

B.3 Jakin badakigu garapen iraunkorraren erantzukizuna denona dela, horregatik aritu nahi dugu elkarlanean tokiko taldeekin, eta gobernu-mailako beste erakunde batzuekin, gure ikuspegia osoagoa eta orokorragoa izan dadin.

B.4 *Guretzat uste sendoa da gizarte iraunkorra eratzeko lehenengo baldintza munduan bakea lortzea dela.*

C. Hiriaren nagusitasuna

C.1 Guk, Europako hirietako alkateok, toki-mailan jardun behar dugu, erantzukizun orokorragoa dugula kontuan harturik. Etorkizun-ikusmirako liderrak garela erakutsi behar dugu; hartara, erronkei aurre egin behar diegu kementsu, eta gure erantzukizunaz arduratu behar dugu. Dei honen E letraren pean bereizi eta erakutsi ditugun erronkak, aukerak eta eragozpenak ikusita, honako konpromiso hauek geureganatu ditugu:

C.2 Europako batasuna bultzatzen dugu, gizarte-eta ekonomia-kohesioak lortzearen, gizarte- eta ingurumen-mailei eutsiz, hori baita baldintza erkidego iraunkorrek eta gizarte bakezalea eratzeko. Horregatik, pozik ikusten ditugu Europako Batasunaren zabalkuntza eta Europaren eta Mediterraneoeko herrialdeen arteko lankidetzapolitika.

C.3 Erdialdeko eta ekialdeko Europako hiriek iraganetik datozkien arazo larriak gaingitu behar dituzte, besteak beste: pobrezia, langabezia, etxebizitza eta lantoki desegokiak, eguratsaren kutsadura eta zarata, lurraren antzutasuna,

habitatzen endekatze-joera, eta uraren kudeaketa okerra. Aldi berean, erakargarriak bai, baina iraunkorrek ez diren ereduak itsu-itsuan onartuak izan ez daitezkeen saiatu behar dugu. Igaroaldian zehar baliabideez eta botereaz baliatzeko egon diren aukera desberdinak, gizartearen desorekak areagotzeko arrazoia izan dira.

C.4 Halaber, Hegoaldeko herrialdeetako jendeaz ere arduratzen gara. Garatze-bidean dauden herrialdeetako, batez ere Mediterraneo-arroko, hiriekiko lankidetzaz deszentralizatua estutu nahi dugu.

C.5 Gure gizarteak ingurumenean uzten dituen arrastoak ezabatzea helburu duen toki-politika eraman nahi dugu; eta gure bizitza-mailari eutsi behar badiogu, ez dugu egin gura beste herrialdeetako jendearen kontura, ezta natura ustiatzearen trukean. Hurrengo belaunaldiak kalterik edota kargarik ez uzteko, gure helburuaren aurka doazen toki-gobernuaren neurriak banan-banan aztertuko ditugu.

C.6 Garrantzi handikoak dira guretzat hiri-plangintza integratua, hirien garapen trinkoa, gainbehera etorritako hiriguneen zaharberritzea, lurra eta bestelako natur baliabideak egokiro ustiatzea, garraioaren eta energiaren tokikudeaketa eta gizarte-bazterkeriaren langabeziaren eta pobreziaaren aurkako borroka, aurrera eramango dugun tokiko jasangarritasunerako hiri kudeaketaren puntu nagusi gisa.

C.7 Teknologia berriek eta zerbitzu sortu berriek eskaintzen dizkiguten aukerak aprobeztatuko ditugu, gure hirien eraginkortasun ekologikoaren maila jasotzeko. Merkatuan daukagun erosahalmenaz jabetuko gara, eta horretaz baliaturik, gizarte eta ingurumena xede duten bideetatik

abiaraziko dugu garapena.

C.8 Toki-jasangarritasunerako adierazleak ezarriko ditugu. Adierazle horien arabera, helburuak finkatu, aurrerakuntza kontrolatu, eta lorturiko emaitzei buruzko argibideak emango ditugu. Borondatez adosturiko Europako Adierazle Bateratuak tresna egokiak izan daitezke Europa osoan gertaturiko aldaketak, jasangarritasunaren arloan, elkarren artean alderatzeko.

C.9 Eskualde-mailako sareak ezarriko ditugu etorkizunean, garapen iraunkorra sustatzearren.

C.10 Naturaren hondamendiak, gudak edo bestelako ezbeharrak jasaten dituzten hiriei eta udalerriei laguntza ematen saiatuko gara.

C.11 Gu, europar hirietako alkateok, prest gaude garapen iraunkorraren arazoei aurre egiteko. Bestalde, arazoak era bateratuan aztertzeo plataformarik egokienak hiriak eta udalerriak direla uste dugu. Horregatik, herrialde askotan toki-erakundeak suspertu behar dira, baita eman ere behar dituzten erantzukizuna, agintea eta diru sarrerak. Toki-agintariak, beren aldetik, gobernu-eskema berriak hartu beharko lituzkete, eta modu demokratikoan lan egin, argi parte hartuz, eta ustelduraren aurka eginez.

D. Gure deia

D.1 Guk, europar hirietako alkateok, Hannoverren bildurik, biziki erregutzen diegu Europako erakundeei, batik bat Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari:

- a. Agenda 21 abian jar dezan, hori baita Rioko 1992ko Lurrari buruzko Gailurraren oinarritzko agiria. Halaber, garapen iraunkorrean oraindik parte hartu ez duten

herrialdeen artean Habitat Programa susta dezan, hori baita Nazio Batuen Giza Kokalekuei buruzko 1997ko Istanbulgo Bigarren Biltzarraren oinarritzko agiria.

- b. Laneko eta ingurumeneko dumpinga desagerraraz dezan; hartara, nazioarteko merkataritza-hitzaermenetan eta alderdi anitzeko hitzaermenetan gizarte zein ingurumeneko estandarrak ezartzea gomendatzen da, pobrezia arintzearen.
- c. Zorra barkatzeko programak abiaraz ditzan., zorra arintzeko.
- d. Toki-mailako autogobernua bultzatzeko, eta ez eragozteko, eta alderdi anitzeko hitzaermen bidez ingurumeneko tokiko politikak garatzen laguntzeko.
- e. Diru-iturri egokiak eskaintzeko nazioarteko finantza-erakundeei, garapen iraunkorra sustatzearren; batez ere hiri-garapen iraunkorrerako funtsa ezartzeko, Global Environmental Facility izeneko programaren barruan.

D.2 Guk, europar hirietako alkateok, Hannoverren bildurik, biziki erregutzen diegu Europako erakundeei, batik bat Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari:

- a. Tokiko garapen iraunkorrari lehentasuna emateko, hori baita Europako gizarte iraunkorraren oinarria. Eta hiri-garapen iraunkorraren inguruko gaiekiko erantzukizun zuzena Batzordeak izan dezan.
- b. Europako Hiri Iraunkorren Kanpainari begira, lankidetzaz-esparrua sortzeari lehentasuna emateko, Batzordeak proposaturiko finantza-esparrua baino beste bat zabalagoa sortzearen, eta haren

- aplikazioa herrialde gehiagora hedatzearren.
- c. Gizarteko eta ingurumeneko gogoetak sartzeko ekonomia-legeetan, ekonomia-programetan eta finantzaketa-sistemetan.
 - d. Toki-mailako autogobernua sustatu eta babesteko, Europako herrialde guztietan; eta subsidiariorotasun-printzipioa errespetatzeko Europako Erkidegoko jardura guztietan.
 - e. Tokiko gobernuko elkarte eta sareekiko lankidetzan partaidetza-kultura sustatzeko, Europako Batzordea, batetik, eta tokiko agintariak eta elkarteak, bestetik, elkarlanean aritzearren, subsidiariorotasun-printzipioaren arabera.
 - f. Toki- eta eskualde-agintariei dirulaguntzak emateko, batez ere Egitura Funtsen kontura, baldin eta toki- edo eskualde-mailetan garapen iraunkorrerako planen bat daukaten (Agenda 21 toki edo eskualdeko Ekintza Plana).
 - g. Europakoak bai, baina Erkidegokoak ez diren erdialdeko, ekialdeko eta Mediterraneo aldeko toki-agintarien ahaleginak gehiago bultzatzeko, Europako Batasuneko legeria bete dezaten, helburu hori duten ekimenak, sormen-lanak, berrikuntzak eta aurrerakuntzak sarituz.
 - h. Lankidetzan aritzeko, tokiko, probintziako, eskualdeko eta estatuko gobernuen jasangarritasuna maila guztietan kudeatzeko esparrua sortzearren.
 - i. Europako Hiri Iraunkorren Kanpainari laguntza emateko. Kanpaina horren partaideak hauexek dira: toki-agintariak eta elkarteak, Europako Batzordea, eta Hirietako Ingurumenerako Adituen Taldea.
 - j. Energiaren gaineko zerga berri bat ezartzeko; eta aire-garraioari ematen zaizkion dirulaguntzak kentzeko. Horrela, energiaren erabileraren kostu sozialak eta ekologikoak barneratuko dira, eta energiaren erabilera iraunkorra eta eraginkorra bultzatzeko pizgarriak jarriko dira.
 - k. Udalen nazioarteko lankidetzak sustatzeko, jasangarritasuna eta esperientzien elkartrukatzea hobeto gauzatu daitezkeen.
 - l. Publizitate-kanpaina deigarria egiteko, komunikabideen jasangarritasunari buruzkoa, interes-talde guztiekiko lankidetzan.
 - m. Toki-erakundeei laguntzeko, hiri eta udalen garapen iraunkorrari buruzko Europako Batasuneko legeak berenganatu eta betearaz ditzaten.

D.3 Guk, europar hirietako alkateok, Hannoverren bildurik, biziki erregutzen diegu estatueta gobernuai:

- a. Esparru politiko bat sortzeko, tokiko garapen iraunkorra bultzatzearren, eta batez ere, Agenda 21 eta Habitat Programa abian jartzearren, garapen iraunkorrari oraindik lotu ez zaizkion herrialdeetan.
- b. Garapen iraunkorrerako eta tokiko Agenda 21erako estatu-mailako kanpainak bultzatzeko.
- c. Dirulaguntzak emateko, tokiko eta eskualdeko agintariei, batez ere, hiriko garapen, berrikuntza eta garraio-arloetan, baldin eta toki edo eskualde-mailako garapen iraunkorrerako planen bat balego (toki edo eskualdeko Agenda 21eko Ekintza Plana).
- d. Adostasuna lortzeko, Europan energiaren gaineko zerga bat ezartzearren, hortik salbuetsiz energia berriztagarriak eta

- energia eta beroa era konbinatuan sortzen duten plantak.
- e. Hiriei eta lurraldeei nortasuna aitortzeko, garapen iraunkorrerako nazioarteko proiektuetan parte hartzearen.

D.4 Guk, europar hirietako alkateok, Hannoverren bildurik, biziki erregutzen diegu Europako beste lider batzuei:

- a. Jasangarritasunaren Europako Hiri eta Udalen Gutuna (Aalborg-eko Gutuna) izenpetzeko, eta bat egitea Europako Hiri Iraunkorren Kanpainarekin.
- b. Garapen iraunkorrerako plangintza batean (tokiko Agenda 21) esku hartzeko, Lisboako Ekintza Planaren gidaritzapean, eta osasuneko ekintza-plana eta besteak ondo joan daitezen eta abian jar daitezen konpromisoa hartzea.
- c. XXI. mendearen atalasean Europako udal-agintariak egindako Hannover Dei hau bultzatzeko.
- d. Toki-erakundeek erantzukizuna hartzeko, natur baliabideak erabiltzeagatik eta ingurumenaren kalitateagatik. Eta toki-mailako jasangarritasuna zein ingurumen-lorpenak kudeatzeko sistemak ezartzeko, esate baterako ingurumen-aurrekontuak eta EMak.
- e. Zeinek bere esparruan ere horrela jokatzeko, eta produktuak nahiz zerbitzuak erostean ekologiaren balioak kontuan hartzeko.

D.5 Guk, europar hirietako alkateok, Hannoverren bildurik, biziki erregutzen diegu Toki-agendaren prozesuan parte hartzen duten beste eragileei:

- a. Europako Hiri Iraunkorren Kanpainari eusteko, eta baita elkarte zein sare bultzagileei ere.
- b. Toki-jasangarritasuneranzko jarduerekin eta kanpainarekin bat egiteko.
- c. Norberaren herriak, udalerriak edo lurraldeak Aalborg-eko Gutuna oraindik izenpetu ez badu, horretarako izapideak hasteko.
- d. Ikerketa zein hezkuntzako erakundeei eskatzen diegu ezaguerak eta metodoak jartzeko Agenda 21 prestatzen diharduten parte-hartzaileen esku.

D.6 Guk, europar hirietako alkateok, Hannoverren bildurik, biziki erregutzen diegu ekonomia eta finantza arloetako erabakiak hartzen dituzten lider eta pertsonai:

- a. Ulertzeko mozkinak eta akziodun-balioa (shareholder value) gehitzeko aukerak arrisku bizian egon daitezkeela, baldin eta hirien garapen iraunkorra eta herritarren ongizatea, kontsumitzaile gisa, ziurtaturik ez badaude.
- b. Tokiko Agenda 21eko prozesuetan parte hartzeko, erkidego iraunkorrak sortzen laguntzearen.
- c. Nork bere enpresan ingurumen, osasun, segurtasun eta arrisku-alderdiak kontuan hartzeko.
- d. Produktu eta zerbitzu iraunkorren merkatuan parte hartzeko, goraka doazen merkatu horietan lehenengo parte hartzen dutenei ematen zaizkien aukerez baliatzearen.

ERANSKINA: GURE GOGOETAK

1. AUKERAK

- a. Europako Batasuna osatzea, batik bat erdialdekoa eta ekialdekoa, eta Europako Mediterraneoko Politika; horiek dira benetako aukerak europar hirietarako. Hiriak lehiakorragoak izango dira Europa zabalago horretan, eta beren papera berridatzi beharko dute. Helburua Europako Batasuneko legeria betetzea da, eta kultura askotariko gizartea eratzea.
- b. Ingurumeneko gaiak esparru politiko guztietara barneratzea helmuga garrantzitsua da, hala aitortu zen Kontseilu Europarrean 1998an Cardiff-en bildu zenean, eta baita Helsinkiko 1999ko bileran ere. Helmuga hori toki-mailan ere gauzatzea lortu behar da.
- c. Hirietako garapen iraunkorra sustatzeko asmoz (COM [1999] 557 azkena) Europako Batzordeak lankidetzaz-esparru bat ezartzeko egin duen proposamena, abiapuntu ederra da Batzordeak Europako Hiri Iraunkorren Kanpainari eusteko. Bestalde, toki-agintarien elkarteek eta sareek kanpaina koordinatzen jarraitu beharko lukete, Batzordearekin batera, azken hori bazkide gisa.
- d. Globalizazioa eta lokalizazioa ezaugarri dituen ekonomian, hiriek areagotu behar dute beren eragina toki-mikroekonomian garapen jasangarritasunerantz eramateko.
- e. Inoiz baino ezaguera, berrikuntza eta teknologia gehiago daukagu; horietaz guztiez baliaturik, hiriak berrikuntza-gune eta konponbide-gune bilaka daitezke.
- f. Diru-baliabide urriak izatea, ondorio

txarrak ez ezik, aukera paregabea ere bada, lehentasunak hobeki ezartzeko, eta eraginkortasuna handitzeko.

2. ERAGOZPENAK

- a. Erronka berriei aurre egin nahi badiegu, dauzkagun aukerez baliatu behar gara; dena dela, zenbait eragozpen ikusten da bidean. Europako herrialde batzuetako toki-gobernuek oso aginte gutxi daukate. Erantzukizunak, bai, badauzkate, baina baliabiderik, ordea, ez behar beste.
- b. Barne-merkatua osatu zenean finkatu gabe zeuden prezioak, hots, benetako kostuak, gizarte- zein ingurumen-gastuak barne, jasotzen dituzten prezioak. Dirulaguntzak okerrak badira, pizgarriak ere okerrak izango dira.
- c. Aurrerakuntza eta arrakasta hazkunde ekonomikoaren arabera neurtzen dira oraindik ere, jasangarritasunaren gorabeheran hartu beharrean.
- d. Kapitalaren fluxua eta inbertsioak bideratzen dituzten finantza-merkatuak ez daude herri-agintarien kontrolpean.

3. ERRONKAK

- a. Herritarrek espero dute udalak funtsezko zerbitzuak eta bizitza-baldintzak eskaintzea, hala nola, ingurumen osasuntsua, egurats garbia, ur-hornidura, hondakinak eta ur zikinak bildu eta tratatzea, herri-garraioa, etxebizitza, osasun-zerbitzuak eta hezkuntza.

- b. Guk, europar hirietako agintariok, aitortu egiten dugu ingurumena hobetzen egindako ahaleginak eta guzti, kezkatzekoa dela Mundu osoko eta Europako ingurumenaren bilakaera: klimaren aldaketa, lurra idortzea, gero eta ur gutxiago izatea, bioaniztasuna murriztea. Gertaera horiek guztiek mundu-mailako eragina izan eta izango dute aurrerantzean ere. Egoera horren erruak eguratsaren kutsaduratik datoz askotan, beste batzutan zarata-kutsaduratik edo trafiko-pilaketatik; baina, hein handi batean, hirietako biztanleek egunero jasaten dituzten arazoak haiek beraiek sorturikoak izaten dira.
- c. Era berean, badirudi ekonomiaren joerak erronka handiak direla gure hirietarako; izan ere, ekonomiaren globalizazioaren ondorioz, aginte finantzarioa nagusitzen zaio aginte politikoari, hortaz, herritarrek bizitza-baldintzak bideratzeko duten boterea —tokian tokiko, estatuko eta E. Batasuneko legebiltzarrak direla medio— murriztu egiten da.
- d. Aldaketa ekonomiko zein teknologikoen ondorioz sortzen diren gizarte-joerak arazo larrien jatorria dira. Batetik, gizartea zahartzea, pobrezia kronikoa, eta langabezia ditugu, eta bestetik, jaun eta jabe ikus dezakegu kontsumismoa. Hori dela-eta, gero eta alde handiagoak izan daitezke aberatsen eta txiroen artean. Erronka handia izango da kontraste hori, jasangarritasunaren bila doazen hirietarako.
- e. Teknologiaren garapena eta informazio-teknologiaren berrikuntzak hain azkar aldatzeak eragin nabarmena utziko du beste hainbat alderditan: herritarren bizimoduan, hirietako lanbideetan, eta biztanleek hiriarekiko duten identifikazioan.
- f. Ezin dugu ahaztu Europaren oraingo bizitza-maila behartsuen pentzutan lortu zela garai batean. Eskulan merkea eta natura ustiatzea kontuan hartu beharreko gaiak izango dira, ezinbestez, Europako hiriek garatze-bideko herrialdeetan «ekologia-aztarnak» utzi nahi ez baditugu; hartara, Munduko beste herrialdeetatik ekartzen diren baliabideak murriztu behar dira.
- g. Ekonomiaren gorabeherak, jazarraldi politikoak, gudak eta gatazka zibilak hirietarantzko migrazioen arrazoiak dira; hori dela-eta, hirietako biztanleak gero eta gehiago izango dira etorkizunean, eta hiri horietan zerbitzuak, azpiegitura eta gizarteratzeko erraztasunak eskaini beharko zaizkie.

Oharrak:

Charrak:

Oharrak: